

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

7 gna A R A N T Z A Z U 'n - Udarakoa - 1958

ITZAURREA

Yakin'en zenbaki au Lourdes'ko gertaeraren inguruan tajaturik dago. Itzal aundiegia eman baidu aurten Lourdes'ek Yakin'lariok konturatu gabe gelditzeko. Zerbait egin nai izan dugu guk ere Lourdes'ko Amaren eskeintzatan Asmo aundiak artu genitun urtearen asieran. Asmo onak eta ederrak bai, baña "gizonak asmatu ta Jainkoak erabaki". Aurrikusi ezin ditezken oztopoak sartu zaizkigu tarteko, eta, miñez bada ere, nai baño gutxiagotan gelditu zaizkigu gure asmo jatorrak.

Dana dala egin dugu beintzat gure esku zegona, eta lansorta polita atera zaigulakoan gaude alare. Amaikatzko jardunga ba-ditu Lourdes-ek zein bano zeinagoak. Ezin zitezkean, ordea, guztiak emen bildu, eta aundientxoek bakarrik sortatu ditugu emen. Joan dan banakoan argitaratu ziran batzuekin eta emengo besteekin, arrotuta gel dituke dirala uste dugu gertaera paregabe orren gai nagusienak.

Oartxo au eginda gero, irakurle, ez daukat izketan jarraitu bearrik lanak olako edo alaka dirala esanaz. Zeuk ikusiko dituzu, eta zeuk neuruko bakoitzaren balioak. Orra, ba; itzuli orri au eta esi lanak irakurtzen. Zure atsegiñetako izango dirala uste dut.

Agur.



TEOLOJIA- FILOSOFIA SAILLA

ELEIZAREN AGERRERA-DOTRIÑA

Olako edo alako tokitan agerrerak izan dirala entzun, eta oso desberdiñak izaten dira gizonen jokabideak. Batzuk itxu itxuan sinisten dituzte. Beste batzuk entzun eta bertan ukatu.

Lenengo jende-klase ori miragarri-miñez jota egon oi da. Mirariak nun arkituko dabil beti. Oientzako ez dago erlijiorik mirari gabe. Aspertuta daude Elizari entzuten "errosarioa errezatzeko ta errezatzeko"; baña ez diote kasorik egingo. Alako batean entzun diote neska bati: "Lourdes'ko Ama Birjiñak esan diola errosarioa errezatzeko" eta egunik etzaie joango arrezkero ura esateke. As-te Santuko elizkizunetan aldaketak egin ditualako "Aita Santuaren konbersiorako" errezatzen dutenetaoak dira oiek.

Bigarrenak, berriz, beste muturrera jo-tzen dute. Agerrera-kontuek burutik egindako ba-tzuen ipuiak besterik ez dizkiete gogoratzen. Psi-kearen ondoeza baño ez dute ikusten orrelako arri-

garrietan. Adimenzale porrokatuak dira. Onartuko dute bear bada mirarien algarritasuna; baña gertatzez, izadiko legeen bidez zergaititu nai dituzte gauza guztiak. Eta orrela ezin danean, burunaske-ta izango dute esplikatuezin guztien adieragarri.

Mutur muturretako jokaera bi oiek baño tartekoak eman oi dira maizago kristauen artean, gutxi asko batari edo besteari alderagotuaz. Katoliko teologiak ematen digun argiarekin zer postura artu bear dugu guk agerrera diralako oiekin? Zebateranoko sinistea eman bear diegu? Zer kalte ekarri dazaiguke oien ukatzeak? Galde auetrek garbi jartzea beste asmorik ez dut lantxo onetan.

"Jainkoak itz egiten duanean sinistu egin bear zaio". Ona gai guztiaren giltzegia. Baña nun itz egin du Jainkoak, zer esan du? Auxe jakin bear da lenengo.

Benaz, itz egin du Jainkoak. Jainkoaren itzetatik sortuak dira gauza guztiak: "Ipse dixit et facta sunt", orregatik "zeru-lurrak Jainkoaren aintza ots egiten dute". Izadi osoa Jainkoaren a-ditzera- emate bat besterik ez da, Jainkoaren agerpena besterik ez. Baña izatezko agerpena da, naturala, eta gu goilizatezkoarekin ari gera. Goiizatezko mailla, berriz, Kristo da Jainkoaren betiko Itza; gizonei Jainkoak esan nai izan dien Itza. Kristogan agertu da Jainkoa oso osorik. "Bat baidira Kristo ta bere Aita" eta "Kristo ezagutzen duanak orren Aita ere ezagutzen du". Etorri ere

ortarakoxe etorri baizan Kristo lurrera: "Berak ezagutzen zuan bezela guk ere Aita ezagutu genezan". Kristo da Jainkoaren agerpena, Agerpen Nagusia. Baña Aita Betikoaren Itz ori ez da garai guztietan berdin aditzera eman. Era asko ditu Jainkoak itz egiteko.

Testamentu Zarrean itxaropen antzean ezagutu arazi zigun Goikoak profetaen agoz itz eginaz. Gero, "sasoiā bete zanean", ezur eta mamiz jantzirik, grazia irabaztera etorri zitzaigun lurrera. Iz zan gurutzean, egin zituan irabaziak, erosi zuan grazia, eta gure zorrak neurrigabe ordaindurik, zerura igo zan "Aitaren etxean guri tokia prantatzera". Baña ez gindun umezurts laga zerura igota. Espiritu Santua bialdu zigun Berak esandako guztiak ulertu genitzan; eta Eliza utzi zigun Berak irabazitako grazia sakramentuen bidez banatu zezaiGUN. Azkenik, gizaldien amaieran, Jainkoaren Itza bigarrenez lurrera dediñean, orduan emango digu graziaren osakuntza: zerua, "Jainkoa arpegiz arpegi ikustea".

Auxe da, eta auxe bakarrik Goikoaren agerpena, Jainkoak gizonēi pekatu egin ondoren esan nai izan dien Itza. "Eta Itz oni entzuten diotenak Jainkoaren seme biurtuko dira. Jaramonik egin ez diotenak berriz, ez dute Osasunik izango".

Gaiñera, azkeneko apostoluarekin bukatu zan "Goiagerpen Nagusi" ori (D.1792). Orrek eman zizkigua Kristo ren azkeneko berriak. Arrezkero ez dago gelago. Orain Espiritu Santuaren argiarekin "Kristo ren misterio" ori gero ta gelago ezagutzen jarraitu bear da Elizak. Baña burutu zan "Kristo

ren Izkutukia". Auxe da Elizak Jainkoagandik jaso duan Goiagerpen ofiziala. Eta berebat, zeruan sartu nai duten guztiek derriorrez sinistu bear diotela orri goierabaki du Elizak bere Almen engañatu eziñaren indarrez. Goiagerpen nagusi ori, berriz, Idazteun eta Eliztradizioan dago.

Goibizitzarako bear dugun guztia goiagerpen nagusian, eta bertan bakarrik, eman izan zaigu. Orixe da grazia gureganatzeko bide bakarra; eta grazia da goibizitza. Bai goiko ta bai beeko bizitzan, ordea, ba-dira zenbait gauza bizitza bera ez diranak, baña bizitzari lagundu eta bikaintasun ematen diotenak. Eta egiteko auxe dute goimaillan aldian aldiko graziak. Ez diote ildakoari bizirik emango, baña bai prestatu egingo dute bizitza ori artzeko. Bizirik dagona, berriz, sendoago biurtzen dute bizitz ortan. Eta oiek kendu ezker maskaldu ta argeldu egingo litzake bizitza bera ere. Grazi-klase auker beti mardulagotzen dute grazi santutzallea.

Ba-da oraindik beste grazi edo doai-motabat: karisma-graziak. Ez dira artzallearentzat grazi auker, nagusienik beñepein, gizarte edo Elizarentzat baizik. Beren izatez ez diote auker eser egiten grazi santutzalleari, eta berori gabe ere jaso ditezke; geienetan santutasunean aurreratu-takoei ematen bazaizkiote ere. Taju ontakoak dira "goiagerpen txikiak". Idazteun eta Eliztradizioan arkitzen ez diralako ots egiten diegu "goiagerpen txiki" beste auei. Goiagerpen dira auker ere, Jain-

koaren itz, eta Itun Berriko gauza guztiak bezela "Christi et in Christum" dira (Kol. 1; 2). Baña ez dira derriorez gizon guztientzakoak, ez dira gabetu-eziñak goibizitzarako "goiagerpen nagusia" bezela. Eta zeragatik ez dira, ain xuxen: goibizitzarako dogma berririk ematen ez dutelako. Orregatik ez ditu Elizak goierabaki eta sinisteko jarri.

Goiagerpen txiki-txiki guztiak beti egon oi dira goiagerpen nagusian eta Elizaren erakutsietan; argi ta garbi ez bada ere, beintzat erdi isillean bai. Baña egon, beti daude. Artu dezagun, esate baterako, Sta. Margarita Maria ri Jesus en Biotza k egindako goiagerpena. Labur esanda, auxe: "Jesus'en Biotza ri kultu emateko" Etzan ezagutzen Elizan debozio zeatz au; bana aspalditik zeukan erakutsita onen dotriña. Alegia, Jesukristo osoari eman bear zitzaiola kultu: bai jainkotasunari eta bai gizatasunari; bai gorputzari eta bai animari, Ipostasizko Bategintzaren bidez norizan bakarra egiten dute-ta. Ori zertzea besterik etzan falta, eta santu orren bisioak eman zuten bide dotriña ori Jesus'en Biotzarenganako jaineratan zertuta konkretatzeko.

Beste berdin Lourdes'ko agerrerakoan ere. Ama Birjiñak agertu eta "Sortzezgarbia" zala esan zion Sta. Bernardita'ri. Baña ordurako dogma eginda zeukan Elizak egi ori. Egia da, amaikatxo agerrera izanak ziran egi ori berori erakusten Elizak golerabaki baño lenago; bana agerrera guzti guzti oiek etziran beingotxoan ere argumentu izan "Sortzezgarbia" dogmatzeko. Ez baida ori Elizaren jakinbide ofiziala, ezarez bezela da ori dogmagai-

ren estudiorako.

Orra, ba, nola goiagerpen txikiek ez diguten dogma berririk ematen. Nabari diteke ona ezkerro, zer on edo kalte ekarri dezaioken gizonari goiagerpen txikien onartze-ukatzek. Berri nabarmenekorik ematen ez badigute, bereartan utzi ta kitto, esango du baten batek.

Poliki! Goiagerpen txikiak ere, egizko diranean, Jainkoaren grazi dira; eta ezin ditezke nolanai zokoratu. Miatu dezagun pittin bat goiagerpen txikien izaera, eta ortik atera al izango dugu zer nolako sinistea merezi diguten.

Era asko ditu goiko munduak gurekin artuemateko, eta goiagerpen txikiak dira kera oieta-ko bat. Goiko izadi ori, goikoa danez, ezin genezake guk emen beeko elpide ta indarrekin atzeman. S. Paulo'k esaten duanez (Efes. 1, 18) "biotzeko begiz" baño ezin diteke goimundu ori bete betean ikusi. Au da, grazi santutzallearen bidez, fedearen atzaparrekin bakarrik iristen gera goiko izadi ortara. Batean esanda, gorputzeko sentimenekin ezin diteke somatu goilizadi ori.

Batzutan, ordea, nai izaten du goimundu orrek gure ezagutzeko ta sentitzeko moduetara moldatu; eta orduan, bere berean ez bada ere, artzen ditu mundu ontako itxurak, eta agertzen zaigu beintzat gu konturatzeko ainean. Garbiago esanda: sentigarri ez dana sentigarri biurtzen zaigu, gure begi-belarrien eskura jartzen zaigu.

Beti ez baña, geienetan, zerutarren bat (Ama Birjiña edo Santuren bat) izan oi da olako

goiagerpenetan. Orregatik "agerrera" izana eman
ei zaie goiagerpen txikiel. Baña orain dator kox
ka. Guk, izatezkiro, gerez, naturalki gorputzeko
sentimenez jasotzen ditugu itxura edo irudi oiek:
eta nundik jakingo dugu noiz bai ta noiz ez diran
goiizatezko?

Ona zer egiten duten agerrera gure soi-
ñean. Jotzen dituzte gure sentimenak, eta itxura
edo irudiak sortuarazten dituzte sentimen bakoitz-
ean; eta jardun ortatik sentipena ateratsen da.
Batzutan benetako kizun edo gauza batek jotzen di-
tu sentimenak, eta orduan benetako ikuskizuna da-
go. Beste batzutan ordea, benetako gauzak ez baña
irudimenak zirikatzen du sentimena, eta orduan i-
kusi-ustea, lillura dago eta ez benetako ikuskizu-
na; senaz eta ~~senaz~~ gauza bera ikusten dala uste
izan arren. Txit nekeza da jakiten noiz benetako
ta noiz lilluratako gauza atzematen dugun goimun-
duarekin aremanduta dauden zeratan batez ere.

Benaz, izango dira elarte, inguruki eta
zirkustanziak agerrera miragarri ori noiz goiko
ta noiz beeko dan jakiteko. Baña goiargi aparteko-
rik ez badugu, elartetatik ere ezin atera al izan-
go dugu ilfalibleki agerrera oien zerukotasuna.
Adimen engañatuezin batek eman bearko digu au. Era
ortako ezagumena Elizak bakarrik dauka mundu ontan.
Eta Elizak ere ez edozein gauzetan, fedezko ta oi-
turazko gauzak goierabakitzekoan baizik.

Gaiñera au: eukitzez Aita Santu gustiek
daukate "ex cathedra" itz egiteko eskubidea, baña
oso banakatxotan usatzen dute almen ori. Begira!,
joandako eun urte auetan bitxotan baño ez dute e

rabilli Aita Santuek almen ori. Lenengo, 1854'an X Pio k "Ama Birjiñaren Sortzezarbitasuna" goierabakitzeko. Eta urrengo, 1950'an Pio XII'gnak "Ama Birjinaren Zerura jasotzea" dogma egiteko. Eta binbitarteko eun urte oietan? Beingotxoan ere ez. Orra zeñen poliki baliatzen diran Aita Santuek bere infalibilitasunaz. Eta ez aztu auxe: esku-bide ortaz baliatu diranean, "goiagerpen nagusiko" egiak definitzeko izan da, eta ortarakoxe bakarrik. Aita Santuak, engañatu eziña danetik, ez du sekula bere almena erabilli goiagerpen txikiak erabakitzeko. Ta geiago oraindik, ba ote dezake usatu infalibilitasuna agerrera epaitzekoan? Ezetz esaten dute teologariek, almen orren esparrutik kanpora daudela goiagerpen txikiak eta.

Askok uste izaten dute agerrera bat baietzen duanean, definitu egiten duala berori Elizak, eta dogma bat bezela sinistu bear dala. Kontuz or! Baietu ta ederretsi bai, baña goierabaki ta dogma egin ez. Bi daude agerrera: gertaeraren zerukotasuna, eta agerrera ematen duan dotriña. Eta Elizaren baietzak auxa besterik ez du esan nai: 1) dotriña ortan ez dagola ezer katoliko fedearen, oitura zintzoen eta Elizaginduen kontra; eta 2) ordurarte dauden agirietaatik azaltzen danez, bidezko dala gertaera ortan sinstea.

Ez du esaten agerrera ori zerukoa danik; agiriak dioten bezela gauzak badira, sinistu leikela bildurrik gabe baizik. Egin dezagun uste bat. Arkitzen dugula beste agiri bat lenagokoak gezur-etaraten dituana; ba orduan, ez sinisteko esango luke Elizak, bere infalibilitasuna batere zikindu gabe: agiriak kontra daudela eta ez sinisteko.

Ori bai, Elizak baieztu baño lenago ondo neurtuak izango ditu dokumentuak, eta erabakirik ematen bada pixu aundikoa izango da; beti, ordea, kondairamaillan

Agerrera ikusi duanari ez dio ematen Elizak munduko beste edozein gertaera ikusi duanari baño fede geiago. Dokumentuak miatu ondoren baietz ateratzen bada, ola izango da. Ezetz ateratzen bada, berriz, ez da izango. Eta izan diteke batzuk baietz eta besteak ezetz ateratzea; ba orduan, jarraitu dezaiola nork bereari. Elizak ez dio konturik artuko. Gizasinismena besterik ez du eskatzen olakoetan Elizak; kondairari ematen zaiona bezelakoxea.

Ba-dirudike agerrera-ikusle bat santu egiten duanean Elizak, kanonizatu egiten dituala berorren ikusketak ere. Baña ez. Oiek ere beste guztiak bezelaxe akatsdunak dira, eta gogoaren kontra izan arren, beste gizonek bezelaxe uts egin dezakete. Gaiñera, burua ondoezik eukitzea ere ba-diteke, eta benetako agerrera diralakoan lillurak eukitzea ere. Baña oiek guztiok ez diote ezer persona orren santutasunaren kontra. Eta Elizak au aitortzen du: gizon edo emakume ori santua dala birtuteak arrigarrero bete dituala, eta ez da sartzen burutik ondo zegoan ala ez esatera.

Orain beste bat. Agerrera batzuk mirariz eta guzti zindotuta egon oi dira, Lourdes koa bezela Oiek ere ez al dira jainkofedez sinistu bear? Ezta oiek ere. Oiek ere ez onartu ta ez zabartu egiten ditu Elizak; agiri jatorrak ba-dituztela esan, eta gizasinismenez utzi egiten ditu bakarrik.

Liturji-elizkizunetan sartu izan ditu Elizak zenbait agerrera, baina orduan ere ez ditu kanonizatu. Aztertu ditzagun adibide batzuk, Jesus-en biotzaren eta Lourdes ko Amarena, esate baterako. Leen ere aipatu-edo egin dugun bezela, bi gauza daude olako kultugaietan: bata benetako kultugaia, eta bestea zerdalatazko okasiozko kultugaia. Beste itzetan esanda: kultuaren mamia eta azala. Agerre-ra bi oietan "Jesus en gizatasuna" eta "Maria'ren sortze garbia" ospatzeak dira benetako kultuaren gaia eta mamia. Kultuaren zerdalatazko gaia edo azala berriz, Sta. M. M. Alacoque'k eta Bernardita'k eukitako agerrerek; oiek zirala-ta sortu baizan kultugai ori. Elizak mamia, benetako kultugaia aitortzen du bein eta berriz, eta gai oiek dogma diralako Jainkofedez sinistera beartzen gaitu. Okasiozko kultugaia, ordea, gizafedez sinsisteko uzten du. Eta ori kondairako gertakizun besterik ez diralako.

Orainarteko ikuslea ez beste guztientzako izanda. Besteek ezin jakin dezakete infalibleki agerreraen zerukotasuna, baina ikusleak bai batzutan beintzat, Jainkofedez beartuta al dago orduan ikuslea? Ez datoz bat teologariak, baina beartuta legokela esatea dala uste dut bidezkoena. O-na zergatik. Goiagerpen nagusiko egiak bezelaxe au ere Jainkoarena da. Eta aietan legez, Jainkoa berbera da emen ere egiaren aitorle ta testigu. Ez da ikusten, ba, zergatik batean Jainkofedez sinistu bear dan eta bestean ez.

Bukatzeko, ikusi dezagun goiagerpen txi kiek daukaten balioa ta esanaia. Lenago ere esan dugu-ta, goimunduak gurekin dauzkan artuemanak bes terik ez dira agerrerak. Aita Betikoaren Semea "Emmanuel" izateko etorri zan mundura, "bere atsegiñak gizonen semeekin egoten zeuzkalako". Orregatik bizi izan zan gizonen artean "gizonen antz antzeko egin da". Orregatik sortu zuan Eukaristia "Aitarengana biurtzeko ordua etorri zitzaionean": munduaren azkena bitartean gizonekin egoteko. Bai, orain ere gurekin dago Kristo, baña egoera estalia dauka, mistikoa; ezin genezake ez begiekin ikusi, ez belarri-egaz entzun, ez eskuen bidez ikutu. Ikusi gabe siniste ori, berriz, oso pikoa egiten zaigu gizonoi. Orregatik daukagu ain fede xapatxa ta kaxkarra. On do asko daki zeruko Aitak gure berri; eta gure fede pittin onek lur jo ez dezan sentituarazi egiten digu illunpetan sinisten dugun ori. Ortarakoxe bialtzen dizkigu aldian aldian agerrerak. Beraz, agerre- rak benetako diranean, ez dugu nolanai jokatu bear berolekin.

Olaxe da, agerrerak etzaizkio argumentu ezertarako Elizari. Baña betebear aundia izan dute goiagerpen txikiak Kondairan zear. Etzioten Elizari ziñegi berririk emango; bai, ordea, zirikatu egin diote dogmaren altxorrean gordeta zeuzkan zenbait pitxi argitan jartzera. Eta orrela, bein baño geia- gotan izan dira kristau-bizitzaren bizkortsalle. Ba-dakigu, esate baterako, Jesus en Biotza ren ja- iera-debozioa etzuala zabeldu Elizak Sta. M.M. Ala- coque k izan zituan agerreragatik, dogmaren muñetan errotua arkitu zalako baizik. Sortu, agerrerak sortu es bazuten ere, ordea, zirikatu egin zuten beñepein

Eliza bere altxorrean zeukan debozio eder ori zabal-
tatzera. Eta nork ez daki zelako bizialdia eman-
zion jaiera orrek kristau-bizitzari?! Beste orren-
beste Lourdes en. Nork kontatu zorioneko toki artan
sendatu diran gorputz eta animak? Zenbat eta zenbat
Jainko gabeek ez dute arkitu Lourdes'en fedea? Zen-
bat kristau epel ez ote dira berotu?

Borondate onez begiak zabaldu ezkerro, be-
rriz, nork ez du somatzen Lourdes batean zeruaren
arrastoa eta señailea? Bene benetan Jainkoa maite
duanak ukatu ote dezaloke, gero, orrelako agerre-
rari sinistea, Elizak ez duala goierabaki ta beste-
rikan gabe? Egia, ez luke erejiarik izango: pekatu
astunik ere ez bear bada. Baña ausarkeri aunditxo,
bai, izango litzake, eta zabarkeri galanta ere bai
Jainkoaren graziarekiko.

Gizonen artean egiten dan bezelaxe, agi-
riak bat diotenean, burugabekeri da kontrakoa esa-
tea. Jainkoaren gauzatan ere berdin, ba, Ez dago on-
do agerrera-ikertuta. Baña itxu itxu-
an ukatzea ere ez. Eta ez dago ongi batzuk egiten
duten ori ere: gizonen jakintzatan baliodontzat e-
man giltzegi ta jokabide batzuk, eta beroiei jara-
monik egin ez agerrera-kontutan. Jakintzan nai iza-
ten dan lez, aurriritzirik gabe ibilli bear da
auetan ere. Diran bezela gauzak ikertu, eta ondorio-
tan zer ateratzen dan, orri eutsi. Ez arrazoikeri
ta ez fedekeri.

Bildu ditzagun eskutada-mami batean ora-
lñarte banatutakoak. Jainkoaren Itza goiagerpen na-
gusian eta txikian arkitzen da. Goiagerpen nagusiak

goibizitza bera ematen du, eta derriorrez sinistu bearra daukagu zeruan sartuko bagera. Infalibleki dakigu goiagerpen nagusia Jainkoaren itza dana, Elizak goierabaki dugu-ta. Elizak ez ditu sekula definitu agerrera, eta ezin genezake erabat erabat jakin zeruko diran ala ez. Orregatik, begi zorrotza euki bear da egizko ta gezurrezko agerrera ez nasten. Agerrera eman bear zaien fedea giza-fedea da, kondairari bezelakoxea. Baña burubide zintzo arri dan gizonak ezin dezazke alde batera utzi agerrera, agiri guztiak orren alde datozenean. Uste onez jokatu ezkeru pekaturik ez dago agerrera ukatzean, naiz eta jakinien gainean ukatu.

Agerrera beneteko noiz diran ziur jakin ai izateko Jainkozaletasun beroa eta fede sendoa bezelakorik ez dago. Inoiz izatekotan, berriz on-tantxe bete bear dugu Jesukristo ren esan ura: "Izan burutsu sugea bezela, eta bakun usoaren antzo.

Fernando Mendizabal (oim)

Arantzazu ko teologari.

Gai ontarako Iturri-liburuak:

TRUHLAR, S. J. (P. Carolus), "PRINCIPIA THEOLOGICA DE HABITUDINE CHRISTIANI ERGA APPARITIONES", Editio nes Academiae Marianae Internationalis, XVI, Romae 1956, 1-17 or.

DE GUIBERT (J.), "LEÇON DE THEOLOGIE SPIRITUELLE", I, Toulouse 1943.

STAELING (Carlos M., S. J.), "APARICIONES", Madrid 1954.

BERNARDETA

SAINDUA

Negua zen, negu hotza. Barne ilhun bate an emazteki bat supaster chokoan bere lau haurren erdian. Bortzak su beltz bai so daude, doi doia bortzen begitartea argitzen duen su miseaule bati so. Bulta baten buruan ama chutitzen da: - "Bernadeta, belaunika hadi eta arrosorioa has". Denak chamindeiko kurutzeari buruz hasten dira othoitzean. "Iguzu egunean eguneko ogia..." Zoin kartsuki erralten zituzten hitz horiek! "Haur maiteak gaur ez dinau deusik jateko. Loazte beraz oherat; bihar Jainkoak zer bait igorriko diauh, ez dinat duderik".

Haurrak laster etzanak dira, laster lokartuak ere; adin hortan ez dute achola haundirik. Zertako? Bertzenaz ere ana ez othe da hor.

Ama, hura, bethi chutik, norbaiten beha iduri ezen ardura aterat doa. Jadarik ilhuna eta senharra ez oraino ageri: "Noiz utziko othe daute?" Gaicho emaztekoa dalaki noiz arte atchikiko duten! Goizean bi gizon izan zitzaizkon oheka auzapezak ikusi nahi zuela. Zertako uste duzie? Ohoiz tzar bat zela entzuteko... Zer zimikoa bihotzean: Ohoizna egur puchka bat hartu zulakotz bere haurrak hotsak hil ez zetzan. Egur puchka bat, erdi ustela, ondarra lekuan berean ustelduko zena harek hartu ez balu. Bainan norbaitek ikusi zuen, bihotzean herra zuen batek eta harek salatu. Gaizo Frantchua, bere buruaz pagatu behar zuen egur puska hura eta arras ka-

rio pagatu. Etzutena zortzi egun hantchet atchiki! Zortzi egun ilabetesk iduri eta arte hartan bere emaztea eta haurrak behar bada goseak... Hobenik gabe jenden aintzinean zinkindua zen.

Alta etzen lurde guzian gizon zuzenagorik. Soubirous familia hiriko familia gotorrenetarik zen: ez aberats izanik ere aiserian bizi. Goizik ezagutu zuen neskato gazte bat, eihera-zain baten alaba, Luicha Castérot, hau ere familia onekoa. Ezkondu zirenean Boly deithu eiheran egin zuten bereen egoitza. Aitagarreba hor zeno gauzak ontsa zoztzin. Baina Frantchuak hartu zuelarik eihera eskuetan, emeki emeki etcheko moskin guziak hurtu ziren. Gizon langilea izana gatik jitez lazo eta begia ez aski zorrotz bere ontasunen zaintzeko. Bartzalde sobera ona: ainitzek etzioten lanaren saria emaiten eta berak kopetarik ez aski zuzenaren galdegiteko. Gehiago dena, haren bihotz onak etzezaken nehor ikus gabezian: orduan eman eta eman ari zen. Eta hain chuchen, Luicha ere huts hortarat lerrakor... "Eztia, ona, langilea, sobera aise emaiten zuen: etzen emazteki bat handik atheratzen bere ahamena jan gabe." Aberasteko arras bide charrean zabilzan!

1855'ean zorrez ithoak, eiheraren jabeak handik haizatzen ditu. Lerra, lerra, gero eta errebesago, azkenekotz horra erreka zolan. Ezin bertzean, barne iguingarri bat begistatzen dute, airerik ez argirik ez duen barne bat, "le cachot" deithua: lehenago presondegi izana, poliza gizonen bere gisa utzia zuten aspaldi hartan, sobera ilhun eta umi zelakoan. Horra Soubirous familiaren egoitza! Adiskideak ere, bedera bedera -estakuru guti aski da holakotan- urrundu zaizkote, eritasun kotsakor zombait ukan balute bezala. Eta ogia? Hori ere shuhur, biziki chuhur. Nolaz ez! Ait'amak egunka ari dira lanean, batean emen bertzean han, ardura biharumanean zer janen duten ere jakin gabe. Bizkitartean Jainkoak, familia zinez miseaule hortan hautatu behar zuen bere chedeen betetzeko arima garbi eta eztia. Soubirous senhar-emaztek 1844'eko Urtarrilaren 7'an ukan zuten bereen lehen haurra; Bernadeta eman zioten izena. Zazpi ilabetetan, amak bertze haut bat behar eta igorri zuten adiski de baten gana, Aravant andrea, Bartres tarra. Emazte gaichoari, bere lehen haurra eritasun batek eramanean zion. Bernadeta amabost ilabetez bere hau-

rra bezala arthatuko du.

Etchean ait'amek goizik eman diote othoizteko gostua Bernadetari, goizik garbitasunaren eta egiaren amodioa. Ordainez, neska ez osagarritz azkar. Hatsa biziki nekez hartzen du eta batzuetan estul bat jausten zaio bularren urratzekoa.

1857'ean bere 13 urthetarat doa. Ardura eri, bereziki neguan, anak laguntzailer ona du. Gehienetan bera kanporat doa Bernadeta haur-zain utzirik. Amaren grina etchez etchez lan eske, hemen bokata egin, hantchet ilea ohuri. Oraino uros lana atzemaiten duenean! Batzuetan gabe gelditzen da; senharrak bere aldetik deusik ekartzen ez badu oherat doatzi barnea arin. Egundaino ez dute bereen jatekoa eskatu: "goseak hilen bazituzten ere" kusi batek dionaz. Jatekoa berek nahi dute irabazi zer nahi gostarik ere.

Bizkitartean Bartres'ko amarek ez du Bernadeta ahanzten. Orain haren ere etchetara bat haur badu. Haur-zaintzale bat zoin gogotik har lezaken: horra hain chuchen Bernadeta. Ba-doa beraz Soubiros senhar-emaizten ikusterat. Baietz ba... berekin hartzen du eta ba-doa biak Bartres'erat. Hemen bederen jatekoa nasai, ez baida guti. Haatik haur-zain beharra ardurago artzain! Bainan Bernadeta ez da hortaz kechu: ardiak eta bildotzak maite ditu eta bertalde, zinez saindugala, zerbaitek salatzen dio Jainkoa nunnahi atzeman ditakeela. Gauza batek bakarrik egiten dio bihotzean chimiko: jadanik hamalagarren urthean eta irakurtzen ez daki. Nola ikas "katichima"; nola beraz egin Komunioa? Amaño ere arras gogoratua dago. Arrats batez kaskoan hartzen du behar diola gogoz ikasarazi. Zonbait egunen buruko karra ttipitu ere! Haur gaitchoak nihundik ere etsezaken ikas: hari erran ala harri bati erra berdintsu. Eta gure emaztekoa bizia, zaintsua ezinago! Goiz edo berant pindarrak izanen ziren. Arrats batez hartu liburua eta lurrerat botatzen du: "No, ez dun piea balio, bethi berdin zozo izanen hiz". Haurra ez du hain gutik lotsatzen. Bethi berea gogoan, ait'amer jakinarazten du, etchean sartu nahi duela bere komunioaren egiteko.

1850'ko urtharrilaren hastapenean, horra Bernadeta berriz "presondegian" bere ait'ama eta

haurridekin. Bethi gabezia gorrian... Bainen zer amodioa, zer lokarri azkarrak halere denen artean. Ez da behar bada familia bat lurde guzian, hoin tinki bizi denik. Denak othoitzaren jarraikiak: Goizarrats othoitzaren elgarrekin, igande guzian meza-bezperak ardura mahain sainduan. Ez da dudarik, Jainkoaren amodioz aberats dira.

II. - A G E R T Z E A K

A.- H I R U l e h e n a k

- "Hau lastima, ez dinau gehago sugairik.
- Ni joanen niz cheka, ama, dio Bernadet'ak.
- Ni ere, niere, supazter chokotik jautzinez, Toinet'ek.
- Biziki hotz dun eta ziek haurrak. Sarri joanen nun nihurtz arte dutan batez.
- Ni horiekin joanen niz, dio neskatcha batek. Hau, Joana Abbadie, auzoan bizi den kusi bat.
- Hola denaz gain, zoazte, bainen behausie minar eta astiriko etcherat."

Hiru haurrak ba-doatzu zalu zalua, karri-karri behera. Zubi ondoan emazte bat ari da bere bokataren latsatzen:

- "Norat ari zizte haurrak holako hotzarekin?
- Sugai kotsia nahi ginduzke bildu oihan hortan.
- Sugaiak! Hobe duzue beraz Massabielle'ko alderat joatea, sugaiez ihaurri da."

Jautzeka laster Massabielle'ko harrokaren aintzinean dira. Abar ainitz, bainen uraren bertaldean. Joanak eta Toinet'ek bi jautziz ura pasatua dute. Bernadeta arrunt marranta, bazterrari harat doa, nihun pasala idorrik atzemanen duen. Ezin bertzean galtzerdi bat kentzen du. Bet betan haize azkar batek itzularazten dio burua. Bizkitartean deusik; arboleak eta belarra geldirik daude. Ordu be

rean, bigarren ufa bat Massabielle aldetik. Wanchet, harroka ziloan, zer ikusten du: andre eder bat, jauntzi churi batean. Harritua, bere arrosarioa eskuratzen du. Bainan nihundik ere ez dezake kurutzearen seinalea egin. Andre gazteak ere bere arrosarioa hartzen du eta kurutzearen seinalea egiten. Aldi huatan Bernadetak ere egin dezake. Arrosarioa erraiten duen denporan, andreak ez du hitzik erraiten: bakarrik "Gloria Patri" burua ukurtuz. Andreari so eta so dago gure Bernadeta. Ez du nihun holako andre ederrik ikusi: jauntzi churrian, gerriko urdin batekin, bi arrosa zangoetan, irri ezti bat ezpainetan Bernadetari so!

Anartean, Joana eta Toinet ez dira alfer egonak. Beren abarrak besapean, berriz harroka pean dira.

"Bernadeta, zer ari hiz hor?"

Hiru aldiz oihu egiten diote, bainan hunek hitzik ez ihardesten. Toinet'et bi harri botatzen diozka; debaldetan. Hila bezain zuri Bernadeta bethi belhauniko. Betbetan chutitzen da.

- "Zer ari hiz hor?"
- Ee, deusik.
- Meskila, bethi othoitzean."

Bernadeta urean iragaiten da, "ura beroa zen".

- "Ez duzie deusik ikusi?"
- Ez. Hik zer ikusi dun?"

Bernadetak bihotza gaindika du. Bidean bere ahizpari kontatzen dio ikusi duena. Funen lehen lana, bichtan dena, bere amari salatzea.

- "Zer derasan? Haurra, ez dinau bertze bekarragorik. Bernadeta, haudi hunat. Egia dea. Andre gaste bat ikusi dunala har-ziloan?"
- Ba ama".

Zahalua erne ibilli zen... bainan Bernadeta bethi bere erran hartan.

- "Gaizki ikusi dun. Harri zoinbat zuna.
- Ez, ama, begitarte bat ba-du, guziz ederra."

Bernadetak etzuen ba gezurrik erraiten

bertze orduz.

- "Othoitz egin bekar dinau. Berdin gure etchetik athera arima zonbait".

oo0oo

Ortzeguna zen, 1958'eko Otsailaren hameka...

Hiru beharritan erran hitz ichila lasterka dabila! Arratseko berria azkarki hedatua zen.

Otsailaren hamalaua ihautiri igandea. Eliza aintzinean dotzena bat neska gazte Bernadeta-
taren inguruan, ahopetik, ichilka mintzo.

- "Bainan amak gaizkituko nichi.
- Behauchu hortik, ez dauchu deusik erranen ez!
- Zertako ez gira denak haren ikusterat joanen.
- Hori duchu hori, goazen denak".

Chori tropa airatzen da. Amak aitaren ganat igortzen ditu. Aitari, ~~EZ~~ bortitz iduritzen, BA berriz lazo. Gure biligarroek ez dute duda mikorik; jadanik karrikari harat doatzi gure gizona bere pentsaketetan utzirik. Oihana hartzen dute Massabielle'ko gainek'aldetik hola ez dute urean pasatzerik. Patar gaistoa izanik ere Bernadeta bi jauziz bere lekuan da.

- "So egizie, bere arrosorioa eskuetan, so zaiku".

Bainan nihork ez du ikusten. Bernadeta chutitzen da, bi urhatsez andrearen ganat aintzinatzen eta ur-benedikatua gainerat botatzen erranez: "Jainkoa k igorria bazita zaude". Andreari irria jauzten zaio. Orai Bernadeta arrunt bertze da: begitartea zuri zuria, begiak han nunbait, hila iduri. Lagunak arrituak, heiagoraka, nigarrez zer egin jakin ez. Nahi dute chutiarazi, bainan deusik ez du entzuten; handik ereman, lurrean itzatua iduri du. Jadanik zonbaitzuk laster egin dute handik hurbil den eihera batetarat. Bi emazte gotorrek ezin dute higi. Eihera-zainaren semea, 28 urtheko muthiko azkar bat hor da bi jauziz. Choratus dago haur miresgarriari so. "Nihun ere ez dut holako begitarte ederrik ikusi". Nahi du chutiarazi. Bai to! Etzaio behin ere zaku irina hoin pizu iduritu! Azkenean batzuk tira, bertzek pusa

patarraren kaskorat heltzen dute. Zonbait izerdi gusta ere negu minean... Eiherako atean bere usai-ako begitartea zuen: ordu arte Andrea begien aintzinean zukeen. Etchez etche, karrikaz karrika berria laster hedatu zen, batzuentzat haur-ele, sineste-gai bertzentzat.

Soubirous senhar-emaztek etzakiten zer pentsa. Heien haurra lilluratua balitz! Bizkitartean ezagutzen zuten: etzen den gutienik ere gezurtaria. Jadanik jendea ba-dabila hor gaindi, batzu asarre haur miko hori ez dutenez othe etchean atchikitzen ahal, bertzeak alde, frogak egin behar direla: haur horiek berak uzten badira, zoazi zu zer pentsatuko duten. Jende gehiendu zonbait joan ditela heiekin ikusteko, frogen egiteko. Nihun gezurrik balinbada ordu deno ezarriko dute neskatcha bide chuchenean; egia bada orduan ageriko zer egin.

Otsailaren 18'an beraz, horra Millet eta Peyret andreak "presondegian" goizean goizik. Bernadeta hartu eta Elizan lehen Meza entzunik erne erne Massabielle'ri buruz ba-doatzi. Millet andreak chirio bat eskuetan dauka, balekibale Andrearen aintzinean pizteko. Peyret neska gazteak al-diz aitaren bulegotik paper eta punttakoak hartu ditu.

Arrosorioa hasi orduko horra Andrea han.

- "Errazu, dio Peyret'ek Bernadetari, oizu behar direnak izkiatzeko. Errozu bere chedeak papaer huntan ezar ditzan".

Bernadeta chutitzen da, Andreari denak eskaintzen. Lehen aldikotz haren boz eztiak choratzen ditu haurraren beharriak.

- "Erran nahi dauzutanak ez du izkirioz ezartze beharrik. Atsegin nuke hemen zure ikustea hama-bortz egunez. Nahi duzu?

- Ait'amen baimenarekin gogotik.

- Hitz emaiten dauzut uros izaitea ez bizi huntan bainan bai bertzean".

Azken hitz horiek erran eta itzali da Andrea. Bernadetaren lagunek hitzik ez dute haute-man, bakarrik ikusi haurraren ezpainak higitzen. Gusturik ederrenean, zonbait "agur Maria" erran eta jin bezela itzuli ziren etcherat. Nehork ez

omen zituzten ikusi... halere denek berria ikasi, alainan hitz errana ezin atzeman! Denek ba-dakite orai norbait agertuko dela hamabortz egunez Massabielle'ko harrokan. Merkatutik etcherakoan berria wrrunsko hedatu zen ortzegun arrats hartan.

o o

o

B.- Hamabortz egunez

"O THOITZ EGIZU BEKATOROSENTZAT"

Ondoko igandean, Otsailaren 21'a, gaitzeko jendea bildua zen goizean goizik harroka famaturat. Berdin lanik ez eta, zertako ez joan ikusterat? Igandekari, ainitz laborari eta langile elgarretaratu dira berri gose, bainan ere barnea inarosia. Zertako daude ba hoin ichil? Bazterrean dauden poliza-gizonen beldurrez aments! Ezen hiru poliza-gizon ba-dira han, tente-potente, harrokarri hurbil, haundi eta azkar, bainan iduriz arras gozoak. Heiek ere ikuska jinak, aintzindariak igorrik, nihun makurrik gerta ez dadin.

Bainan hau ederra dugu, nor da ba, poliza-gizonen ondoan dagon gizon hori? Medikua bat, Dozous medikua. Sinestean epel, bere girichtino eginbidetan lazo, jakitatea denak baino gorago dauka. Harek ere entzun ditu haur miserablearen gertakariak. Haur choro bat, ez dauka mikorik. Bere jakitateaz azkar, ethorria da haurra laster hutsean atzemanen duela.

Ordu berean horra chuchen Bernadeta bide chendrari behera heldu. Choria bezain arin, ne-hori so ere egin gabe, ba-doa bethiko lekurat. Belauniko, bere arrosorioa eskuan, hirugarren "Aguñ Maria" n, begitarte argitzen zaio. Medikua famatua han du ondo ondoan, zanko hari so, arpegia jori, burua chut, nor niz ni! Emeki emeki haurraren begitarte guziz ederrak inarosten du, gochatzen, choratzen. Bainan jendek zer erranen dute. Jakintsun batek ez du sendimendua nausitzerat utzi behar. Eskua hartzen dio, bihotza zertan duen ikusteko: hau gozoki bere lanari; zainak ere arras pausatuak; mia eta mia bainan nihun deusik ez.

Hor bada zerbait. Mediku gaizoari burua nahasten zaio; haren jakitatea ez da oraino aski zabala. Berak erranen du gerochago azken hitza sinesteak eman beharra dela.

Bizkitartean haurra bethi othoitzean, aingeru baten pare. Bet betan begitartea ilhuntzen zaio, bi nigar chorta jauzten, lerratzen lurrerat. Bereganatu denean, medikuak galdegiten dio, zertako nigar horiek.

- "Andrearen begitartea ere ilhundu da eta urrunerat so eginez erran daut : "othoitz egizu, bekatorosentzat", hori erran eta itzali da."

Neskato gaztea, nehoi kasurik ere egin gabe itzuli zen etcherat. Laster mesa-nausirat joaiteko tenoria zen...

Bazterrak kechu ziren egun hartan. Nun nahi, karrika choko guzietan, jendea multzoka goraki mintzo. "Ni han niaian... ni ere ba... hi balinba hiz ni ere..." Zalaparta ainitz; keskak etziren urrun. Beharrik poliza-gizonak hor baitziren, begia zorrotz, beha, nihun borrokarik pizten bazen ere.

Hiriko buruzagiak etzauden lo. Auzapezak hiriko-etchean bildu zituen, zer egin behar zen jakiteko. Jendea ba-zabilan orai azkarki harroka famatu hartan. Gobernioak bere hitza ba-du erraiteko. Jendea emendatuz doa. Ordu deno behar dute bereen larderia finkatu, gero berantegi. Bainen jendeari lotzeko orde, zertako ez loth nahasmenu horien guzien ithurburu den neskatoari. Hala erran, hala egin. Arratsaldean berean behar dute delako neskatoa bide chuchenean ezarri. Baskaldu eta, Jacomet poliza-gizonen burua eta Callet ur-zaina ba-doatzi elizari buruz. Bezperak ondoan Jacomet jauna Bernadetari hurbiltzen zaio diola:

- "Haugi, no, enekin.
- Bai jauna, nahi duzun lekurat."

Kechu da, kechu, gure gizona. Haur tchar baten gatik zer igande arratsaldea behar duen iragan! Bere bulegoan jartzen da, Estrade anai-arrebak lekuko; Bernadeta han berean, kadera batean jarririk. Gure Bernadetak ez du beldur mikorik. Gerochago erranen du barnekikako indar batek lagun-

tzen zuela. Jacomet jauna hasten zaio ezti ezti, boz gochoenarekin. Ba-daki den hartz basena ere eztiarekin bil ditaikela... nolaz ez bildotsño hau!

- "Zer dun izena?
- Bernadeta Soubirous jauna.
- Eta aitak?
- Frantchua Soubirous.
- Amak?
- Luicha... Luicha Castérot.
- Ederki. Zer ari hiz etchean?
- Seroretarat noa, ikasterat. Etchean ama laguntzen dut, anaia zaintzen.
- Erran zkian cheheki, diren bezala, Massabielle' ko gertakariak."

Emeki, garbiki kondatzen diozka guziak.

- "Eta Andre hura zinez ederra dea?
- Ba jauna guziz ederra.
- Eta holako... andrea baino ederrago?
- Aise, ez dira hurbiltzen ere.
- Gazte gaztea ala...
- Bai, arras gaztea.
- Zangoak agerian ditia?
- Gutti; zaiak eta arrosek gordetzen diozkate, erriak salbu.
- Biloak ez ahal ditin agerian?
- Dremendeneko bat; gutiz gehienak oihal batez gordiak ditu.
- Andredena-Maria dela erten dun beraz?
- Ez dakit hala denez; ez daut deusik erran.
- Ait'amer deusik aipatu duna?
- Bai, jauna.
- Eta zer zioten?
- Haste hartan, zerbaitek lilluratu nindukeela erraiten zautaten; ez niela beraz gehiago harat itzuli behar.
- Arrazoin dine. Ez dun han deusik andrerik ez bertzerik.
- Bainan, jauna, joan nizan aldi guziz ikusi dut. Ez nindaiteke bethi tronpa.
- So egizan denak izkirioz ezartzen ditinat; hanbat gaichto gezurrik sakatzen badun.
- Jauna ez dauzut gezurrik erran."

Nundik loth? Gure gizona kechatzen hasia da. Neska tchar horren kopeta! Bere gisako sareak hedatzen diozka.

- "Erran dun beraz Andre bat agertu zaunala hola-koa... bezain ederra?"
- Ez jauna, ederrago dela erran dauzut.
- Biloak lachoan dituela sorbaldetan?
- Ez, oihal batez gordeak, foltsietan salbu.
- Arrosa hori bat ba-duela gerrikoan?
- Ez jauna, denak nahasi dauzkidatzu; gerriko urdina du, arrosa horia ez du gerrikoan bainan bai zango bakotchetan.
- So egizan, dio azkenean Jacomet jaunak arras kechu, ehiz gehiago harpe hartarat agertuko heurre onetan!
- Jauna, Andreari hitz-emana diot.
- A baia; irriak sartuko zauzkin ba. Preso ezarriko hut.
- Hobe seurki; jale bat gutiago etchean ene ait' amentzat! Eta zu ethorriko zira, eni katicimaren ikasarazterat."

Aldi huntan gure gizonak zapartatu behar du. Neskato mukuzu horrek gaina atchiki behar othe du. Habiak joa iduri chutitzen da, sekulako kopetan, neskatoari buruz joaiten. Ordu berean athean gizon bat agertzen da.

- "Haur hunen aita niz.
- Aita Soubirous? Beharrik... ilauntzen nien bertenez eta preso sartzen. Zer dira haur hunen jestu horiek? Zure onetan behar dena egizu bertenez...
- A, Jauna nori mintzô zira. Leporaino aseak gira komediaz; jendea sukaldetraka ba-dugu, galdez akitzen baigituzte. Zure eraneri jarraikiko niz beraz".

Horra berriz ere Bernadeta bere leku maite hartarik urrundua. Gaicho haurra, zer nigarrik ichuri zituen egun hartan, lokartu aintzin. Ait' amen erraneri jarraiki nahi-eta... bertzaldetik Andreari hitzemana. Zer egin? Etzuen lo haundirik egin gau hartan.

oooOooo

A n d r e a r e n n a h i a k

Biharamun goizean, astelehena, chuchen chuchena seroren eskolarat joan behartu zitzaion,

mezarik ere entzun gabe. Han berriz, minaren gochatzeko, serora eta lagun, denak haren trufan. "Othoitz egizu bekatorosentzat". Ba-zuen hor zer jasan... Eguerditan, ondar ahamena ahoan, seroretarat doa berriz nihun baratu gabe. Betbetan, hau bitchikeria, bide kurutze batean, nihundik ere ez dezake seroretarat doan bidea har. Berak nahi ala ez barnetikako indar batek, Massabielle'ri buruz bultatzen du. Holakotan nun nahi begiak ba, bi poliza-gizon ohartzen zaizko eta hari juntatzen. Holako gizon pikorren artean, itchura charra zuen. Jendea handik eta hemendik biltzen da, eta heier segitzen, bainan urrunetik, zer gerta ere, zoazi zu zer duten gogoan. Hainbertze denbora beha egon ondoan, hainbertze othoitz egin ondoan, egun hartan Andrearik ez... Zer gauza kiretsa Bernardarentzat. Oichtiko indar harek zertako gomitatu zuen beraz harperat. Burua apha, begitartea ilhun, bainan errotik Jainkoaren eskuetan, ba-doa etcherat. Egun hartan gizon argituek bota zuten trufa ederrik, egin karkaila gozorik: delako Andrea poliza gizonek izitu zuten; Andrea poliza-gizonen beldur...

"Presondegian" aldiz, sinesteak bertze elerik zaikan. Soubirous senhar-emazteak arras gogoetatuak: "Gure gatik othe da Andrea ez agertu?" Astearte goizean ez dute gehiago duda mikorik. Nahi duenak nahi duena erran beza, Bernadeta egun guziz hitzeman lekurat joanen da. Bebrietarat poliza-gizon eta bertzeak; ez dute hor egitekorik.

Goiz hartan joan zen, jaun argitu ainitz harekin, ikuska. Andrea agertu ere zitzaion, bainan erran ziozkan hiru segeretuak, beretzat atchiki bizi zeno. Delako jaunak barnerraino inharosiak, ba-zela hor haur-elhez bertzerik.

Asteazkenean, otsailaren 24'a, bortz ehun bat gizon eta emazte han daude, othoitzean, nehork manatu gabe, zerutikako zerbait sendi dute-lakotz. Egun hartan, Andrearen hitzek barna hunki zuten Bernadetaren bihotze. Haurraren ahotik erori hitzek laster hedatu behar zuten. "Penitentzia egizie, penitentzia, penitentzia." Bihotz hotzenak ere entzun zuen galde hori, entzun eta onhartu bere bekaturen gatik.

U r s o r g i a

Orai lurderat doan senthoralea, ez da handik atheratzen harpearen ondoko ur hartatik edan gabe eta zonbateg ez dute ur hartan berean sar-jalgi bat bederen egiten. Denek bat othe dakite zertako jestu horiek.

Otsailaren 25'ean, argia hasi baina lehen, jendea jadanik metatua zen harpean. Orai bazterretako herritarrak ere menturatzen dira. Gero eta gehiago sinheste badute agertze horietan. Zerutar bat da, ez da dudarik... Zonbait ele, ilhunpean haur bat lasterka harpeari buruz. Bernadeta? Hura bera. Zonbait "agur Maria" eta bereala bethiko indar hura lotzen zaio, begitartea argitzen, pizten: Andrea hor da. Bere bi belhaunen gainean ba-doa harpeko zilorat; han itsumangoka zerbait chekatu ondoan, berriz ur haundiari buruz doa, bethi bere belhaunen gainean. Zer gertatzen da ba? Bernadetak berak erranen dauku nehork baino hobeki: "Andreak erran daut: zoazi ur sorgirat, edazu eta ikuz zaite. Ez nien nihun ere ur sorgirik ikusten; ur haundirat joan niz beraz. Keinu egin daut etzela han, bainan harpean. Joan niz eta han ur geldi zikin bat baizik ez atzeman. Eskuarekin ez nion har, hain zen guti. Orduan lurra eskuarekin karrakatu dut: ura ethorii da bainan zikina. Hiru aldiz entseatu niz edaterat; laugarren aldiak bakarrik iretsi ahal izan dut."

Ur sorgi hori azkartuz, emendatuz joanen da. Biharamunean, ortziraila, jendea harritua egonen da mirakuiluzko ur sorgi horri so. Bernadeta gaichoak ez zuen egun hartan Andrea ikusi behar.

oo o oo

E t a J a u n E r t o r a k z e r d i o

- "Baduna burutik, neskatoa? Zer dun komedia hori? Andre bat agertzen zaunala... Ezagutzen ez dunan Andre bat, behar bezala hi bezala burutik maingu den Andre bat. Eta Andre harek, haur ederra dinau,

eliza baten egitea eni galdegiteko erran daun!
Zer uste dun ala aski zozoa nizala solas mekill
horien sinhesteko. Hail hortik, hail, choroa, ez
bertzena."

Hain saminki mintzo den gizona apheza
da, Lurdeko jaun ertora. Gizon kankaila haundi
bat, hezur gaitzekoa. Bere kopeta zabalarekin,
begi barna eta ezpain tinkiekin, haren lehen hi-
tzek han berean itzutzen zituzte. Halere bihotz
gozokoa, zuhurtziaz aberats. Massabielle'ko go-
rabeheren berri ba-daki, bainan ichilik dago, be-
re sinhestea estekan, barrandan, ez othe den hor
galtchagorriren joko zonbait. Bere lagun dituen
hiru aphezak ez ditu harroka famaturat hurbiltzea
ere uzten. Denek ba-dakite Lurden eta bazter he-
rrietan aphezak ez direla agertze horien alde.
Alta Aphezpikutegian ere hotz dira, hotz. Nork
daki zer den: gauden beha.

Eta hain chuchen, horra nun ebiakoitz
goiz hartan Bernadeta agertzen zaion jaun ertora-
ri. Zerbait ba-du harentzat. Goizean, Andreak e-
rran dio eliza bat nahi lukeela leku hartan. Zer
kopeta! Bi sosen afera baita, eta bertzalde nor
da Andre hori holako galditzaren egiteko?

- "So egizan Bernadeta, lehenik heure Andre eder
hari galdeginen dion bere izena. Bigarrenekorik,
zango petan duen arrosa hura, negu mineaz lili-
araz dezala. Orduan ikusiko dirat zerutikako
norbait dela. Eta hitzemaiten daunat eliza bat
ez ttipia bainan haundia."

Neska gaichoak laster lekuak hustu zi-
tuen handik. Etzen baitezpada izitua... Bakarrik
puska bat hoztua.

Igande goizean, horra Bernadeta berriz
jaun ertorraren etchean.

- "Jaun ertorra, Andrea irriz hasai zait zure gal-
ditzza egin diotalarik. Haatik eliza berriz ere
aipatu daut.
- Ederra; sosa ekarran!
- Ez dut pilik.
- Ez nik ere.. Aski dun heure Andreari galdegitea."

Martchoaren laua, ortzeguna. Gau guzian klaska klaska jendea karriketan ba-dabila, denak dakigun lekurat ari. Poliza-gizonak buru beharriak erne daude bide kurutzetan gaindi. Eta bethi heldu, batzu oinez, bertzeak zaldiz, zonbaitzu karroetan; ainitzak urrunetik abiatuak. Herri osoak hurnaratu dira bide guzian othoitzean, kantuz. Eta Massabielle'ko harpean zer mundua! Frangok han berean iragan dute gaua hotzak harrituak. Goizeko lau orenetako jadanik, choko-moko guziak, zuhaitz eta harri peña, pentze eta alor denak jendez brokatuak: 20 milaz goiti poliza-gizon baten araberan.

Zazpiak eta erdiak, eta Bernadeta ez oraino ageri; Alta "presondegia" an ere ba-da mo-himendu: karrika guzia gizon eta emaztez mukurru, denak Bernadeta harperat lagundu beharrez jinak. Bet betan hiru gizon, bertzeak baino ausartago barnean sartzen dira. Hiru gizon, hiru mediku, Bordenetik ethorriak Bernadetaren ikertzerat. Itzul eta itzul, hemetik kitzika, handik balaka, nahi ukan eta ere ez diote "gorputz eta izpiritu sano" bat baizik atzemaiten.

Bizkitartean Massabielle'n berantetsia bezala dute. Azkenean cho! hantchet zerbait; bi poliza-gizon harpeari buruz ba-doatzi. "Begitarte guziak harat itzuli ziren... denak buru-hastu", Bernadeta han dela ikustearekin. Ichiltasun hunkigarri batean oro beha daude bainan orok ezin ikus.

Arrosorioa hasi orduko Bernadetaren begitartea pizten da, ezin ederrago bilakatzen. Zonbati etzee hatsa baratzer, hain da choragarri, hain maitagarri. Ondo ondoan Jacomet jauna, bar-randan, paperra eskuan, begia chorrotch iduri eta jan behar duela. Neska tchar hau hoin eder bilakatzea zer gauza bitchia! Bainan ez du urrunago so egiten. Polizaren buruzagiak ez du jende chehiak bezain aise sinetsi behar.

Andrea itzali denean, Bernadeta begiak apha, ichil ichila, etcherat doa bere amaren besoan. Jendea saldoka gibeletik. Bernadeta nahi lukete hunki, bederen hurbilik ikusi. Gizonak eskua emaiten diote, emaztek musu.

Horiek hola debrua ez dago lo. Norbaitek berria hedatu du: baizik eta Bernadetak sosa eskatu duela ikuslier bakotchari. Pentsa jacomet jaunaren jauzia hori entzutean. Sosa, ziminokeria horien guzien ithurburua! aldi huntan zakuan sartzen du. Eta horra, segetuan, poliza-gizonak jenden artean, ustez Bernadeta hutsean arrapa... Bañan eskuak hutsik itzuli ere etcherat++ Gezurrek egin zuen balere bide. Ondoko egunetan, Egunkari eta Kaseta zoin gehiagoka balentriaz: "Neska choro bat...eri bat... arthatzerat igorri beharra lehen bai lehen...eta jendea aski zozoa izan trumika harat joaiteko"...

Gizon argituek arrazoin zuten beraz. Fini komedia¹. Poliza-gizonek gau gozorik pasatu bear dute. Azkenean pakea ez baita goizegi: Andrea ez da gehiago agertuko, Bernadeta ez gehiago arat agertuko eta hola afera bere baitarik itzaliko...

Bizkitartean jaun ertorra, hau, ez da sosegu osoan. Behin ere ez eta, eliza zanpez bethea, egun guziz garizoma-kari egiten dituen predikuetan. Aspaldi hartan elizan sangorik sartu ez dituztenak hor dira orai. Gehiago dena, diote ahopetik, harpeko urak eriak sendatu dituela. Mihiak salu daude: Andredena-Maria balitz!:

ANDREAREN IZENA

Martcharen 24^a, biharamunean Andredena-Mariaren besta buru haundia: "Anonziacionea".

Etchez etche, karriz karriz, berri batek, nork daki nundik airatua, laster egiten du hiri buru batetik bertzera: bihar Andrea agertuko omen da... Denak Massabielle-erat beraz++

Gauaz Bernadeta jauzian iratzartzen da. Boz batek deitzen du, boz ezti batek, barnetik heldu den boz batek. Andrearen boza ez du duda miko-rik: "Aita, ama harperat joan behar dut". Goizean goizik harperat doa ait amekin urhatsa luzatuz, erdi lasterka, bihotza sutan. Iru aste orai Andrearen begitarte ohoragarria ez duela ikusi. Bertze aintzek aintzindu dituzte. Chirioa esku batean, errosorioa bertzean, horra Bernadeta bere leku berezian. Egundaino! "Andrea jadanik hor zen, dio Bernadetak, maitagarri, irriño bat ezpainetan, deneri

so hala nola ama ezti bere haurreri. Barkamendu eskatu diot berant airean ethorri nintzalakotz. Zinez ona, buruaz keinu egin daut etzuela balio. Orduan ene bihotza hustu diot erranez zombateraino nien maite eta ezinago uros nintzala haren berriz ikusteaz. Gogoan nintuenak oro erran eta arrosarioa hasi dut".

Ordu berean Andrea usaiako zilo hartarik lurrerat jausten da, Bernadeta zombait urhatez harenganat hurbiltzen. Chutik haren aintzinean jadanik hainbertze aldiz egina diom gelditza berriz errepikatzen dio: "Othoi ene Andrea, zure izena erran-ezadazu".

Agur bat buruaz, irriño bat, bertzerik ez. Bainan barnetik indar batek hel egiten dio. Kuchean:

"Andre maitea, zure izena othoi erran-ezadazu".

Berriz ere agur bat buruaz, irriño bat. Hirugarren aldikotz, Bernadeta'k galde bera egiten dio. Aldi huntan, Andreak bere bi eskuak jenderi buruz behehitzen ditu, emeki emeki berriz biltzen, elgarrtaratzen, eta begiak zerurat alchatuz:

" QUE SOY ERA IMMACULADA CONCEPCIOU "

" SORTZEZ GUZIZ GARBIA NIZ "

Hori erran eta itzali zen...

Bernadeta ez daike bozkarioz errechi. Bere burua arin kausitzen du arin. Bide guzian hitz horiek errepikatuz doa. Aldi huntan bederen jaun errotorak ase bat eginen du! Haren ganat doa chuchen chuchena, haizearen pare.

- "Zer derasan oraino gaur?"
- "Sortzez guziz garbia niz!"
- "Urgulu untzi charra, badana burutik."
- Bai bai, "Sortzez garbia niz". Horra zer erran dautan Andreak.
- Hau ederra dinau! badakina zer erran nahi duten hitz horiek?
- Ez jauna.

- Arrazoin ninan ba... choroa ez bertzena.
- Harpetik hunat hitz horiek errepikatuz ethorria niz.
- Ederki ikusiko dinau zer egin.

Eta bereala igortzen du etcherat. Uste gabean ukan behar-ondoko batek etzuen gehiago zozotuko. Gaizo jaun ertorra, murtzoratua, doi doia chutik, ez daki chuchen amentsetan ala zinezean bizi den! Hala balitz...eta ba hala balitz...Andredena-Maria, ez da bertzerik. Apur bat burua eskuetan arras gogoetatua dago.

Bainan cho! ez sobera fite aira. Bere eskolak eginak ditu: galtchagorriren beharri punttak berdin! Badu holako tzarkeria bat eginik; badaki argiz estaltzen gizonen lilluratzeko. Zer nahi izanik, hea jaun apezpikuak zer dion?

Jende chehiak ez du hainbertze pentsaketa. Karriketan, alorreyan gaindi, ezagun eta ez ezagun denak solas berak: "Bere izena erran omen du...Baginuen bai beldurra...haspaldi huntan Andredena-Maria zela jelostua nintzan". Massabielle-n jendea badabila gero eta gehiago. Eguerdiko 65 chirio pizturik baziren jadanik.

Egun berean Jakomet jaunak zombait hitz igortzen diozka jaun Profetari: "Afera hau gaizkontzen baizik ez da ari. Guk deusik ez dezakegu gehiago. Aphezak behar lukete mintzatu... "Jaun Profetak aphepikuaren ordaina eta Lurdeko jaun ertorra elakutzen ditu... aphezek ez dute oraino azken hitza eman nahi. Norat itzul beraz? Bere errabian Bernadetari lotuko da. Mediki batzueri iker-araziko du eta hanbat gaizto nihun deusik atzemaiten badiote. Horra beraz egun batez hiru mediku seroretan: Bernadeta ikusi nahi lukete. Bortchatuak dira bereen gogoaren kontra mintzatzea: haurra errotik sana da, ezinago sana.

Urthe hartan izaiten ahal den kartsutasunik haundienean iragan dute denek Aste Sandua: ala elizan ala Massabielle-n jendea arthoski othoitzean ari da nehoren beldurrik gabe. Grazia lanean ez da dudarik.

Apirilaren 7an berriz ere barneko boz hura mintzatzten zaio Bernadetari. Goizean goizik harpeko bideari lotzen da: Martchoaren 25tik hunat ez da behin ere izan. Bernadeta aspaldi hartan

Andrearekin mintzo zen moiz eta ere eskuan duen chirioa lerratzen bazaio lurrerat eta garra bi eskuen erdian gelditzen. Eskuak kentzeko orde han dago geldi geldia, irria ezpainetan, su-garra eskuen artetik dariola. Bazterretik emazteki batek nahi dio chirioa hartu: Dozous medikuak, utz dezan ikusteko. Guziak harrituak daude gar horrek nolaz ez diozkan eskuak erretzen. Hola bururatu zuen Andrearekinlako solasa. Hamazazpigarren agert'aldi honek etzuen guti hunki behar jende cheia, goretsiz Andredena-Mariaren haunditasuna bai eta ere Bernadetaren birtutea.

KOMUNIOEA

Egunak jin egunak joan. Bernadeta goiz guziz seroretarat doa, katichimaren ikasterat.

Bizkitartean Jakomet jauna ez da amoremaitokotan: lehen aldia du norbait hala bihurtzen zaiola: Bernadeta zentzatu beharrez noiztenka ekararazten du; aldi guziz gachtatuz doa. Ama ondoan nigarrez, beldurrez ikaran haur gaichoa presondegirat noiz duten botako.

- "Ama maitea, zertako egiten duzu nigar? Ez dugu nehoi makurrik egin..." Aldi huntan era 14 urtheko neska chumeak garraitu du poliza-gizon azkarra.

Bernadeta arras akitua da zonbait aste hotan. "Presondegia" k ez du behin ere hainbertze ikusle ukan: bethi gelditza berak; bethi errepostu berak, bethi berriz haste. Azkemean ezindua oherat joan behartu zaio. Jeiki deneko jaun ertorrek Cauterets dehiu ur-lekurat igortzen du, komunioea egin aintzin indarrak berri ditzan: han egonen da Maiatzaren 6'tik 24 arte. Azkemean ethorri zen hain luzaz igurikatu zuen eguna, Ekainaren 3'an Bestaberri-kari. Nork erranen du zer karrarekin juntatu zen hain aspaldi danik berantetsia zuen Jainkoari. Orai arte ere elgar ezagutzen zuten; elgar maite zuten baiñan etziren oraino sakramenduak emaiten duen lokharri bereziaz josiak elgarri. Haren kartsutasunak choraturik utziko du jaun ertorra, orain arras itzulia.

DEABRUAREN AZKEN PUTARRA

Anartean Gobernioaren beharrietaraino

heldu da Lurde'ko afera. Gizon atrebitu batzuk be-
reen gisako berri faltsu batzu eman diozkate:baizik
eta neska choro batek mundu guzia josta-arazten
zuela bere ziminokeriekin,...sosean truk. Manua las-
ter ethorri zen beraz jaun Prefetari,lehen bai le-
hen afera hori itho zezan bere onetan;eta ez bazu-
en aski kopeta hartako bertze bati lekua utzi be-
harko zuela.

Zer zimikoa! Ah baia...Berehala harpe in-
gur hek zerra-arazten ditu,bernean diren guziak ken-
du ondoan. Eta orai bakea! Hainbat gaisto zerradu-
ra hortan sartuko denari= moltsa arindurik itxuli-
ko da etcherat.

Eta Bernadetaz zer egin? Ezar dezatela
Tarbes'ko Ospitalean,burua berriz lekuratu arte.
Hori jakitean jaun ertorra su lotzen da.Pindarrak
botaz auzapezari jakin-arazten du,ez duela neska
hura unkiko bere onetan.- "Badakizu nik bezain un-
tsa ez dela eri.Jaun Prefetari erranen diozu poli-
za-gizonak jinen direkarik,hau izanen nintzela a-
tea trebes eta ene gainetik pasatu beharko dutela
hura hartzekotz..." Duela zombait aste etzuen hola
ko solasik. Geroztik pentsaketak egin ditu,othoitz
egin ere. Holako neska garbiak eta othoitzekoak
ez dezake gezurrik erran...Bai eta jaun Pfrefeta
aire ichildu! Holako gizonarekin samurtzea etzitza
ion balio.

AZKEN AGURRA

Uztailaren 16'a,Karmeleko Andredena Mari-
aren besta burua.

Bernadeta othoitzean eliza choko batean.
Gutienik ustean hiru ilabete hetan entzun ez duen
boz eztia berriz mintzatzen zaio. Bi jauziz badoa
bere ttanta baten ganat:laster laster Andrea beha
dago. Bidean zombait emazte juntatzen zaizkote.
Bainan norat joan;harperat ez da aizu? Uraren ber-
tzaldetik bederen ez diote nehork deusik erranen.
Othoitzean asi deneko:" Horra,horra,agurka ari zai
ku,agurka eta irriz." Oren laurden batez Ama eta
haurra gozatu ziren:azken hitzak,azken so maitaga-
rriak,azken agur beroak. Emezortzigarren eta ondar
agert aldia"."Geroztik ez dut behin ere ikusi",
aithortu behar zuen Bernadetak

ELIZAK AZKEN ITZA

Orai arte aphezak Massabielle-tik urrun ikusi ditugu. Azken agertaldiraino ez da Lurde'ko aphezik agertu arpean. Aphezek, bertzek baino gutiago sinhesten athe dute? Bichtan da ezetz. Elizak holakotan, ez du deusik lasterka egiten. Zuhurtzia da; seguretik ari da, bethi frogak eginez, hitzak izartuz, erreligioneari makurrik gerta ez dakion.

Lurdeko gertakarietan ere aphezak ez dira sobera fite berotu. Denen berri badakite eta aldi guziz Peyramele Lurdeko ertorrak, bere apezpikua argituko du. Laurence Tarbeseko aphezpikuak chehetasun guziak eskuetan ukanen dituelarik batasun bat muntatuko du ontsa denen ikertzeko. Azaroren 17'an, Massabielle'ko harpean mintzatu beharko zaio Bernadetari, aphez eta mediku andana baten aintzinean. Handik ni urtheren buruan, Laurence aphezpikuak berak nahiko du haren ahotik entzun gertakari miresgarrien kondaira. Nigarra jauz'araziko diote neska humilaren erranek.

Bertze bi urthe oraino eta 1860'ko urtharrilaren 19'an, jaun aphezpikuak azken hitza eta baimena emanen du: Bernadetaren erranak arras zuzenak dira. Andredena Maria agertu zaio, ez da hor dudarik, eta galdegin dion eliza laster iganen da Massabielle'ko kaskoan.

1869'an Pio IX Aita Sainduak azkartzen ditu bere baimenez, Laurence aphezpikuaren erranak. Behin bethikotz ongia nausitu da. Hemendik goiti Lurde Andredena Mariaren lurra izanen da.

Bainan itzul gaiten berriz Massabielle'ko chokorat. Lurde'ko girichtinak ez daude aphezzen baimenaren beha. Ichtinto batek gidatzen du harpe hartarat. Hain chuchen Gobernioak ere bere larderia lazatu du puchka bat. Napoleon III imperadoreak, orai ontsa argitua bere baimena eman du. Biharamunean berean Lacadé Lurde'ko auzapeza buru, gaitzeko saldoa han dago harpean othoitzean.

Eta Bernadeta zertan dugu? Gaichoa, ez berak nahi luken bezain ahantzia. Zonbait ilabetez,

zonbait urthez, ukanen du ikusle. Aments gaichtoa bere gisan haren galbarioa. Medikuek, bi edo hiru aldiz Cauterets hur-lekurat igorriko dute han bere osagarria artha dezan. Han ere ez du nahi luke bakia ukanen. Holakotan jendeak ez du bihotzik. Azkenean jaun Ertorrak Seroretan ezarriko du, jendea harat bederen ez dalakoan hala ausartatuko. Ez dute geihago achola. Bernadeta aldi guzietz joanen da "obeditzeko". Han iragaiten ez denik ez da: aphezpiku eta mediku, gizon aiphatu eta jende chehe, andere haundi eta etchek-andere chume dener irri bera eskaitzen diote, dener berdin umilki mintzatzen. Ainitzek nahi diote zerbait utzi, oroitzen bat, sos puchka bat, deusik ez du hartzen. Astiri batez, Jean-Marie bere anaia gaztena fiersko heldu da etcherat. Bi arrotzek harperat gitatu sari berhogoi sos eman diozkate. Bi zarta eman ahala eman, ematen diozka Bernadetak: "To! nahi dukan lekuan atzemanen ditu hire bi arrotzak eta sos hori berriz itzuliko". Ez dakigu arrotzak atzeman zituen, sosa haatik ez etchean sartu. Nahiago zuen konzientzia garbi atchiki, Jainkoaren eskuetan bizi. Egia erran, haren ait'amak ez dira orai miseria gorrian, berriz aihera zaingoari lotu dira.

Bizkitartean Lurde'k gero eta geihago erreskata ba-du. Ainitzak arras inharrosiak doatzi etcherat; diote ere han hemenka holakoa eta holakoa harpeko urak sendatu duela.

Nay hirian ba-da emazteki bat Rizan deitua. Cholera deitu eritasun izigarriak aurtikizuen duela hogoi ta bortz urthe eta geroztik han zegoen bere oheari josia, hezur eta larru, heriotzearen beha. 1858'eko Urriaren 9'an oliodura eman diote; azken hatsa ez duke urrun. Bet betan Lurde'z orhoitzen da eta bereala bere alaba igortzen du othoi ekar dezon harpeko ur hartarik chorta bat. Kurutzearen seinalea egiten du, begitartea garbitzen eta chorta bat edaten. Ordu berean chutitzen da Andredena Mariari eskerren bihurtzeko.

Marie de Sazenay 17 urtheke nechka bat. Adin hortan begien galtzea zerbait ba-da! Medikuen jakitatearen gatik bizi guzia ilhinbean iragan beharko du. Ait'amen bihotzmina! Bertze ainitzek bezala Lurde'ko gorabeheren berri ba-dakite. Bede-

ratzurrun bat hasten dute beraz zeruko Amari eta harpeko urean busti oihal bat ezartzen haurrari bere begien gainean. Goizean, ezin sinetsia, argia ikusten du. "Ama ikusten dut", ohetik jauzi egiten du eta belhaunikatzen etheko guziekin. Bederatzurruna Lurde'ko Amaren oinetan bururatu behar zuten.

III . - ANDREDENA - MARIAREN ITZALA

S a i n d u g a i a

Andrea ikusiz geroz, Bernadeta arrunt bertze bilakatzen ari da. Haren arima, haren bihotza, haren izaite guzia Jainkoak emeki emeki beretzen ditu. Denek diote othoitzean delarik aingeru baten pare dela. Gain gaisetarik arrosorio-ari da atchikia hura denetan maitena: lokartzean ere berekin du. Zortzi egun guziz, orduan arraro da, Mahain Sainduan. Zer kartsutasuna duen haren lagun batek dauku erraiten.

Bihotz bat ezinago zuzena, ezinago garbia. Gezurra hastio du gain gaisetarik eta hitz arin edo sakre ttipienek jauzarazten dute.

Bainan ez uste ukan hal'ere sainduño bat dela sortzez! Gu guziek bezala ba-ditu bere itzalak, ba-ditu bete hutsak. Behar ere... bertzenez etzen gutarik bat izanen. Buruan zerbait baduelarik ez sobera kilika gure Bernadeta... Kasko tzarra du batzuetan eta bere parra pasatu arte ez du barkatuko. Ainitzetan kokina ere.

Gabezia gorrian iraganik ere bere gazte denbora, jautzi ederrak hari laket. Ontsa apaindurik nahi du ibilli. Astelehen batez, arras tema gachtoan, bere igandetako zaia nahi du jauntzi fantesiaz.

Ba-dakigu hatsa biziki nekez hartzen duela. Medikuek, sudurretik hartzen den tabako

berezi bat eman diote mina sobera gachtatzen deneko. Erretreta batez, josta-gose ziteken, bere laguneri sudur azpian sakatzen daiote. Urtzintz eta irri, pentsa kalapita ederrik izan zenez han laster! Serorak ez daki nori loth. Bernadeta chutitzen da eta bere gain hartzen guziak.

1862-ko Apirilaren 21-ean Bernadeta berri-eritzen da. Bularrak aldi huntan errotik hartuak ditu. Medikuen araberan ez duke luzaz iraunen. Oliodura emaiten diote....bai eta ere harpeko ur hartarik chorta bat. Lehen urrupan bere burua ondo kausitzen du. "Iduri zaitan mendi bategen lehertzen zauzkinala bularrak".

E T A G E R O ?

1863-an Bernadetak 19 urthe ditu. Ordu da geroaz grifa dedin. Zer egin? Norat joan? Munduan egon? Zeruko argia ikusi eta zoin ilhun zation mundua! Norbaitek salatzen dio: serora zertako ez...Sobera zaio:bertzenaz ere jakitate izpirik ez du; doterik are gutiago. Bizkitartean ideia hori emeki emeki ontzen zaio. Serora eginen da, Lurdeko seroren ordre berean.

1866-an Nevers-etchenausia onhartzen dute. Zertako luza. Uztailaren 3-an azken agurra Harpe Sanduari: bihotza urratzen zaio, nigarra jauzten....bethikotz utzi behar du harpe maitea, bethikotz.

Arratsaldea etchekoekin iragaiten du. Hor dira guziak, sekulan baino gehiago amodiozko lokarri azkarrez josiak algarri. Bainan amodioak hel egiten dio. Ez dio gogor egin nahi: Ikus arte beraz etchekoak....

Etche-nausiratzean dio hasperen batean: "horra ene gordelekua". Ez haatik berak nahi luke bezanbat: Horrat ere ethorriko zaizko ikuslierrak bethi chehetasun gose.

Uztailaren 29'an berean, horra Bernadeta serora jauntzi berezian: Marie Bernard eman diote izena. Bainan eritasuna, haren aspaldiko laguna. berri-eritzen da. Medikuek diote ere aldi huntan ez duela eskapurik. Hil edo bizi serorrek berean ganatu nahi dute; horra zertako

anontzioa ukan eta bere botuak eginarazten ditzan Forcade jaun aphezpikuak. Zer kartsutasuna!

Biharamunean salbu da. Berriz lotzen da bere bizi ichilari: haren bozkariarik haundiena, ahantzia izaitea. Lagun batek erraiten dio egun batez:

- "Zure itchura bi sosen saltzen omen dute Lurden.
- Ez dut gehiago balio".

Lagunek estimu gaitzean dute.

- "Itzuzki bat baliatu ondoren nun ezartzen da? dio egun batez bere laguneri.
- Ate gibelean araz!
- Andredena Mariak hala egin du nitaz. Ezin hobeki niz hala"-

Lurde'tik jin berri batek bihotza arraildu dio. Abendoaren 8'an haren ama gaichoa heriotzeak jo du.

- "Egin bedi zure nahia..."

1867'ko Urriaren 3'an berrogoi bat lagunekin Bernadetak egiten du bere buruaren eskaintza, jadanik duela 9 ilabete ohean egina zuen eskaintza. Egun hartan serora bakoitxak ukaiten du bere lan berezia: hunek hau holako lekuan, harek hura bertze nunbait.

- "Eta Bernadetaz, zer egingo dugu? Forcade aphezpikuak;
- Ez da deusetako on!
- Beraz bego hemen berean. Gerochago ageriko da norat igor."

Diote Serora buruzagiak holako piko eman ziola, nahiz Bernadeta etchean berean atchikarasi, berari hurbil; maite zuelakotz. Baditake. Halere zer zimikoa bihotzean holako baten entzutea denen bistan!

Etchean egonen da beraz, bere lagun guztiak Frantziako alde guzietarat joanen diren denboran. Horra Bernadeta eri-zain. Bera eriak baino eriago, ardura herrestan dabila belaun batetik maingu. Bainan hal'ere beñi bertzeak gogoan. Ne-guan lano petik iguzkia gocho, Bernadeta hala hala bere lagunentzat: hura den lekuan irria, bakea, alegantzia.

Egun batez ikusten du berriki sartu den neska gazte bat nigarrez hipaka... dudarik gabe etcheakoak gogoan. Bernadeta hurbiltzen zaio: "Hauche da hau bokazione azkarra! Ez du bederen idor-teak hilen. Eموzu, emozu nasaiki nigarra, laster-rago pusatuko du". Bai eta ere nigarra berehala agortu, irria nausitu.

Haren bertutea haundituz doa. Lagunek, bederen ainitzek saindu batentzat daukate. Bernadeta ohartzen da, begia erne dago.

Egun batez serora bat hurbiltzen zaio alegia deusez: bere arrosoria nahi lioke hunkia-razi.

- "Marie-Bernard, so egizu, ene arrosoria herdoiltzen ari zait.
- Aski duzu ardurago erraitea, hala etzauzu herdoilduko!"

Bertzaldi batez horra ama gazte bat nigarretan komentuko atean. Besoetan daukan haurra nihuntik ere ez daiteke chutik egon: Marie-Bernard' ek hunki baleza. Serora buruzagiak emaiten dio. "Marie-Bernard zoazi istanpat baratzerat haur hune-kin." Bainan haren beso ahulentzat haurra pizuegi: lurreen ezartzen du beraz eta... ttapa ttapa haurra kurritzen bere amaren ganat...

Urtheak doatzi. Belhauneko min hura gaichtatuz, haundituz doa. Gorphutz guzia minbera, ilabeteak eta ilabeteak ohean iraganen ditu. 1879'ko aste sainduan gira. Behin ere ez da behar bada hain hurbilik juntatu Jesu-Kristoren sofrikarioei.

Bazko ondoko asteartean, azken komunio-nea, oliodura laugarren aldikotz ukhan ondoan. Asteazkena... berriz ere konfesatzen da; berriz ere dener barkamendu galdegiten. Arratsaldeko hiru orenetan, asperen bat, hitz bat: "Egarri niz." Gero hiru aldiz: "O! O! O!" Zerbait miresgarri ikusten balu bezala. Bazterrean norbaitek "Agur Maria" erraiten du. Bernadetak segitzen: "Maria Saindua, Jainkoaren Ama egizu enetzat othoitz, bekatoros haundia, bekatoros haundia." Zeruko Amaren oinetan erran behar zuen "Halabiz".

1897-ko apirilaren 16-a, hogoi-ta-amasei-garren urthean zen.

BERNADETA

ORDUAN

ETA ORAI

Haren hil-berria hedatu daneko, jendea gaitzeko oldarrean abiatu zen elizari buruz. Gau-egun, han dabila chumea eta aberatsa, langilea eta nausia, fededuna eta sinesterik gabea; denek saindua nahi ikusi, denek zerbait haren ganik nahi ardietsi. Diote, biharamunean berean, Nevers guzian etzitaikela saindurik ez medailarik atzeman: jendea zoin lehenka jabetu zen Bernadetari hunkiarazteko.

Haren ehortzetak, gain gaisetarik bozkarioskoak izan zire, hain ziren guziak segur jadanik Jainkoaren lorion zela...

Hiru urthe barme, 50.000 jende belhunikatuko dira haren ondar egoitzaren gainean: ainitz mirakullu, ainitz grazia ere ardietsiko haren ganik.

1908'ko agorrilaren 20'an haren gorputza ehortzean bezain oso eta gozo atzemaiten dute. Ordu da Elizak bere hitza erran dezan.

1933'ko Abendoaren zortzian 18 kardinale, 85 aphezpiku eta 50.000 girichtino elgarretaturarik daude Erromako Eliza nausian. Aita Saindua aldarean, Bernadeta Sainduaren kantari. Hiru ehun elizetako ezkilak juntatzen dira 50.000 bozeri Bernadetaren goraiatzeko.

Bere bizi guzia ttipi eta ezdeus izan zelakotz, zuen orai Elizak goresten.

Orduan ondarra orai lehena.

Orduan zerbitzari, orai emaile.

Orduan chume eta ichil, orai haundi eta guziz aipatua.

"Hitz emaiten dauzut uros izaithea ez bizi huntan bainan bai bertzean."

BERNADETA LURDEN

Ilhabete oso batez Lurde'n egon Aita bati galdegin diot zer zion Lurdez eta Bernadetaz.

- "Egun bat edo bertze Lurde'n iragaiten dutenak ez dire Bernadeti ohartzen. Hor da bethi Bernadeta ichil ichila, iduri Ama Birjinaren itzala.
- Bai, nik ere ikusi dut, Arrosorio elizaren ondoko aldare hartan, bainan burdinez ditake eta frango beltz daukat.
- Ez, bertze nunbeit da ederrago eta maiteago.
- A, bai, Ars'eko ertoraren itchura ederrerat gabe, bi aldetarik agertzen da Bernadeta: alde bategatik artzain, bertzaldetik komentuar.
- Izan zare Bernadeta bizi zen "Cachot" barne hartan eta Bartrés'eko haren etcholan?
- Ez.
- Ez duzu beraz Lurde'n Bernadetik ikusi, Bernadetik aditu, "Cachot" barne hori eta Bartrés'ko etchola, duela mende bat bezala daude oraino, eta bi toki hoitan ikusten da nolakoa ziteken Bernadetan bizitzea, nolakoa Bernadeten bihotz barnea.
- Ez dut sekulan aditu "Cachot" hori zer ala nun ziteken.
- Andere Jaureguiberrik argitarazi duen Cheberotar diska hunkigarrian jakinen duzu: "des petits fossés" deithû karrikan düzü "Cachot" delako hori. Hor bizi züzün Bernadeta etchenkhuekin Ama Birjina agertu zaion egunetan." Soubirous' tarren bizi toki hori etzen etche oso bat, bainan salaño bat, sukalde ilhun ilhuna. Ahal bezala, hor kokatuak zituzten hiru ohe; bat ait' amentzat bertzea bi muthikoentzat, hirugarrena Bernadeta eta Toinet'entzat. Leiho bakhar bat murru bati beha dagona, churruta bat, supazterra eta supazter gainean kurutze bat arrosorio batez inguratua.

Harpe ondoko Eliza handia zenbatez den barne ilhun hori eta ichil hori hunkigarriago! Egun oroz sei zazpi Meza emaiten dire hor eta goiz arrats jendea pur-pur ba-dabila. Berrikitan Canada'ko Kardinalea luzaz egona da hor belhauniko;

eta barne horren zain dagon serorek erran daut asko mirakuilu ardiesten dela hor, Lurde'ko egon toki dohakabenean.

- Horiek oro jakin ukan banintu segur joanen nintzala; bainan denbora gutiz hainbertze gauza ikusi behar da.
- Sinets nezazu: hobe da gauza gutiago ikustea eta Bernadeta zagon barnerat joatea. Hor ibili ta zenbatez argiago den Lurde'ko mirakuilua. Holako etche ezdeusaren alabañoa, holako Lurde'ko miragarrien sortzaile bilakatua, Zeruko Amak begitarte eta irri egin diolako.
- Errazu eta zer zinion, haren etchola ere ikus ditakela?
- Bai hori gustagarriena guretzat eskual-mandieta-ko semeak. Lurderat burdin bidez joanen zarenean, jauts harpe alderat; bainan lehen bide-kurutzean ezker joateko orde zoazi ezkuin. Zubia-aren azpitik iragan orduko, jo brauki eskuinerat eta aurkituko duzun lehen bazter-bidea, Bartrés' erakoa. Har bide hori, choraturik ibiliko zare: eskuin; ezker dena sorho garbi, dena ardi alha toki. Lurde'ko hiria zoin urrun den, zoin urrun mundua! Ezagutzen ditutzu Iratzederrek Bartrés' eko bidean egin pertsuak?
- Ez; gogotik har nezazke eta hemen ezar zure paperretan bazinitu.
- Bai, hementche ditut. Joanden urthean eginak ditu, Urtharrilaren 17'an eta agertu gabeak dire oraino, dakitanez segurik.

BARTRES

Sorhoak legun, mendiak lano...
Bernadet zoan bidetik noa
Chokoño hurek baitu oraino
Orai mende bat zuken gochoa.

Mendiak lano, mendiak elhur...
Hau ardi-usain, garbi usaina!
Hola zitaken hol-hola, segur,
Bernadet haurra ontu lur ona.

Sorho tartean etche ardiak

Artzain eliza, heien erdian.

Galdu ditut han arrosoriak

Galdu ta berritz pozik atcheman.

Bidea chuchen, sorhoak lehun...

Arrosoriak eskuan goazen.

Mendial elhur, Jainkoa lagun

Hola zen hola Lurderat jausten.

Bide gaintetik mendiak elhur,

Ardi joareak eta deusik ez.

Behere hartan ibaia kur kur

Harrokak traban ezin jasanez.

Sorhoak legun, mendiak lano

Bernadet zoan bidetik noa.

Chokoño hunek baitu oraino

Haren denboran zuen gochoa.

Orotan bake, airetan sistu...

Harroka beltz bat bide ondoan

Nor daki ez den hemen gelditu

Mendiari so Lurderakoan.

Bide ondoan harroka beltza...

Nola Bernadet nago jarria:

Harek bezala banu bihotza,

Diotanean: Agur Maria.

17 - I - 56

Bartresetik Lurderakoan.

Anai, Iñaki Etchehandy

Beloke'ko Beneditañoa

MIRARI ZEARKA

JAINKOARI BEGIRA

Jainkoari begiratuki, bere emankortasunarekin arkitzen gera aurrez aurre. Ontasun utsa da eta berezko zaio ixuri-bearra, filosofiak dasaigunez: "Bonum est diffusivum sui". Baiña ez uste, derriorrezko lege au akats bat bezela etsiko duala Jainkoak. Atsegin zaio bere izate neurrigabearen ontasun-ale batzuek sorkarien artean jaukitzea, auen berganako joera estutzearren.

Sorkari bakoitzak iturburu ortatik artzen du, izateakin batera, bere zer-nolako guzia. Ezaren magaletik bizitzara jaurtitzean sortzen da Jainkoak izakiekin duan lenengo zer-ikusia, artue-mana. Eta ez daonekin moztua gelditzen bere esku zabaltasuna. Ezerezetik sortua, ezerezera dute berezko joera. Ez daukate bere baitan iraupena eskei-ñiko dien oiñarririk...

Iraupenek bi orri dauzka: Iraupen soilla ta izaki bakoitzari dagokion egikera. Iraupen soilla, gauzen izate utsa bezela da. Egikera ordea, izate bakoitzari ezartzen zaion edonolako eginkizuna (bizi, ulertu eta abar.). Esan degunez sorkari baitan ez dager iraupen bikoitz au darion iturri-rik. Orregatik izadi gainean ba-da esku indartsu- ren bat. Eta norena diteke esku ori, guzien egille-

arena ez bada?

Orrela, izadi guztiak Jainkoaren aztar-
na bizi ta sakona darakuskigu. Eta sorkari oroen
txokotasun beroenean dirakin bizitza, Jainko itur-
ritiko tantatxo da. Alderdi guzietan Jainkotiar
eskuaren txertua ikusten degu eta munduko zabale-
ra estaltzen duten izakiak, esku orren agerpen diz-
diratsua eratzten dute. Agotz izpia eta ar-txintxar-
ra, lora orria eta erle egoa, Alguztidunaren ager-
pen dira... Zerua eta lurra. lenen arazle-gaitia-
ren (Causa efficiens) agiriak dira. Orra bada, i-
zadia Egillearenganako argi-bide biurtuta! Izadia
Jainkoaren ispillu...!

Miraria Jainkoaren agerpen berezia.

Ikusi dugunez, onura eraso jatorrena da-
rio Jainkoaren eskutik, izadiaren gain. Baiña Jain-
kotiar erauntsi orrek, zirriku ta zoko legorrik
uzten ez baduere, gizon alorrena dator indartsu ta
bizgarrien. Adimendun izaki auetan bere antz egiz-
koa ikusirik, ez da esku labur eta eutsien legera
jokatzen Jainkoa. Gaillurrik argitsuena jotzen du-
tzen dute bere agerpen eta agiriak gizonarekiko
artu-emanetan; ez baidago atalik gizonarengan agi-
ri oien ikara gozoa jaso ez duanik.

Almen ugarizko xorta da gizona, baiñan
adimenak daramaki erregetza makilla eta adimenari
agertzen zaio Jainkoa, naiz zuzenki, naiz zearka.
Zuzenki: Goiagerpen (revelatio), iragarki eta I-
dazteun'ekiko goiargi (inspiratio) bidez. Eta ze-
arka: Sortarazpen (creatio), zaitzatasun (provi-
dentzia), mirari eta orrelako berezikien bitartez.

Aipagarria da Jainkoa adimenari zuzenean
damaizkion agiri oietan. Baiñan aipagarriagoa de-
ritzaiagu lurtarro, zearka eta sentzuen bidez es-
keintzen dizkionetan. Gorputz astun bat daramagu
tirriki-tarraka larrian eta orregatik egokiagoak
jotzen ditugu, gorputz eta anima eragipen berdiñez
dardarazten dituan agerpen eta agiriak.

Agerpen auek eskutik daramate adimena Jain-
koaganaiño. Munduko joskera akatx gabea ikuste ba-
karrak kilima sakona damaio, Egille altsuaren es-

kua ikusten baidu joskera orren zear. Eta Jainkoa ikusi egiña bada ere, "mundua sortu danetik, egindakoen ezagueraz ikusgarri eginda". (Err. 1,20) Orregatik dio Linneo jakintsuak: "Ikusi dut Jainko guzialtsu, neurrigabe, jakintsu, betikorra, sorkarrien artean igarotzen eta lau orritan gelditu naiz".

Baiña, ba-da agerpen auen zabalduan, berezitasun errai~~us~~ inguratuta dagoan bat; garrantzi gaillurraren lenengo mailla irabazi duan bat: miraria. Mirariak, gorputz eta anima, adimena eta zentzuak, ukaldi batez astintzen ditu eta begi zirkular batean, Jainkoaren aunditasun aurrez usten ditu. Egite guztitan erakus oi digu Jainkoak bere eskuaren dizdira, baiñan mirarietan bere arpegi osoa azaltzen duala dirudi. Arri ta zur uzten gaitu munduko joskerak, baiñan mirariaren aurrez, arritasunak indar oieza du. Gizonaren belauna lurrari lotua gelditzen da ta biotza Egille bakararangana aidatua. Zer dala-ta mirariaren indar berezi au? Gogozkoa ta gaizkoa, zerua ta lurra lokarri bakarrez, indar berdiñez estutzen ditualako. "Gertakizun ukigaia, (sensibilis) oieza ta jainkotiarki egiña dalako".

Aletu ditzagun nolatasun auek:

"Gertakizun ukigaia" izateak, ez du atzapar artean artzeko gai dala esaten. Zentzuen jabetzako edo menpekoa dala soilik. Orregatik ez ditugu mirari izentatzen ezkutasunean gertatzen diranak; ez bai daude zentzuen jaurerritzapean. Miraria zentzuen indar-legekoka da, zentzuen eskukoa. Ortik dario gizonaren bizitzan eta jokeran euki duan zerikusia, eskuarte, Lourdes'ek-eta argi dasaigutenez...

"Oieza" itz onekin, izadiaren ibiltza zuzentzen duten legeetatik-at dagola-edo esanai dugu. Munduak daraman bide egiñetik ateratzen dala, alegia. Ez da oieza, adibidez, egunero agoratzten dugun ogi pusketa. Ez da oieza aroaren eta lurraren eragipenez datorkigun ale eldua eta ez diogu mirari izenik ordainduko. Baiñan landara txigortuak ale ori "Jesus" batean ematen badigu, miraria deituko diogu. Eta mutuari tximist-unean mingaña askatzen bazaio, miraria dala dasakegu...

"Jainkotiarki egiña", azkenik. Nolatasun onetan datza mirariaren oiñarririk mardulena. Berak

sendotzen ditu beste bereziki guztiak. "Jainkotiarki egiña" dala esatea, mirariaren inguruan sortu diran korapillo guztiak illargiaren adarretaraño uxatzea da. Egizko miraria, izadiko oi-legeak ganezten dituan gertakizuna da, esan dugunez, eta lege oiek jarri zituanaren eskutik darioke, Jainkoagandik bakarrik. Ez dute bada illunpeko sorginkeriak edo eskupeko indar ezkutuak zerrikusirik mirarietan. Eta ez dago edozein zoko bazterretan billatzen ibilli bearrik, Jainkoagan bakarrik dagoanaren arrazoa. Jainko-eskuaren txertua daramarki mirariak... Beragandik dator eta beregana dioa.

Jainkoa bada guztien egillea, nolaz ditekete mirari guztiak izadi-legeekiko duten aurkatasuna? Ori jaurtitzen digute begietara egiaren etsai maltzurak. Nola erantzun? Agustin deunaren itzakin: "Nolaz dagoke izadi-legeen aurka Jainkoareh naimena iturri daukana? Gauza bakoitzaren izatea bere naimena soillik baida"(1) Ez dago bada, gezur-zaleai bururatzen zaien odoleko aurkatasunik mirarian. Ori egille altsuaren aurka legoke. Berdintsu dio Tomas deunak ere: "Jainkoari dagokionez ez dagola aurkatasunik mirarietan eta egindako bidetik ateratzeak ez damakilla aurkatasun aztarnik, Egille bakarraren naimenez gertatzen diran bitartean"(2). Jainkotiarki egiña da, ez Jainkoaren aurka.

Orra miraria Jainkoaren agerpen landuena ta borobilduena. Nolatasun auek eskuarte erabatekoa damaiote eta gizonaren gosegarrria zearo aseaz, argizko bide zearka Jaunaren billa abiarazten dute. Miraria zentzukoia da, oieza... Eta nai ta naiezko arritasuna sortzen du. Gaiñera Jainkotiarki egiña, da. Eta Jainkoaren eskua ikusteak -errez ikusi ditekete mirarian- astindu epela ta izu onuragarria dakarki. Ementxe datza Lourdes'ko-eta mirariak mundu zabalean eta aldi sakonean izan duten burruna otsa; Lourdes'ko-eta gertakizunak izan duten ondorio txalogarria. Aitor dezagun bada: Miraria Jainkoaren agerpen egizkoena ta arrigarriena da; agerpen bizia mamitsua. Jainkoaren lantegitik eroritako txirbilla; bere oñetakoan autsa ta bere arnasaren lurriña...

Mirariaren zergatia

Jainkoak dagizkianak bide ta jomuga izentatua daukate. Jakintsua danez zer-

baiterako zuzentzen du bere egite oro. Ain zuzen ere, bi jokera ikusten ditugu Jainkoagan; Gauza bakoitza, dagokion bidetik eramateko alegiña. Eta noizpenkako bide orretzekiko kuku-jotzea; beste bide oiezari eltzea. Jokera au mirarrietan dagerki-gu.

Orain galde genezake: ba ote mirari errietan elburu, jomuga ta noratze izentaturik? Ba ote Lourdes'ko-eta gertakizun oietan xede aipagarririk? Hegel eta bere aldekoak, irripar erruki-tsua eskeiñiko digute miraria aipatu utsakin. Eta gurean badiraugu, "buragabekeria, okerrak zuzentze lotsagarria litzakela miraria Jainkoagan", esango digute. Baiña bost ajola guri auen totelkeria. Jainkoa Jainko dan bitartean, gauza guztiak eta bakoitzak badukete bere zerregiña ta betebearra... Baita mirariak ere.

Mirariak Jainko-neurrigabetasunaren agiririk garden eta aratzenak dira eta aunditasun orren ezaugarritzat egiñak. Ez dira "okerrak zuzentze lotsagarria", edo gaizki egiñari erantsitzen zaion adabaki zarpailtsua; baizik Jainkoaren esku-ko alguztitasuna eta izadi-legeen berekiko menpe-tasuna agertzen dituan era zeatza.

Gaiñera, goi-agerpenaren (revelatio) eta Kristok eraiki zuan Elizaren sendogarritzat bidali oi ditu Jainkoak mirariak; Elizaren ederre-rako eta bere etsaien lotsarako. Eta Elizaren oiñarri sendoa izatea dagozkie. Geiago: Ez dira Elizaren oiñarritzan gelditzen. Gizadiaren eguneroko gogaikeran eskuarte ta eragipen bikaiña dute. Siñis gogorren norberekieriari emandako erantzun erabatekoak dira. "Linguae (miracula) in signa sunt, non fidelibus, sed infidelibus" (Cor. 14,22). Ez ordea, beroiek txirbil eta ezaren maiztar uzteko, baizik Jaunaren almena ikusiaz, oraindik eskein ez dioten burua eta biotza eskein dezaizkioten. Diderot nolabaitekoaren aitorez: "Mitxeletaren egoa ta begia aski dira siñisgabea erreka jota uzteko". Eta miraria ez da gauza ta buru siñisgogorra zerraldo uzteko bakarrik... Baita bide lardatx artatik siñisimen bizira jasotzeko ere. Ortan diardu...

Azkenik gizonarekiko artu-emanak indar-eztutzeko zerutik jetxiak dira mirariak. Beste elburu-ale asko aurki ditezke agerpen berezi, arri-

garri onetan, baiñan guztiak azkenengo onen esietan sartu ditezkeela deritzait: miraria Jainkoagarena garamazkin argi-bidea da...

Lourdes'en

Mirariaren zer-nolatasun guzti auek, Lourdes'koetan biziki mamituak daude. Geldo jarduna da Lourdes'en mirirarik ez dala esatea. Alperrikako lana bada begiak itxi eta eguzkirik ez dala aitortzea. Norbaiten agoz "Lourdes Palestina berri bat da, gertakizun berdiñakin. Emen an bezela elbarrituak ba-dabiltz, itxuak ba-dakuste, legentsuak garbituak dira"(3). Eta guzti auek begiz ikusi, eskuz ikutu ta zentzuz igarri ditezkenak. "Zentzugaiak, oiezak Jainkotiarki egiñak". Orregatik zabarkeri utsa da, "arrazoimenak eskubide guztiak galtzen dituala Lourdes'en...-edo ori. Txepelkeria Bernhein eta Alberto Bonjeaun jakintsu izenekoen izkera: "Lourdes'en gertatzen diran guztiak irudipenean daukate sustarra. Eta burutatze (sugestión) landara iruzurkoiaren aleak dira ango mirariak" (4). Egi arkaitzari, lumazko ezpataz ume antzean erasotzea da ori...

Gaiñera mirariari dagozkion xede ta elburuen jabe dira Lourdes'koak. Ixkanbilla samurrean dagerkigu Jainkoa oietan eta pake zale. Baiña gizonaren zeregiña lurrean bakarrik dagola diotenai eta bere eskubideak zapuzten dituztenai maratil iriki gaitza jartzekotan arrazoimenaren atean. Bere bizkar irrikarkara bota nai zutenai, eztarria korapillatzekotan. Ez dator ordea, arrazoiez beterik, nai lukena iristera. Mirari bidez bere "esku ko bost beatzak erakustea" naikoa deritzai. Eta aitor dezagun René Schwob'ekin (5): "Munduaren jabe ziran arrokeri puetzillari begietako autsak astindu badizka Lourdes'ek, bertan Gogo Deuna ikusgai (visibilis) jectxi dalako da".

Ba-dira Lourdes'ko mirari kutsan beste zergati-aleak ere. Auxe dagerkit danen buru: Mirariak dirala-ta lainodi maillaraiño jaso nai luke Jainkoak Mariaren bitartekotasuna... Onek mamitzen du Lourdes'ko zeresanai guztia. Orixe da gertakizunen ardatza...

Berezitasun au ezpaltzeko toki ta beta ezean, amaiari nagokio Leon XIII'garrenaren itzakin; Lourdes'en Maria'ren bitartekotasuna ikusteak sorrarazten zion intziri-pilpira itxaropentsuakin: Lourdes: orra gure bizia ta itxaropena. Lourdes'ek salbatuko gaitu".

Joxe-Austin, Pasiotarra

- (1) De Civ.Dei, l. 21, c, 8, 2.
- (2) Summ. Theol. I, qu. LXX 105, a. VI, c.
- (3) A. G. C. Ocho días en Lourdes pag. 31.
- (4) Dr. Boissarie. Lourdes. Historia médica (M. 1893) pag. 287.
- (5) La Capital de la oración. (Buenos Aires. 1946) Pag. 59.

ADIMEN-ZALEEN

OZTOPOAK

MIRARIARI BURUZ

LOURDES'EN ENTZUTEA

Lourdes mundu zabalean dugu ezagun. Bera osagille jakintsuen batzar leku; gaixocaldi gorriean ere itxaromendi. Danetariko gaixoak dauzka Lourdes'ek. Arrigarriak gertatu oi dira; osakuntz arrigarriak batez ere.

Nola litezken? Galdera oni erantzun bearrak jakintsuak bi taldetan banatzen dizkigu. Ez datoz inola ere batera.

Izadi-lege izkutuz, diote adimenzaleak.

Maiz baita mirari bidez ere, katolikoak erantzun.

Bi ataletan banatue izango da beraz lan koxkor au. Lendabi oztopoak jarriko ditut, baiña ez danak, batzuk bakarrik, aundi-aundiñak soilki. Bigarren saillean, laburki oztopo bakoitzari bere erantzuna ematen saiatuko naiz.

O Z T O P O A K

a) Miraria, izadi lege orokorretik kanpora ipiñitako gertari bateri deitzen zaio. Izadi legeak gauzen izatenaren (essentia) muñean dute euren sorburua. Lege ortik kanpora zerbait ipintzea, gauzak ere amaika aldakuntzetan erabiltzea litzake, gauzen izatena ta izadi legea lotu lotuak baidaude; baiña gauzen joera beti da bat, beti era batera dabilta. Mirari oiek gertatu ezak beraz, eziñak izan ere ta.

b) Gaiñera egille ta zuzentzaille onari gauzak eta euren legeak aurrez ta bein betiko eratu ondoren, lendik gertuari jarraitzea dagokio. Jaungoikoa egille ta zuzentzaille onen eta jakintsuena bada, oi-ekuntzetan ipintzea, arrazoigabekeririk aundiena litzake. Eta arrigarriok izadi bide barnean bazeuden, izadiko dira ta ez mirari.

d) Gaur jakintza gaietan asko aurreratu bada ere, dagoaneko dana egin dugunik ezin genezake esan. Izadi-indar izkutu billa gabilta ta egunetik egunera kemen berriren baten sustraiak aurkitzen ditugu.

Gaur arrigarri ta izadi gaiñetiko derizkiogunari, baliteke emendik urte batzuetara, jakintzak aurreragotzen diranean, alako edo olako izadi-indar izkutuz eta berez gerta dirala esan alizatea.

Arrigarriak begien aurrena daudenean, arrigarri diranik ezin genezake uka; bere azalpenik ez dakusgula, bere zergaitiak ezezagun zaizkigula bai; Baiña ortik mirari diranik esateko eskubiderik ere ez dugu. Bat da mirari izatea beste bat arrigarri. Gure gaurko jakintzen ikusmenak baiño garaiago dagon arrigarriari berezko, izadi indarrezko, azalpenak idorotzen saya bear du egizko jakintsuak.

e) Izadi gaiñetiko dirala esatearekin, korapillo guztiak etenak lirake, emen ordea, nola etetzen diran ez baiño, nola askatzen diran jakin nai dugu. Mirari bidea siñismen bide dugu, ta ez jakintza bide. Siñismen-jakintzak ez dira bein ere ondo alkar-ekundu.

ERANTZUNAK

IZADI-LEGEAREN AURKA ?

a) Egia da bai, diote katolikoak, miraria beti gerta oi danetik, izadi legeak eurenez emango luketenetik kanpota dagoala; baña etzaio mirari edozein arrigarriri deitzen. Gutxitan gertatzearekin beste gauza bat eskatzen du Eleizak mirari deitu al dezaiogun; 1) ikusgarri dedilla: esate baterako ogi-ardoak Meza baten Jaunaren gorputz-odol biur-tzea ere arrigarri da; ogi-ardoan legeak berenez ezin emana; baña izaten aldatze arrigarri ori bi gauzogatik ez dugu miraritzat artzen: a) ez dakus-gúlako; b) bagekus ere, egunerokoa ez dala, legetzat artuko genuke. 2) inork uka eziña baita ere, gauzen izatena dala izadi legeen sorburu. Baña bearrezkoa al da izaki orrek beti ondorio berdiñak ematea?

Iru lege mota ikus genezazke izakiari begira derriozrezkoa: Jaungoiko ber berak ere izakia aldatu gabe bestera ezin eginarazi diona.

Berezkoa: gauzak berenez, bere barru-inda-
rrez ematen duena, baña mirari bidez Jaungoikoak gauzaren izatena ezertan aldatu gabe ondorio berezi bat emanarazi dezaiokena.

Oiturazkoa: gizonen izakerari begiratuz geien bat gertatu oi dana. Ez da mirari bearrik onako legeen ondorio oiez bat jadesteko. Orain bada, gauzen izatenetik derriorrez gertatu bear dunak beti berean jarraituko du; orrelako legeen aldakuntzak izakia ere aldatua izan dala esan nai duta.

Berezko legetik kanpora zerbait ipintzeak gauzen aldakuntzik ez du esaten. Ortik ez diogu olako oiezik bide gabe eta noiz nai gertatzen danik ere; ori bai egillearen almen ondatzaille ezbaña, bere jakintzaren aurkako ditzakela.

Baña bidezko danean, gauzak eta euren legeak jarri zituana, berezko legetik kanpora zerbait ipintzeak ez du inundikako arrazoi gabekeririk. Ori gorabera, gauza guztiak eurenean jardungo dute; orain oieza izan duan izaki berberak ere, urrengoan

bere legezko bidetik, izadi lege bidetik joko du. Mirari deitzen diogun arrigarria izakiaren izatena ezertarako aldatu gabe izadi legeen jaunak beren almen osoz lege oratn egindako oieza baizikan ez dalako. Eta oiezari lege ondatzaille ez-baña, lege indar emalle deitu oi diogu.

b) JAUNGOIKO JAKINTZAREN AURKA?

Ala diote adimen zaleak ago batez. Ikus dezagun. Mirariak Jaungoiko jakintzaren illungarrik ez dakar bere berean. Noizpenkako oi-ez bateg ez du izadi ibillera orokorraren aurkakorik: izadiak bere bidetik jarraituko. Izaki ibilleraren aurla litzakenik ere esan al izateko, eten gabe ta arrazoigabez oi-ezküntzetan jardutzea bearrezko; etzaio eragozpen noiz bengoa. Eta miraria Jaungoiko jakintzaren illungarri izan al izateko, izadi legeari bi gauza litzazkizkio bear-bearrezko: 1) Jaunaren almen osoa bertan jarrita euki; 2) Almen osoaren bearrik legea ezartzeko izan ezarren, noiznai eta eten gabe baliardu.

Arrigarri oek aurrez ikusi ta lege barnean gertatzeko jarriak baziran legearen emoi ta ez mirari dirala ere ba-du bere zer esanik. Edozer, eginkorr^{en} bada, gertatu diteke. Eziñekoetan ez da arrigarrik. Izadi ibillera berezian len ikusiak, ez du bere arrigarritasunaren ezertsorik galtzen izadi legeak berez bere indarrez eman ezina bada. Bere arrigarritasun ori galtzeko noiznaiko bear luke izan, egunerako, izadi legeen emoi jator.

d) IZADI GANETIKO?

Adimen zaleen jardunak ez dira oraingo jakintzakin bukatzen; gorago jotzen dute. Baita guk ere. Gaurko jakintzen ikumenak neurtuak ez diranik ez dugu esango; bidegabezko litzake. Jakintzak aurrerapen aundiak egin dituzte. Kemen, indar ezkutu asko, ez-ezagunak gaur arteraño, jakintsuen mentasanari eskerrak, agertzen ari zaizkigu. Osakuntz gaietan batez ere oiñarri bikaiñak eraiki dituzte. Osagille-osakaietan uste osoak asko esan nai omen du; bidearen erdia. Lilluratzez arrigarrial egin litezkela osagille guztiak ago batez diote. Siñoti baten bere uste utsezko ondoezak, sikiatra batek osakai gabe sendatu lezazke. Lenabizi osatu

danaren uste osoa eskatuko dio; bigarren, osasunean dagola sinistu erazi. Olako gaixoeekin ere zerbait ba-dagiala-edo siñestu dezaten sendabide luzeak erabili oi dituzte. Gero ere arreta aundiak, eta nik dakit ba zer, sendatze orrek iraupenik izango badu. Baiña benetako gaixoaldietan, ausi-atera baten, esate baterako, siñistek, lilluratzek ez du ezer irizten. Baliteke alditxoren baten miñak arindu zaizkiola uste izatea; baiña laister biurtuko bere senera.

Olakoetan ez dago arrigarririk edo ondo gutxi beintzat. Egizko arrigarriak, bularretik urteetan birikiak ia ondatuta dagoana, ausi-atera bat itxu batek ikusmena iritxi, eta onelako gaxotasunean, zauriak bat-batean sendatu, makalaldi orren aztarnak ere galdu, ta osasunean gelditzea, ori bai dala arrigarri, izadi legeak berez eman eziña. Eta oraindik Eleizak osagille ots aundikoen agiriak eskuratu arte ez du egizko mirari dirarentz esango.

"Ukatu eziña dugu Lourdes'ko osakuntzetan ba-dirala, egunerokoak izan ez arren eta gaixoarentzat esker aipagarri bat izanda ere, osagilleentzat mirari ez diranak", dio Boiserie osagille jakintsuak. Ori edonork osagillek esan lezake ta katolikoena ere garbiago diote. Txalotzekoa baita ere arrigarririk gertatzen danean bere badaezpadako sustraien billa bizi ibiltzea; txalogarria gaurko jakintzen ikusmenak luzatzen saiatzea. Ez da beti errez-errez noraño izadi-indar utsez liteken, eta zer mirariz esatea izango.

Baiña ba-dira ez-bairik antitzen ez dutenik ere: Gaixotasun gorri aurretatua bat batean sendatu eta abar...

Olek beti izango dira izadi legetik kanpora, izadi indarrak berez eman lezaketena baiño gelago ta, naita nai ez, zintzo jokatzekotan beintzat, Izadi Jaubearen aztarna ikusaraziko digutenak.

Littre'k, arrigarriok arrigarri diranik ukatu ez baiña mirari diranik edo ez dala ikusi bearrik dionean, ez du batere zintzotasun itxurarik. Baleztu nai ez dan zerbaiten aurrean, aitzaki-maitzaki, zirrikitu billa dabillela ematen du. Ori eglari atek eirikitzea ez baiña, egiari izaki gagnetiko danean, begiak itxi ta izadi gaiñekoak eze-

zagun zaizkigula esan naia dugu.

e) MIRARIA JAKINTZ BIDEEN AURKA?

Ara beste oztopoa: Jakintzak siñismena ta siñismenak jakintza alkar baztertzen dute. Ulertua soilki onartzen dutela. Jakintzan ulertuak bakarrik duela toki. Eta eguneroko gertarietan badirana bai, baiña zer diran ez dakiten zenbat onartzen, ezpairikan gabe gaiñera?

Siñismenean eta siñismenez bizi diranik asmatu ote duete iñoiz?

Eta bizitza ber-bera ere zer da? Nola soin atalen bizitza, nola asi: Ba-dirala bai, baiña nork uler?

Ara emen Diderot'ek ziona: "Paris osoak il baten piztuera ikusi zula esatera etorriko baltzakit ere, siñistu baiño lenago Paris osoa erotuta dagola esango nuke".

Ara emen siñismenaren aurkako jakintza-aren oiñarrria: Arrokeria, buru-gogortasuna.

Egizko jakintzak ez du ezer mirariaren aurkakorik, Jaungoikoa bada ta mundu onen arduratsu gaiñera siñisten duelako. Eta Eleizakin batera ere jakintz.bidez ta nai aiñean zorrozki aztertzen ditulako mirari diran arrigarrriok.

DAMASO, Pasiotarra

LOURDES'KO —————

————— MIRARIAK:

ANDRE MARI BITARTEKO

A M A T A S U N A

Izaki utsa denez, ba-du mirariak alderdi pozgarri bat: bere Amatasuna. Ama! Orra or aoa ez-tasunez beteta esaten dan itz pozgarria. Ez-bear eta biotz-miñetan poz iturria. Aurrak amaren bear-rean aurkitzen dira, ta xamur zaie beren bizitzako ordu garratzetan berari azaltzea. Ondo baidakite bere amak lagunduko diela. Zeiñek aztu ta zapuztu ditu amaren magaleko lenen urteak?

Mariari gukanako Amatasun iturri au nundik datorkio? Maite gaitualako? Eskerrarekin janaritzen gaitualako? Ez da naikoa maitatzea, ezta bu-larra eskeintzea ere, ama izateko. Amak semea erdi bear du; erditza lokarri onek korapillatu bear ditu. Ta Maria'k bisitza emanaz erdi gaitu; orra bere Amatasuna.

Gizonak bi Dizitza dauzka: gorputzarena, ilkorra; ta gogoarena, illezkorra. Gogoaren bizitz illeskor ta Maria'k eman digu. Aingeruari, Jaungoikoaren Semea bere errailetan sortzeko baietza eman zionean, ta gero Karbarioan Jesus'ekin bere oiñaze-oparia guztion gaizkapenerako eskeiñi zuanean, erdi giñusen.

Ez da au teologilariak buruz dioten gauz ariña; Eleiz-Amak erakutsia baizik. XII'garren Pio'k "M.Corp." idazkian auxe digu: "Bera izan zan sabel txit orban gabetik Kristo gure Jaun eta Eleiz burua... eman ziguna. Bera Kristo'ren soinki guziren erditzaillea".

Eleiz gurasoak ere egoki sendesten dute. Agustin Deuna'k: "Maria soinkien Ama" digu. Ta Alfonso'k: Ez diote bere otxeiñak ustekabe Ama, Andra Maria'ri deitzen; beste izenez ezin baiditeke deitu".

E S K U B I D E A K

Jainkoaren eta gure Ama danez, eskubide ugariak dauzka Andra Mari'k, otoitz bidez batez ere. Maria'ren otoitzak alguztidunak dira. Maria'ren eskariak, aginduak bezela dira Jainkoarentzat. Maria'ren esanara dagola Jainkoa, esan genezake. Munduko legeak Jainkoaren menpekotasuna ezagutu ta mendutzen duten bezelaxe dio XII'garren Pio'k, Jau-nak ere beti entzun oi ditu Maria'k ezkeiñitako o-toitzak. Orregatik Eleiz-Amak "Otoitzez alguztidu-na" deitzen dio.

Andre Mari'ren bitartekotasuna, ta Jau-naren esker guztien bide dala, Kanako mirariak argi ta garbi darakuskigu.

Ezkonberri auenganako errukitasun onek eguna bezin argi darakuskigu baita ere, nolako arduraz entzun oi dituan Maria'k beti gizasemen eskari guztiak. Eta ez entzun bakarrik, baita bete ere, naiz mirari iturria idiki bearra izan.

Ta zuzen onela bear ere; Goi-eskerra Jesus'ek eman baizigun; Jesus berriz Andra Maria'k. Jesus gabe eskerrik ez; Andra Mari gabe goi-eskerrik ez. Jainkoak ala naita, esker guztiak Amaren eskuetatik datozkigu.

Egi au argi ageri da azkeneko eun urte auetan batez ere Loures'ko Santutegian. Lourdes'en ari dira, bai Jainkoa ta bai Madra Mari; Lourdes mirari bizia da, Gizonen gorputz-aimeko osasun iturria.

Lourdes'ko mirariak zenbatu eziñak dira,

ta mota guztikoak gaiñera. Ez dira ttunttunean ikusi ta emakume buru bero batek aitortutakoak; tajuz eta astunean ikusitakoak baizik. Zalantzik ez dutenak; sendagille jakintsuak ziurtatuak, ta Eleizak baieztatuak. Eleiz-Ama galdiro dabil, baiña beregan du zentzutasuna. Ikusi dugunez, zearozko bitartekotasuna dauka Maria'k Jainkoak ala naita... Beste aldetik ondotxo dakigu mirarien egille bakarra Jainkoa izan ditekela. Lourdes'ko mirariak dirala-ta ots aundiak ateratzen ditugu, Maria'ren eskuzabaltasunari buruz. Zer, mirari oien bakarra Jainkoa bada? Nora alde egiten digu Maria'ren bitartekotasunak? Nola uztertu ditezke bi ertz auek?

Korapillo au askatzeko, mirari motak azaiztea dagokit lenen, Jainkoaren tokia ta izakia-
ren alderdia argituz. Onela agirian geldituko da Maria'k izaki utsa danez mirarietan lezakeana; gero Jainkoaren egite-bide danez dagikeana aipatuko dut, gure Amaren bitartekotasun berezia garbi gelditu dedin Lourdes'ko-eta mirarietan.

M I R A R I M A I L L A K

Mirari mami beteak alkar osatzen diran bi alderdi dauzka. Eta zerbaiti, mirari izen apaiñekin deitzeko, bi ezaugarri bear ditu: 1) Izadiaren gaietik sortutako gauz arrigarri izatea, ta 2) Jainkoaren almen iturritikoa izatea. Mirarien sorburu ta iturria Jaungoikoaren alguztetasun ta borondate neurrigabeak dira. Miraria izadi-lege auste bat bezela da. Eta orregatik lege-jartzaillearen eskulana. Baiña Jainkoaren esku sartze onek ez du zirikusi berdiña mirari guztietan. Emendik sortzen da iru maillako mirari zurubia.

Lenengo maillako mirariak ezin ditzake sortu iñolaz ere izadiak. Jainkoaren jabetza soillekoak dira. Aldareko "miraria" jarri oi dute teologilariak mailla au argitzeko. Emen izaki bat izanaldatzen da. Ardo.Ogiaren izatena, Jesus'enean. Eta zer esanik ez, emengo lan guztia Jainkoarena dala, ta ez izaki xiariñarena.

Bigarren maillako mirarietan ez da ain erabatekoa, aiek sortzeko almena. Mirari auek duten "zerdalako" ori, izakiak eskeiñi lezakete, bi-

zia adibidez; baiñan ez gai, "sujeto edo zeinki" ortan. Sorkariak bizia eman lezakete; baiñan ez diote sekulan emango bizitza ori, gorputz illotzari. Alde batetik sorkarien indar legekoak dira mirari auek; eta bestetik "zerki" ori dalata Jainkoagandik bakarrik datorzke.

Azkenik ba-dira iragarren saillean pillatu genezazken mirariak. Auek zearo izakien almenean daude, eta berak sortu lezakete nola-la. Ez ordea gerta oi diran "kera", modus berezi ortan. Ementxe dager mirari auen giltza ta zulo estaligaitza. Izakian ba-du indarra auek sortu erazteko. Ala ere ez du eskubiderik bide oien bitartez sortzeko. Gaxo bat senda leike bere indarrez eta pixkanaka; baiña ez du ber-bertan sendatzeko indarririk.

Mirari mota auek argi darakuskigute Jainkoak duan zerikusia. Baiña Jaunaren egikeari begiraturik, bitartekorik ez duala zopuzten noizbait beiñepein, esan genezake. Orregatik zeruko Ama eta santuak azaltzen zaizkigu askotan mirari egille antzera. Izan ere Jainkoak ez du gaitzezten bitartekotasun au.

Au dala-ta dio Gregorio deunak: "Gizonak bi erataro sortu lezake miraria;otoitz-bidez (eskuratuz), ta Jaunaren indar bidez. Biak siñismen lokarriz alkartuta. Siñisteak indar berezia ematen dio, ta Tomas agurgarriak dionez, arnas bizi zentzu gañetik egatzeko.

Orregatik esan zien Jesus'ek Apostoluei: "Jeben azia bezain bateko siñeskuntza bazenute, masuatondo oni "errotik atera, eta itxasora alde adi" zuek esan ezkerro, men egingo lizueke.


Siñisteak, bada, mirariak egiteko gai ta gauza biurtzen du gizona.

Siñisteak izaki utsean ainbeste al badu, zer ote lezake Andre Maria'k izadiaren Erregiña, ta Jainkoaren egite bide danez?

Jainkoaren bitarteko danez, erregiñaren eskubide guztiak dauzka Maria'k. Ez izen utsezko erregiñarenak, egizkoarenak baizik. Bode ortatik datozte zerutar esker guztiak. Baita Lourdes'ko mirariak ere. Mirari oietan Maria'ren aunditasun osoa dagerkigu. Izaki utsa danez, bere almena neurtu edo ezitu lezakean legeak, ez du mirari oietan aginterik. Eta Maria Jainkoaren Ordezkarri altsua bezela diardu...

Emen bai ageri dala bere esku-zabaltasuna, egizko Amatasuna, benetako Jainko-ordezkaritza.

AMADEO, pasiotarra



LOURDES

SINISMENA ARKITZEKO — LEKU —

"Lurdes, arima-uri" du izena Gaetan Bemoville'ren liburu batek. Itz egokia asmatu idazle onek uri ospetsu orri izena jartzeko. Izen egokia benetan Lurdes'i emateko? Ama Birjiña sortzez garbiana an agertu zan ezkerok. Zeruko Ama, Jesukristo bezela, giza-arimen egarri degu. Egarrori erakusten du Lurdes'en ere noski. Gure arimak Kristo'ganatu, Jaungoiko'ganatu nai ditu. Asmo orrekin egin ditu, noski, arpe artako agerkerak; orretarako ugaritu ditango mirariak. Lurdes, mirari-leku degu benetan. Eta mirariak beren-berena dute ondoriotzat kristauen sinismena argitu ta sendotzea, baita sinistegabekoen artean sinismena sortu eta eta beren gogoak Jaungoikoagana ekartzea ere. Ez al da azken au, sinismengabekoen Jaungoikoagana biurtze au, miraririk audienetako bat? Orra, bada, nola Lurdes, mirari-leku degularik, konbersio-toki, sinismenerako atea arkitzeko aukerako toki dala ere aobatean esan genezaken. Eta orra guk gere lantxo ontan nolabait azaldu ta argitu nai genukena.

* * * * *

Sinismena arkitzea, Jaungoikoagan biurtzea, "konbersioa"; ikaragarrizko gertakizuna da gizonaren biotzean. Paul doneak bazekien onen berri. Izugarritzko iraulketa somatu zuan bere barne osoan

Jaunak bere alderako deitu zionean. Iraulketa orren antzekoa somatu dute sinisgabetasunetik sinismenera etorri diran geientsuenak. Grazi ori izan dutenak goitik-beraño aldakuntza nabaitzen dute. Aldakuntza osozkoa, gogorra!

Gizona len zebillan, bere uste ta gogaia-kin ziur zalakoan; beretan sendo iraunkor, ta egi-ten dagolakoan. Besteak dira oker dabiltenak, ez dakite bizitzen; Ez dakite ezer ta orregaitik zertan siñisten duten ere ez. Jainkoa ta goiko gauzak, apaiz ta prailleak asmatutako kontuak baiño ez.

Ta or nun, une baten sarri, olakoaren etxe sendoa, oiñarrietan kordekatzen dan, ikaraz asten dan.

Itzetik ortzera, ordura arteiño gogo ta iritxiei uko egin bear die, oker ari dala aitortu ta len ezeztatzen zituan gogoetara makurtu. Berekien zuana galtzeraiño utzi, bere erraiak irauli, Kristo'rengan siñistu, Kristo'ren gogoetan sartu ta Beraren naietara jarri: au da onerazkoa egi-tea, Jainkoagan biurtzea.

Mirari benetan aundia, Jainkoaren almena baiño gutxiago bear ez duana. Guztiok dakigu, fedea bakoitzaren emaitza ez dana, Jainkoaren eskerrezko doaya baizik. Jainkoagana biurtzea, goi-siñismenaren ondorena dugu.

Ta ona Lourdes'ko mirarik aundiena.

Lourdes bide dala, Ama Birjiñak makiña bat mesede ta grazia ixuri ditu mundura. Orain eun urde dirala asi ta geiago amairik gabe jazotzen dira Lourdes'en Mirari ta gertakizun arrigarriak. Lourdes mirari-tokia da. Ainbat gorputzek bertan arkitu dute osasuna. Benetan, mirari suek baiño ugariagoak eta arrigarriagoak dira Ama Birjiñaren bitartez izkutuan jasotzen diranak: animaren sendatze ta oneratzeak.

Tamalez Lourdes'ko gorputz sendaketa ta agiriko mirariak arritzen gaitue geien bat eta ez dugu aurrerago ta sakonago jotzen. Or gelditzen gera. Jende talde geienak, Mirari oiek erakarrita dijoaz bertara. Ta egia esan, guztiz alde txarrera

ezin genezake bota auxe, bere alde ona ere ba-
du-
ta. Ebanjelio Santuan ere ikus dezakegu nola Jesus'
ek bide berori eraman zuan. Lenengo, mirariak egi-
ten zituan or-emen, ta oiek ikustean taldeak bera-
renganatzan ziran Berri Ona aditzera. "Baiña, Jesus
bere ikasleekin itxasoruntz baztertu zan; ta giza-
talde aundia Galilai'tik jarrai zitzaion. Baita Je-
rusalen'dik ere, ta... samaldaka ziyozen Arengana,
zeginä entzunik" (Mark. 3,7-8). Ta jokaera edo jar-
duera au sarri ikus dezakegu Jesus'en bizitzan.

Jesus'en mirari agerikoak, gure alderako
elburu bi dituzte: Jainkoaren aintzarekin batera
gaiñez, gure gorputzen ona, batetik, ta Berri Ona-
ren ezaugarri ta siñispide izatea, bestetik.

"Emaitzetatik ezautuko dezute zugaitza"
esan zien bein Jesus'ek bere ikasleei. Ta orixe
gertatzen zan bere mirarietan: izadiz gaiñetiko in-
darrez egiñak zirala erakutsi ta ezagutarazten zu-
ten.

Jainkoak ez ditu utsagaitik egiten mira-
riak, beti zerbait onuragaitik baizik. Eta Berak
guretzat nai duan onurarik ederrena, siñismenaren
bidez, zeruetako erreinua lortzea; Orregaitik ema-
ten dizkigu Jainkoak mirariak: Siñismenera eraman
eta gure siñismena sendotzearren.

Siñismenak Egia du irozkai. Ta mirariak
egiaren ezaugarri dira. Bein baten, Yon Ukuzleak
Jesus'engana bidali zituan bere ikasle batzuk Are-
ri galdezka: Ia Bera zan etortzekoa, ala besteren
bati itxoin bear zioten. Ta Jesus'ek onela erantzun
zien: "Zoazte, ta entzun ta ikusi dituzunen berri
Yon'i emaiozute. Itxuek, ba-dakuste; errenak ba-da-
biltza; legenardunak garbi egiten dira; gorrek ba-
-dantzute; illak pizten dira; landerrei Berri Ona
azaltzen zaie..." (Mat. 11, 3-6).

Lourdes, Jesukristo'ren mirarien jarrai-
pen bat dugu. Bide berdiña darama, eta emaitz ber-
diñak ematen ari da.

Jesus'en mirariak bezelaxe, Lourdes'koak
ere gizadiarentzat siñispide dira.

Jesus, bein baten, Kafarnaun'en onela
mintzatu zan: "Beraz ogenak askesteko eskubidea

(au da, Jainkoa dala jakin zezaten) Gizasemeak lur-gaiñean daukala dakusazuten, (elbarriari dasaio). Nik dasaizut: Jeiki; zure zerraldoa artu ta etxera zoaz". Ta bertantxe jeiki zan. (Mt. 5, 24).

Lourdes'ko gorputz-zaurien sendaketak, errukitasunaren guneakin batera, Ama Birjiñaren al izate aundia azaltzen dute.

Makiña bat eri jaiki da Lourdes'en ere, munduak siñistu dezan, Jainkoaren eskua dabillela bertan. "Zoazte ta entzun eta ikusi dituzunen berri mundu guztiari emaiozute. Itxuek ba-dakuste; errenak ba-dabiltza; legenardunak... laderrei Berri Ona azaltzen zaie". Emen goitiko egiaren ezau-garriak Lourdes'en.

Egia esan, Lourdes'era dijoazen gaixo danak ez dira sendatzen, baiña sarri sendaketa oso arrigarriak gertatzen dirala iñork ezin ukatu. Ta eri asko, agitz, oneratuta euren etxeetara itzultzen dirala ere ez.

Ama Birjiñak ere, mirari oiek ez baiditu egiten gizasemeen jostagarri Jesukristo'renak zuten jo muga ber bera dute. Ta jasoten ditu, alegia, egizko emaitzak.

Auek ordea, ezin zenbatu, ikusgai mirariak bezela. Auek ere besteak bezelaxe, ba-dute beren epai tokia; gelenetan aitortegia, bera. Izkutuan gertatzen dira ta ixillean gorde ere. baiña ziurki Lourdes'ko Ama Birjiñak amaika seme ondartzaille aitaren etxera biurtu ditu.

Ludi ometako gizonak jakiteko ez da idatzi ta ez idatziko ere, emengo edesti izkutua; zerruetakoan bai, ordea, ta ara eldu artean aztertu nai geiegi ezin genezake izan. Baiña au ere esan bearrean gaude: izkutuan gertatutako mirari oiek ez dirala dan-danak ixillean gorde.

Beste aldietan, Jesus'ek Gadara'ko txerrenduna bidali zuan bezelaxe, Lourdes'ko Ama Birjiñak ere banaka batzuek bidaldu ditu gizon tartera, Jaunak eurekin egindakoa azaltzera: "Zoaz etxera, zutarren-gana, ta ezaldu egiezue Jaunak egin dizun guzia ta erakutsi dizun errukia". (Mark. 5, 19).

Ta Ebangelioak digunez, gaixo ura Jesu'ek sendatu ondorean joan zan beretarren-gana ta Jesus'ek bera- rekin egin zuan guzia Dekapoli'n zabaltzen asi zan, guzien arrigarri.

Eurak egokien, Jainkoaren eta Ama Birji- ña'ren egipenak ondoen zabaltzeko. Eurak egiaren bidalirik ziur ta onenak.

Emen talde aundi baten artean bosten i- zenak: Gabriel Gargam, Alexis Karrel, Lasserre, Huymans, eta Retté. Lorudes'ko ederrenak argitaldu ta zabaltzeko autuak. Euren edestian oso argiro i- kus dezakegu Lourdes'ko Ama Birjiña'ren eskua. A- maren bitartez seme-ondatzailleen Aitarenganako itzulaldia; ta eurak danak ditugunez, alegia, agi- riko mirariak bide zituztela sinismena ta bide ona arkitu zuten. Len ikusi dugunez agiriko mirariak siēspide.

Auetako siēstera biurtze jakingarri bat oraintxe berrogei ta amazapi bat urte gertatu zan Lourdes'en. Paris ondoko Angoulême erritxoan txi- mizt-gurdia jausi ta ezbear bat jazo zan. Bertan zijoazen askok bizia galdu zuten, tamalez, eta bes- te asko oso gaizki gelditu ziran. Auetako bat Ga- briel Gargam izena zuana; ogeita zortzi urteko mu- tilla bera. Ia illik, Paris'eko gaixotegira eramán zuten. Sendagilleek, mutil onen ama gaixoari jakin arazoten die, egun gutxirako bizia duala bere se- meak.

Orduan, ama ura, samin bizian, baiã Jain- koarengan eta Ama Birjiñarengan itxaropen osoa ja- rrita, gaixotegira joan zan, biak Lourdes'era bi- ra bat egin bear luketela semeari aitatutera.

Garai artantxe, Prantzia guztitik erro- mesaldi aundi bat zegoan bertarako gertatuta.

Amaren nai arek arrituta utzi zuan semea, baiña, onek ain saminduta ikustean ama, bere naiña azaldu gabe barruan gorde, ta onela itz egin zion amari: "ama, zuk ezagutzen nauzu. Nik ez det si- ñesterik".

Amak negarrez erantzun zion: "Ba-dakit

seme, baiña zuk Jainkoa siñisten ez badezu ere, zure amak ziñisten du, ta Lourdes'ko Ama Birjinak, eskatzen diodan eske au, ez dida ukatuko".

Ama fedetsu onek ez ote zuan lortuko bere eskabidea?

Gabriel Gargam, biotza erdiraturik gelditu zan, amarengandik itz aiek entzutean, eta erantzun auxe eman zion: "Ara ba, ama, zure naia egitearren, juango naiz Lourdes'era".

Esan eta egin. Egun gutxiren barru, irten ziran Lourdes'eruntz esñomesarekin batera. Bertara eldu ziranean, atzenetan zegoan gaixoa; ta ala ta guztiz ere ba-daramate Errosarioko zelaira. Prosesiñoa baiño lenago ilko zalata zeuden guztiak.

Berealaxe, irten zan prosesióna eleizatik, oso eder ta ikusgarri.

Onetan, Jainko-lekuan zeramaten Gure Jauna eldu zan gaixoak zeuden tokira. Eurak bedeinkatzen zituan bitartean, inguruko guztiak belaunikoko jausten ziran. Gabriel Gargam'ek begiak itxita zeuzkan; baiña, bedeinkatzeaz batera, lo zorro batetik esnatuta bezela, begiak iriki ta Osti Santuari tinko begiratzuz, deadar egiten du: "Sendatu naiz"! Ta bertantxe etzanda zegon saskitik jaikitzen da, ta prosesiónan Jaun Sakramentatuaren jarrai asi.

Ano ikusleen arrimena! Sendagilleak ere, ia illik zegon ura orrela ikustean eta azterketa guztiak egin ondoren, sendapena baiño, berpizte bat geiago zala aitortu zuten...

Baiña etzan au dana; mirari bi izan ziran. Orduantxetik Jainkoagan Gabriel siñisten asi zan eta siñismen sendoakin asi ere.

Gabriel'ek gorputz-sendaketa mirari aundia izan bazun, amaika bider aundiagoa izan zan bigarrena: animaren osasuna ta bizia. Jainkoaren etxera biurtzea, izan diteken miraririk aundiena auxe.

Arrigarria ama onen siñismena ere. Orre-

lako sinismenari Jainkoak ezin uko egin. Ebangelio Santuak digunez, Jesus bera ere onelakoa fedearen aurrean pozarren biotz-beraturik jartzenzan. Eta bein onela mintzatu ere: "Siñestunarentzat dana egik zuan". Ama onek benetan siñestu ta itxaró zuan eta bere semearen sendatzea eta onbideratzea, mirari arrigarri baten bidez lortu zituan.

Arrezkero Gargam ori, Lourdes'era amabost egunerako, ikuztokiko gaxoei laguntzera.

ALEXIS KARREL.

Aitatu degun gertakizuna jazo ta laster, mundu guztian eta Prantzian batez ere, ots aundia atera zuan Alexis Karrel ospatsuaren onbideratzea agertzen zaigu.

Sendi oneko semea izan zan. Lenengo ikaskizunak egin bitartean, kristau bide ona asi zuan; baño, garai arsan Prantzian zebillen Jainkogabeko ikaskintzaz zaletu zanetik, goitiko sinismena galdu zuan. Giza-gogoaren pentzutan jarri zan eta ki-to gero... Noizean bein, ordea, bere biotzak deadar eragiten zion: "Zein egi ederral deuseztu dituan, apur bat jakiteagatik bakarrik". Une batzutakoak iraitzekoak izaten zituan onelako argi aldiak; dana itzalita zegoan bere barnean.

Onetan, Prantziako sendagille ospetsuenetakoa egitera eldu zan. Kritautasunaren aurka etzan ibillibeste asko bezela, baño, beragandik guztiz alhenduta bai bizi zan... Onela zebillen bere sendatzalle-eginbidean, eta alako batean bularretik etziturik zegoen emakume gaxo bat sendabidean jartzen asi zalarik, laster ulertu zuan, osaeziña zala, iltzera zijoala. Gaixo onen eriotz neke-larriak, berriz, gizon eta sendagillea biotz-biotzean ikututa utzi zuten.

Emakumea ain txarto ikustean ordea, bere etxetiarrak, Lourdes'era eramtea erabaki zuten. Karrel sendagilleak au jakitean, bere barneko esames ta atzerapide guztiak jaurtirik, gaixoari Lourdes' eraño jarraitzea erabaki zuan, gaixo ori zertan gelditzen zan ikusteagaitik bakarrik.

Bein ara eldu ziranean, Ama Birjiñaren ure-

tara eraman zuten emakume gaixo ura; ta ara nundik, uretan sartzeaz bat, guziz sendatuta gelditu zan len ondatuta zegon gorputz ura. Karrel' i berriz, gertakizun arrigarri ta ustegabeko onen dirdirak lertuta utzi zioten anima, ta bertentxe mirari indarraren azpian makurtu zan.

Oraindik ordea, berak digunez, siñismenarekin osoro jabetu arteraño, burruka aundiai buru eman bear izan zien. Bere aurreko iritxiak batetik eta sendagille lagunak eta abar bestetik; guztiak siñisgabeko. Parre egingo ziotena ba-zekien, ta au baño aundiagoren bat oraindik gertatuko ote zitzaien bildur ere ba-zan. Baña, mirariaren bñtertez Ama Birjiñaren indarra aundiagoa zan eta aurrera jarraitzea erabaki zuan. Ta mirari ondorean, ango zelai zabalean ara ta ona ibilli ta gero, eleizan sartu zan.

Jende tartean izkutaturik, eta zalantzan zeukala oraindik fedea, bere baitan, otoi luze ta xamur bat zuzendu zion Maria Birjiñari esanaz: " Zuri apalki dei dagizuen guztientzat errukitsu zera Ama goxoa! Zuregan siñisten dut. Nere zalantza guziai mirari astun batekin erantzun nai izan diezu, eta ala ta guztiz ere, ez naiz oso argiro oartzten: nere biotza kordokan dabil. Baña, ba-dakizu, Ama, nere nairik goietaikoa siñistea dala; itsu-itsuan siñistea; aztefketa ta jardumikgabe...".

Aurrerakoan, argiro agerti zituan bere barne-aldakuntza ta fede sendoa. Berak susmatu bezela, Lion'go Fakultadean atea itxi zizkioten, Lourdes'ko mirarietzaz bere siñismena agertzeaz bat, eta bere inguruan asi zan mukerkeria zala-ta, Prantziatik alhenduta Ameriketara jo zuan. Eta aurrerantzeko urteak an igaro zituan zintzo, on aundia egiñaz.

Azkenez, eriotza aldian lagundu zion Alexis Praxes jaunak digunez, 1945'garren urtean ume-txo baten apaltasun ta siñismenarekin, Gure Jauna artu ondoren, bizitza obean sartu zan, egun baten Lourdes'ko Amarengandik zeru bidean asi zan ura.

Lourdes'ko Amaren beste kubunetariko ja-kingarri bat, Endika Lasserre dugu; Borgoñako idazla-ri ospetsua. Izenez katolikoa, izanez ordea, ezerrez,

beste aldi baten eleizaren bazuan ere. Kristau bi-
zitz otza zeraman. Eta Lourdes'ko miraririk etzuan
siñisten...Bein baten,ordea,autako batek ikututa
kristau bide zintzoan jarri zan. Bada,urte asko
zala itsututa zegon,eta bein Lourdes'ko aitzulotik
ekarritako urakin begiak igurtziaz bat,galduta zeu-
kan ikusmena biurtu zitzaion. Ta soñeko begiakaz
batera,animakoak ere iriki zituan. Eta ordutak,e-
peltasunak utzita zintzetasunean bizi izan zan.

Mesede aundi bi oien alderako eskar onez,
"Lourdes;ko gure Ama" liburua idatzi zuan. Ta geñe-
ra Lourdes;ko mirarien alde ta razionalista dira-
lakoen aurka liburu sutsua argitaratu zuan.

Gai onen iturriak agortu nai izatea alpe-
rrikoa litzaiguke;bada,lenago esan degun bezela,
Lourdes'en gertatutako mirarien edesti osoa ludi
onetan ez da idatzi,ta idatzi izan balitz ere,mi-
rari oiekin siñistera etorri diranen izenak bakar-
rik jasoteko liburu aundi bat bearko genuke ta e-
gin al izanda ere ainbat luzatzea ez da gure asmoa.

Lourdes'era gorputzentzat osasun billa
dijoazten guztiak ez dute beti euren naia lortzen;
obekuntza,gelenak bai. Andik igarotzen diran ani-
ma ta gogo gaixo danak ere ez;baña,nork ulertu zen-
bat eta nolako aldakuntzak gertatzen diran? Guzti-
ok darabilgu,alegia,anima goxorik;guztiok bear osa-
suna;guztiok bear dugu onbideratu. Ta ombideratu
bear onekin,amaika milloe gizaseme igaro dira "on-
bideratze toki" ortatik gaurdaño. Emendik igaro di-
ran bakoitzaren baitan gertatutakoak ezin guk ja-
kin,baña,goi-bizi ta osasuna bertan iritxi dutenak
zenbatu ezin aiñako taldeak dirala ongi dakigu.Oiek
danak barruan artzeko,Yon Ebangeliaren esana artu
bear : "Vidi multitudinem magnam..." "Enderri,erki,
erri ta izkuntza guztietakoak,iñork zenbatu ezin
lako talde aundi bat ikusi nuan".

Moeta guztietakoak;katoliko ta zinausle-
ak;kristau eta kristau ez diran erlijiñotakoak ere
an izaten dira. Ta Ama Birjiñak guztientzat zerbait
izango duala esan bear.

Lourdes Kristo'gana biurtzeko toki dala
esan dugu,ta izen au oso bidezko zaio benetan.Izen
berezi,bikain ta ederra auxe. Gauza eder asko esan

ditekez Lourdes'etaz,baña,ederrenetakorik bat auxe: onbideratze toki,edo obeto,SINISMENA ARKITZE-KO LEKU dala.

Egintzarik aundien eta ederrena Jainkoaren Erreñoa ezartzen.Deabruaren erreñoa egotzi ta Kristorena sartu.

Lourdes,gaur atzo bezela,Prantzi ta ludi osoan,kristau siñispenaren eusle ta abe sendoa; ta bide batez,siñisgabekeriaren aurkako irozkaia aukerakoa.

Kristoren eginkizuna noski,ez da amaitu ludian,eta gizasemeak dirauteño ezta amaituko ere; ta berdin Ama Birjiñaren,Aren Eroskide ta Erkide dalako. Ta eun urte otan,egintza au egizatuteko toki askoren artean,Lourdes berezikien aukeratu dñanez,ta munduari bertara ots egin dionez,aurre-rantzean ere bertan jarraituko duala baieztatu bear. Jesukristo ta Jainkoarenganako bidezuzen urte-etan izan da,ta ala izanaz jarraituko duala esan bear.

A R A N T Z A

Begoña'ko Karmeldarra

LOURDES'KO

AGERPENEN

EPAI-IRITZIA

Arki bidea

- I . - ATARIKOA
- II . - EPAI-IRITZIAREN BI MAILLAK
 - A) BENARTETXO ZINTZOA IZAN ZAN
 - B) BENARTEK ETZION BERE BURUARI IRUZUR EGIN
 - 1) Lillura edo uskeria
 - 2) zorapena
 - a) Zorapena baldintz aldakaitzak inguratzen dute
 - b) Zorapen ondoreen agortasuna
 - 3) Beste gaitzen batzuk?
 - a) Katalepsiari buruz
 - b) Zorotasun gaxoa
 - d) Urrdalen edo isterismo
- III . - ELEIZAREN EPAI-IRITZIA
- IV . - LOURDES'KO BESTE SASI-AGERPENAK
- V . - LOURDES'KO AGERPENAK SINISTERA BEARTUAK AL GAUDE?

I.- A T A R I K O A

Lourdes'ko agerpenen epai-iritzia ematea dugu gure lan onen elburutzat; agerpen oien aztarnak zeatz-meatz argitara ateratzea gure naia. Erri xearen esan ta iritziak alde batera utzi eta siñistun guztien biotzean gorderik arkitzen dan siñismenari adimen epai-lekura deitu nai diogu.

Edozein arrigarri antzo Ama Birjiña'ren agerpenak ere kezka bat erne baidigu. Egia al da Lourdes inguruko Massabielle aitzuloan Otsaillaren amaikatik Garagarrillaren amaseira emezortzi aldiz egertu zitzaiola Ama Birjiña Soubirous'tar neskatxari? Zer dala-ta baiezkoa eman bear diogu galdera oneri?

Egi bat bitartekoz datorkigunean, egi orrek oker antza artu lezake; ez badigu, dan bezela, egi ori bitartekoak gure eskuan ezartzen. Orregatik ikertze ontan bi txandako lana dugu. Bi erestungo kateak alkartzen baigaitu egiarekin. Lendabiziz: Lekuko orrek ez digula iruzur egin ziur al gera? Eta: guri egin bearrean ez ote dio bitarteko orrek bere buruari iruzur ori egin? Orrelaxe eskier giñake agerpena guganaiño bide zuzen-zuzenetik datorrela.

Gure lantxo onetan Beñarte ziñezko izan ote zitzagun, ez ote zigun iruzur egin, berak azaldu ziguna egitzat zeukan ala ez, adierazi nai genuke.

II.- EPAI-IRITZIAREN BI MAILLAK

A) BEÑARTETXO ZINTZOA IZAN ZAN

Baranoan bizi ziradenak esan oi zuten amaika aldiz, Beñarte neskatxoa alai zala, amultsua, zintzoa; par-irria beti ezpañetan zularik. Nunbait biotz errueza beti dagokion alaitasuna ustearazten

bazizun neskatx biurrixka-aurrean zeundela, galde-ingurukoei eta zalantzarik erantzungo zizuten Beñartek etziela beñere ezezkorik eman bere guraso eta nagusien aginduei, ta gure lantxoarentzat garrantzi aundiagokoa dana, gezurrik etzuela egundano esaten.

Agintarien galdeketak gezur-gai onetan etzuten akats bat ere arkitu biotz zuzen artan. Egiñalak egin-arren, urizaiñ-ordezkarri Jacomet Jau-nak azkenian aitortuko digu: "Elle est habile. Elle ne s'est pas coupée une fois. Je n'ai pas pu en venir á bout". Aginterri-bitarteko Dutour jau-nak azalpen au egiñen zigun Beñarte'nzintzotasu-nari buruz: bere iritzia geienen iritzia zala; E-paillaren lenengoan bere nagusi bateri itz auek zuzendu dizkio: "Il est impossible d'établir la mauvaise foi de la prétendue visionnaire". Tarbes'ko bruruzagiak Paris'ko gubernuari idatziko dio Epaillaren 12'an: "Ceux qui avaient ajouté foi aux paroles d'ela jeune fille reconnaissent qu'ils avaient été dupes de ses hallucinations". Eta il bera-18'garrenean = "On croit qu'il n'y a pas eu question de fraude". Eta Lourdes bertako "Lovedan" iz-parringiak ere ez du gezurrik aipatzen lenbiziko agerkundeen egun beretan.

Aitzuloko gertaeren aitzakiarekin jende talde gaitzak bildu oi ziran beren jainko-zaletasuna agertu nairik, eta bilgu oiek etzieten agintari-ri onik egingo, noski. Beñarte atxilotzea, ergel bat balitz bezela norbaiterik bururatu zitzaion. Orregatik agintariak iru osagileen esku utzi zuten Beñarteren osasun-azterkatzea. Geroxoago osagille auen azalpenak emango ditugu; baña orra Beñarteren zintzotasunez idatzi zutena: "Rien ne démontre que Bernadette ait voulu en imposer au public". Andik ogei urtera osagilleetako batek, 1858'garrenean agertutako aburuak zuzendu bear izan zitun, esanaz, etzula beinñere esan izan bear Beñartegan iñungo atziperik izan zitekenik.

Bañan 1858'n gezur-salaketa ori egitera iñor ez bazan ausartu, 1905'n agertu zitzaigun Je-an Bonnefon, agerpenen atzipea autemateko gauz sala esanaz. Zer zion, ba, Bonnefon'ek eta nola erantzun berak darabilzkin eragozpenei? Bonnefon'ek dionez Pau'ko "Procureur imperial" Falconet jaunak, 1857'

garrenean neguaroan 28'an idatzi omen zion bere menpeko Lourdes'ko ordezkariari adierazten ziola: "des manifestations affectant un caractère surnaturel et prenant un aspect miraculeux se préparaient pour la fin del'année", eta "surveiller exactement les faits" agintzen ziolarik.

Jean Bonnefon'ek agerkundeak len-lendik gertuak zirala azaldu nai izan zun; Beñarte etzala antzerki baten notin nagusiena baizik.

Jean Bonnefon'en aizunkeria azaltzea e-tzan ain zailla izan. Agiri ori arkitutako tokiaren eske joan zitzaizkiotenean,, ingizartegirik etzuan aitatu; ez baizezaken aitatu, ez ingizartegirik, ez beste orrelako tokirik.

Lourdes'ko ingizartegia, gainera, mota guziko jendeak, agerkundeen aurkakoak eta guzi, ikustatu eta aztertua zuten. Ta iñork etzuan agiri orren aztarnik idoro. M.Chaigne agerkundeen eraso-zaille agertu zitzizigunak berak egindako "Le pays de Lourdes et ses environs" idazkian. M.Chaigne onek ere, Lourdes'ko aginterri-ordezkari zanean bere gisara ingizartegi guztiak billatu arren ere, etzuan ezertxo ere arkitu. Falconet'en eskutitz orrekin topo egin izan balu, etzuen zalantza aundirik izango noski, ura argitaratzeko.

Ain zuzen ere erki artan arrotz zana, berrogei eta zazpi urte geroago, Lourdes'era etorri bear izan zuan agiri ori arkitu zula ustearazteko. Baiña ez siñispide zeatzak ematearren, illun ta adikaitzak baizik.

Gaiñera, 1858'an Lourdes'ko agintariak aitzuloko gezurtza azaldu asmoan zebiltzalarik, agiri orren berririk ez balute bezala idazten diete bere nagusiei. Falconet'en agiriak dionez, oso errex gezurra azaldu zezaketen aitzuloko arrigarriak, lenagotik antolatuak zeudela. Baiña Falconet bera ere ez da ausartu bere buruari aurka egiñik, Paris'ko erkialduntzari idaztera: "L'enfant est halluciné, mais loyale. Elle a vu ou cru voir".

Oraindaiño eratutako zioak aski ez badira ere, ona emen Jean Bonnefon alegiatsuaren beste bi ezaugarri. Alde batetik, esandako eskutitzaren

agurtzak ez dira Falconet'ek Lourdes'ko bere menpekoari idaztekoan erabili oi zitunak.

Beste aldetik Bonnefon'en zion: "M. Falconet, à l'occasion des réceptions du nouvel an nouvel la ses recommandations au procureur imperial de Lourdes". Ona emen danon agirian Jean Bonnefon' en azpikeri iguingarria. 1867'an Lotazillaren 31' garrenean "Memorial des Pyrénées, Journal de Pau" aldizkariaren zenbakian dakuskegunez, 1858'garrenean Ilbeltzaren leen egun artan, Falconet jaunaren etxean etzen abegi edo artzairarik izan eta: "M. le procureur impérial général, empêché par des préoccupations de famille, ne pourra recevoir le 1^r. janvier.

Zio mukuru au geitzera dator orain gure neskatxaren zudugea. Ze goralden, ze aberaspidek zirika zezaketen gure Beñartetxo antzerki ura egitera; biotz apal, bakartasun maitalle zanari; Lourdes ta Nevers'en ozta aurrean agertze bakarraz, min aundia artzen zuen-eta.

Neskatxaren atazgabetasuna, urribizian bizi izan arren, danoi, baita jazarleei ere ondo ezaguna zitzaien. Dakigunez, sumindu omen zan bein bere anaitxoakin agerkundeen leen egunetan onek berari emandako eskartxo bat onartu zulako, ta bellar ondokoa eman omen zion.

Eta azkenik, gezur esaten orrenbesteko atsegiña ote zun? Joera onek, noski, sengabea zala adieraziko luguke. Baiña, sengabetasun ori azaltzea gauz errexa izateaz gaiñera, ezagunak batera baizeten zuten neskatxaren adimen-eina ezin abeagoa zala.

Gai au aituke utzi ez dezagun, Beñartetxoren gurasoz eta Lourdes'ko jaupaldiei buruz itz egitea egoki derizkigu. Agerpenak Beñarte'ren gurasoak asmatutako antzerki batzuk zirala iñork etzezaken aztartu. Aien barru-bultzo egiazkoak ez gaitu ezbaiean utzitzen. Egun aietan etzieten ez antusteak, ez ta ere jotanak eragin, ogitxo bat ere eskarraz ez oinartzeraño.

Eta apaizak? Peyramale erretorearen zurtasuna batzuetan gelegitxoa dirudigu; beti siñisgogor ta gertakizun aien azkena ikusi naia azaldu-

rik. Serres abadeak iskiriaz eta ixtaz danen aurrean itz egin omen zun beiñola agerpenen aurka. Pene jauna berriz, zalantzan dakusgu. Pomian apaiz, Beñarte'ren kristau ikasbide erakusleak, lenbiziko agerpenaren ondorean, dotriñan zeudelarik, neskatxari bere izenaz galdetu omen zion, zein zanik jakin gabe ta bere ikañleen errenkadan zeukala oartu gabe.

B) BEÑARTEK ETZION BERE BURUARI IRUZUR EGIN

Beiñarte'k zenesaigun oro ziñez ikusi us-te zuela, begikoa da. Esate baterako, Beñate'k etzi-gun marrorik egin nai izan; baiña bere erraiñu, lillura ta zorapenen jostailu izan zitekean, eta orduan, bere aldetik errurik gabe, bere atzipea aldatu zezaiguken. Agerpen aiek egiazkoak izan bearrean, ustekeri baten asmakizunak ez al ziran izan?

Izan ditezken okerbide guztiak zuzendu ditzagun bat banaka.

1) Lillura edo ustekeria

Geure zentzuen gezurrezko suma da lillura edo ustekeria; baiñan aurrean daukagun egiazko zertxo batek eraginda datorrena. Zorapena, zentzuen gezurrezko suma da bera ere, baiñan ez dator gure aurrean dagon atekiko izaki batek eraginda.

Askotan, aspaldin izandako ustekeri edo lillura bat, antzia zegoalakoan gu, eta gure animan izarrita zegoan. Gero bereala suspertzen da eta, gure begi edo sumakien aurrean ezer eduki gabe, barnean zorapen bat sortarazten digu. Adibidez, arrats illuna dalarik bidexka baten baña ba-goaz eta, bide ertzean dagon zugatzza erraldoi bat dirudigu bere beso luzeak gubanaiño edatu nairik. Irudipen oneri ustekeri edo lillura deitzen diogu. Ostera zugatzik ez dan beste bidexka batean lengo erraldoi ura gure aurrean ikusten badugu, ikuskantz oneri zorapen-izema ematen diogu.

Beñarte'ren amak, ustekeri edo lillurak

zirala esanaz, egerpenen lembiziko azalpena emango zigun. Alabaren oldozpenak burutik ezabatu nairik lenengo agerkundeen egun berean, Otsaillaren 11'an, Beñarte'ri auxe san zion: " Etzaitz berriz aitzulora joan; oiek ustekeri batzuk besterik ez dira-ta".

Aburu berekoak izan oi ziran neskatxa aztertu zuten iru osagileak ere. Epaillaren 27'an azalpen berbera emango ziguten: " Un réflét de lumière a, sans doute, frappé son attention, générateur de l'hallucination, que l'enthousiasme des foules mènera jusqu'à l'exaltation et l'extase". Ez ditek benetan argi dirdira aipatu, iparaldera begira dauden arkaitz urdiñarre batzuz mintzo geranean; ta areago argi izpi oiek amabost aldiz bederen, neguaroan, ta egunaren edozein garaitan, naiz eguardian, naiz goizaldiko bostetan gerta badira.

Beste batzuk, egiaren berri gutxitxo zekitelarik edo asmo txar geitxo zutelarik, umeen jolasetan ikusi izan nai dute amets oien iturburua, Lourdes'ko gertaera oieri beren buruauste ta giza txarkeriak ezarri nairik, noski. Bai, Lourdes'ko agerpenen etsai asko ibilli ziran aitzaki-maitzaki, edesti orren billa, eta 1921'garren urtean, Flamarion'ek berak ere umeen jolasetara jo zun "La Mort et son mystère" liburuan. Lourdes'ko Mme. P., emazte zalarik, Tarbes' en zegon 42'garren gudozteko Garido Tenientearekin bide txarretik zebillanean, astinduren bat eman omen zion Beñarte'ri, arkaitz zuloan "agerpenketan" jolasean arkitu zuanean.

Flamarion' ek, bere azalpen ori baiesteko, Martin de Pau'ren itza dakarkigu. Marsella'ko Beranger kanonikoa guda gizon onengana joan zitzai-gun, ipui aren kontu eskatzeko, nunbait. Urteak makurtuta zeukaten agurearen ezpainetan, danen begien bistan bidegabekeri zana besterik etzun arkitu: " Lourdes'ko apaizak agerpen oien itzik atera izan balu, besterik gabe Tarbes'ko Gotzai Jaunak bere erretik anka eginaraziko zion".

Baña itz oiek, 1858'garrengo gertaeren argitara, ergelkeri lotsagarri bat besterik etzai-kigu azaltzen; urrutira gabe daukagu susmur orreri dagokion erantzuna. Dalako 42'garren gudozte ori etzan arkitzen Tarbes'en garai aretan, Cherbourg

izeneko urian baizik. 1847'etatik Saint-Cyr Akademi-
mitik irten zan Garido teniente bakarra, Toulon'
en34 garren gudoztean arkitzen zan 1858'garren ur-
tean. Eta bere dalako gaizkideak, berriz, Lourdes'
ko udal-etxeke ingizartegiak dionez, Otsaillaren
8'n izan zuan aurra, izenez Emma Marie Françoise,
Nola zitekean ba Mme. P., andik iru egunera, au da,
illaren amaiketan, izotz gogortutako iturri bazte-
an arkitzea?

Garai artako izparringietan ere ez degu
edesti-txar onen aztarnik arkitzen, naiz ta grina
txarraren paltik ez izan Lourdes'ko Amaren dizdiak
lausotzeko. 1879'n argitara bear izan zuen, nork
eta Lourdes'ko agerpenen etsai porrokatu zan "Le
sicle" aldizkariak. Eta, egia esan, argitalpen
ura bere antzeko izparringiai berei ere etzitzaien
batere txalogarria izan. Ez ori bakarrik; epaila-
riak berak ere gaitzetsi bear izan zuten. Azkenik,
Flamarion bera, idaztiaren bigarren argitaldian,
gauzaren berri obeto ikasirik noski, aitzaki billa
ibilli zan.

2) Z o r a p e n a

"Toute révélation est une hallucination.
La religion relève de la médecine. Ses ondateurs,
ses grandes personages sont des malades" garai
artako belarri askoren atsegingarri ziralako onelako
leloak gogoan badegu, ez gera ez arri egingo, Lour-
des'ko goraberen korapilloa askatu naian zorapene-
tara jo zutela jakitean.

Izan ere, nork baztertu agerpen gai oetan,
zorapen ote ziran bildur ori? Or daukagu, ordea,
Benedikto XIV'garrenaren santu-kanonizazioai buruz
ateratako araudia. Gure etsaien itz minkorrek baño
garbiago erakutsiko digu egia. Orrela zion Mgr.
Laurence Tarbes'ko Gotzai jaunak berak ere, "au
Prefect des Hautes Pyrénées, Baron de Massy"ri
idaztean: "Hallucination, c'est possible, très po-
ssible, c'est même Très vraisemblable".

Eleiza gure ixpillu degularik asi deza-
gun ba azterketa griña txar zitalkeria alde batera
utzi eta, adimen argia lagun degularik.

Zola idazlearen iritziz, Beñarte txikitari
Bartres'en neskame zala, kontzientzipe illunean

gorde zituán amets-irietara joan bear giñake argi billa. Aravant apaiza, bere antziñako iñude ta orduko etxeakoandreaaren anaia, jardun zitzaión ixtori-kontari; ipui oietan an nunbait izango ziran "La Salette" zeritzaionaren agerpena. Edo-ta etxejaun Basilio Lagües'ek Idazteunak irakurri zizkion, arratsetan beko suaren babesean. Nork daki, Zola'k dionez, zenbat bider neguko Eleiz-batzarretan loak artuko zuan Ebangelio edo Berri On idaztiak entzuten ari zan bitartean? Zola edesti edo nobela idazlaria danez, irudi-jolasak ditu amets-gai; irudi nardo oiek, ordea, Beñarte'n bizitza garbia, ur garbia bezin garbi ta bare, loitu edo astindu egin zuten.

Beñarte'n burutik ez baiziran igaro Bartres'en zegonean Zola'k ezarri dizkion amets oiek. Aravant apaizak ez baizun, esateko, iñoiz ikustatu bere arreba garai artan. Lagües jaunak, berriz, etzekian irakurtzen. Beñarte'k lo-kuluxka gutxi bota zuan Bartres'ko elizan. Nundik gero, Zola'ren idaztgai izan ziran batzar aiek, iñork ez bait zituán ikusi? Bartres'ko erri-batzarra 1894'garren urtean izki-mizki oien aurka nabarmendu zan eta iritzi batez nabarmendu ere. Duzous sendagilleak, naiz-ta siñisgabea izan, bildurgabe adiera eman zigun: "Des aberrations de ce genre n'étaient pas entrées par contagion dans la tête enfantine de Bernadette".

a) Zorapena baldintz aldakaitzak inguratzen dute

Massabielle-arkaitz-zuloko gertakizunak zorapen-fenomeno batzuk besterik ez dirala diotenak oker daudela adierazteko, zorapen eta agerpenen onduan dagon aldea neurtu besterik ez dugu. Psikolojiari buruz idatzi berri diran estudioak nai aibat argi emango digute gai ortan. Goazen ba ikaskizun batzuetara.

Zorapen-fenomeno onek, bai sortu ta bai bizi al izateko, egurats edo giro berezia bear du. Baldintz berezi oiek bear-bearrekoak ditu zorapen-fenomeno orrek. Eta era berean, baldintz oiek badiugu, nai ta nai ez sortuko zorapena.

Baldintz edo kondizio oiek inguratu al zuten gure Beñarte neskatxoa, zeru-goitiko berri

onari buru-belarri egon zitzaion bakoitzean? Ezetz esango genuke. Batean, adibidez, Otsaillaren 11'an, bakar-bakarrik dagonean azaltzen zaio zeruko Ama; bestean berriz, Epaillaren 4'an, amabost edo ogei milla lagunez inguraturik arkitzen da. Belauniko eskari egonalditxo bat egin ondoren datorkio geienetan; Otsaillaren 11'an, ordea, bate gabe, bat-batean, oñetakoak kentzen ari dan bitartean; Epaillaren 25'an berriz, Beñarte arkaitzera dijoanerako an dago Ama Birjiña arros-zugazpean. Ez du garai berezirik, noiznai agertzen zaio: lendabizi, eguerdian; urrengoz, bazkal ondoan; eta azkenik egun-sentian, geienetan. Batean, errot. errekaren eskubi aldean zutik zegoala; bestean arkaitz sarreran belauniko dagon bitartean edo oñez dijcala; eta erreka atzetik ezeze, Gave ibaiaren beste aldetik ere bai, adibidez, erri nagusiak agerpen tokia inguratu ziotenean.

Beñarte'k, ba, ikusi izan zun agerpena; bai bekauniko eta bai zutik; gaur emendik, biar andik; aurrez-aurre edo urrutitik; eguerdian edo illunabarrean. Au da; ez du Beñarte'k baldintz edo kondizio berezi bearrik agerpena ikusteko. Ori ez, ordea, izan zorapen-genomenuetan gerta oi dana.

Baño ori baño arrigarriago dan gauz baten aurrez-aurre gaude emen: adibidez, naiz ta baldintz eta kondizio oietan Beñarte arkitu, etzitzaion beti agertzen Ama Birjiña. Onek zer adierazi nai digun ulertzeko, artu dezagun zorapen edo aluzinazio dun norbait bere krisis garaian eta ipiñi dezagun bere toki, bere egoera, bere eragipen bereziz inguratua; bereala bat-batean, nai ta naiez izango degu zorapen edo aluzinazio ori gure bigien bistan. Beñarte'ren agerpenetan ez degu orrelakorik arkitzen. Esan bear, ain bereziki ezagutzen zun arkaitz zulo aretan, len-lengo ikustaldia aurrerantzean nai ainbat aldiz ikusiko zuala aluzinazio agerpen ori; bañan ez, naiz ta bera beti Ama Birjina ikusi zale izan, bi bider ikusi gabe etxera itzuliko da. Zorapen edo aluzinazio izan balitz, nundik norakoa bi egun oietan ezin ikusi ori?

Onela, lau egunetan lau aldiz azaldu zitzaion zeruko Ama zeru goitiko atsedean pozez Beñarteri biotza alaitzen ziolarik. Otsaillaren 22' go astelean or dijoa gure gaztea irudipenean zera-

man zoriona bere esku aurki izango zualakoan. El-
du zaigu arkaitz zulora, baita begirunerik aundie-
narekin belauniko jarri ere; errezatzen du beti be-
zela errosarioa arros-arbola edo zugaitzera biurtu-
az, begi-biotzak eskari uts egiñik. Baña legor arki-
tzen du gaur Zerua; jaiki eta danen aurrean, etzaio-
la zeruko Ama etorri, dio. Etzegon arpegira begira-
tu besterik; etzeukan "extasis" garaian izan oi zi-
tun argi izpirik.

Urrengo egunean, Otsaillaren 23'an, bai e-
ta aurrerantzean ere, Epaillaren 2'garreneraiño.
Epaillaren 3'an or dijoa Beñarte arkaitz zulora,
berriro. Belauniko otoitzean ari da. Atzo eta era-
negun bezelaxe egin du guztia; baña gaur ezetz. Ez
datorkio, ez "extasis" ta ez begi-etzpañetako alda-
ketarik, naizta berak, aurretik, amabostaldian agertu-
ko zitzaiola egunero, esana izan.

Izan ere, ez bai zeuden ez Beñarte' ren
esku eta ez aren naita ustetan, alik eta bizienak
izan, uste ta nai oiek. Ez dugu arkituko ez Beñarte-
ren eta ez aren ingurukoengan, Ama Birjiñaren ager-
pen egizko zimendu izango zaien oñarririk. Ez de-
gu arkituko "automatismo" utsean agerpen oiei dago-
kien jatorria; Beñarte' ren gogo ta izatea baño u-
rrunago dagon ta oldez ta auzuki ari dan zerbait
izango degu agerpenen iturburu. Orregatik, berak
nai baño itxarote luzeagoak eramán izan bear zitu-
an agerpen bitartean; adibidez, Epaillaren 4'tik
25'ra; 25'tik Jorrallaren 7'ra; eta emendik Gara-
garrillaren 16'ra. Geroztik... etzan beste agerpen-
ik izan.

Zorapenak ez du orrela jokutzen. Antxiña-
koak "fatum" deitu zuten izakeraz jantzia agertu
zaigu; ez degu inoiz ikusiko, onela esateko, bere es-
kuko dan zorapen fenomenorik. Auen izate eta izake-
raren iturburu, itsu-itsuan jardun oi duten baldin-
tzak ditugu.

b) Zorapen ondoreen agortasuna

Begira dezagun zorapenaren beste alderdi
bateruntz; fenomeno au emaitz gabeko zuaitz antzo
dugu; ondorengorik ez dun abizenaren gisako da.
Zorapenal eraginda ari danak ez digu gauza berririk

ekarriko. Ez du ezertxo ere sortzen bere gaixo-ametsetan irudipenak dakarzkion ikuskantz oien birtartez. Len izan ditugun zentzu-suma eta oroipenak aldatu edo berritu besterik ez dizkigu egiten. Bere lengo irudiak eragille ez dituan irudirik ez dauka zorapenak. Atzi izan genitun zentzu-sumak ditugu gaurkoen eragille. Geien geienez, antxiñako oroi-garriak alkartu eta batu ditzazke, ez-egoki edo itxura gabeko zerbait egiñaz. Jatorritik gor edo itsu danak inoiz ez du zorapen-"krisis" aldian, eresintasun etsedengarririk edo eleski ikusgarririk izango.

Beñarte'tzaz ezin genezake orrelako aundirik esan. Gauze berririk asko nabarmentzen dizkigu onek, "extasis" garaian. Inoiz ikusi eta ikasi eziñekoak gaiñera. Ori ageri da Aita gure, Sinisten dut eta Agur Mari otoitz garaian Ama Birjiña ixillik agertze orretan; Gloriapatri'rakoan bakarrik egiten du otoitz. Beñarte'k, egia, etzun inoiz teologirik ikasi, baiña garbi azaldu zitzaion ala ere teologilariak dioten ura: Gloriapatri eta onelako otoitz besterik ez dutela zorionekoak zeruan.

Beste adibide bat oraindik. Jorraillaren 25'eko agerpenean dugu adibide ori. "Que soy era Inmaculado Concepciou" itz aiek lendabizi Beñarte'ren aurrean esan zituana, Ama Birjiña izan zan. Tolesgabe eta ezjakin zan ume-adimen ark etzitzazkean goizeko intza bezin garbi eta dogma sakon baten jantzi ziran itz aiek ulertu. Gizon aotik jasoak etziran itz aiek. Aaztuko ote zitzaizkion bildur zan gaixoa... Argi ta garbi, tolesgabeki, aldatu edo urratu gabe eraman nai izan zitun itz aiek erriko apaizarengana... Eta asn dijoa bide guztian eten-gabe zeruko Amaren agindu-gordairua berrituaz, naiz ta aldiz-aldi oker esan itz oiek. Bere estuasunean onela dio Mll. Estrade'ri: "Zer esan nai dute itz oiek?"

Itz oien zeruko dirdaien ulerpide Lourdes' Ama Birjiña'ren irudia bera dugu. Eredu guztiz berezi bat agertzen zaigu irudi orretan. Eta eredu berria benetan; ez noski Beñarte'n ametsetan sortua. Ordurarteko irudirik ederrenen artean ere guztiz ederra dirudi. Ez Lourdes eta ez Bartres'en -ez baizan erri euetatik aldendu- etzun inoiz ikusi orrelako irudirik. Naiz irudi zati bakoitzari,

naiz irudiari berari begiratu, berri ta berezi zan Lourdes'ko ama Birjiña. Zeatzez, agerpenak erakutsitako irudia zalako. Orrela, ba, agerpenen egiari so egin nai ez diotenak ere, Lourdes'ko irudia ez dala Beñarte'n irudimenetik sortua siñistera bear tuak daudela arrazoiak deadar egiten dogu. Ori ageri zaigu beintzat psikologi ikaskizunen argitara.

Lourdes'ko irudiaren berritasuna baiño arrigarriago dugu oreindik bere edertasuna. Ezin genezake gai onetan bear bezin zeazki epai-iritzia eman, Fabisch egille dun irudiari begiratuarekin bakarrik. Edertidi guztiak beren egiñeri ederti-arauak ezartzeko arkitzen dituzten eragozpenak diralata, edo gure neskatzak bere irudian izakera ikuserazteko mintzo egokirik etzualako, dana dala, Lourdes'ko atxurdin irudiak ez du Beñarte'k beregan, amets gozo antzo, zeraman irudiaren edertasun dirdairik. Onela zion, Fabisch'en atxurdin landua bere begi aurrean ikusi zuanean: "Au ere ederra da, bai, baiña ez ura bezin ederra; zerua lurretik bezin urrun dago Ama Birjiñaren edertasuna irudi onenagandik."

Eta itzez esan ezin zezakeana begiz ta aurpegiz adierazten zun. Arreri orduan begiak zorroztea, a zer lilluragarri... Ala zion M.Fabisch'ek: "Ez dut iñoiz ikusgai zoragarriagorik nere begien aurrean izan; gotuts eta illezkor zan zerbait zirudin, "Sortzez garbia naiz Ni", esatean. Bakunki, begirunez beterik, eskuak bular gain eta begiak zerurontz jasoak oroitzen zan zerutar itz oietzaz. Ez Fray Angelico, ez Rafael eta ez Perugin'ek etzuten egundaiño ura baiño ezer itzalgarría, tolesgabe eta garbiagorik ikusi".

Eta egoera ori etzan nai edo ustegabekoa; Ama Birjiñak zeru goitik ekarri ta an bere barruan Beñarte'k zeraman irudia zan. Ori bera esango digu geroxeago edertidiak: "Nik Beñarte'ri "pose" ori eskatzen diotanean, bereala datorkio zerutar garbitasunez dirdir egiten dun egoera ori; negarra-ri emanazitzeko gauza da benetan".

Gure ustez, deitu dezaiekegu gaixotegi orotako sendagillei, galdezka; alègia, beren eskuetan izan dituzten zorapen-gaixoen artean ia bakarren bat eduki al duten, Beñarte'ren antzera. oroipen utsez zoramen-krisistzat oroiturik, ark

eginarazi zuan antzeko ederti-lana ikūsarazi zezakenik. Zorapen gaixo ori dutenak ez baidute beren esku krisis garaian eduki dituzten keiñu, itz eta abar nai bezela gogoratzea. Izan ere zorapen gaixo ori dutenak gizagaixo batzuk beste ez baidira.

Baiña urrutitxo jo dugu. Beiñarte'n agerpen eta iñoren zorapenen artean dagon alde a-dierazteraiño eldu gera; egia esateko, azalpen au gure lanaren urrengo atalari egokiago legokio, edo beintzat, agerpen ondorenak aztertzean garbiago agertuko litzake.

Alde batetik, izakera edo iza-legea. Muker, petral eta beroki biurtzen da bereala zorapendun gaixoa; adimen indar-argia apurka-apurka aultzen dijoakio; bere mintzaera, itz ero eta biurritz josia arkituko dugu; osagabeko esaera ugari eta lege-bidez elkartutako arrazoi gutxi. Izan ere, len genionez, zorapendun umea gaixo bat besterik izan ez. Eta gaixotasun orrek gaiñezka bezela egiten du zorapenaren bidez. Orregaitik, gaitz au bere gain duanak, an nunbait izango ditu ortik sortzen diran ondorenak ere, adibidez, zuzentasuna eta gizartezaletasuna galtzea.

Lourdes'ko agerpenak ez dakarzukiote Beiñarte'ri orrelako ondorenik. Gure neskatxak alai, leial, iztun ta zintzo jarraitzen du. Barnean jaio zaion Jainkozaletasunak egan darama goraka-goraka santutasunik aundieneraiño; erbeste onetan beste siñistun askori ain latz zaien arantzabidea izango zaio berari atsedengarri. Eta gero deuntasunezko burestun jabe eta kristau guzien jarrai-bide eta bitarteko.

Agerpen ondorean, ba, Beiñarte'ren adimen-buruak beti len bezin argi eta zentzudun jarrai zuten; ikastaroan etzuan oztopo eta eragozpen berezirik arkitu; agerpenentzaz galdezka iñor bazi-zijoakion, zorapen gaixo diranen antzera buru ta zentzuna galdu bearrean, lendik argi zuan gogoa, bizi ta erneago egiten zitzaion.

Lourdes'ko alatzaz ere zerbait esan dezagun. Nundik eta nola eraman zezaken zentzu-naste batek, bat-batean, nai ta uste gabe, iturri berria

sortu zan tokira, egunean 122.000 litro ematen zitu-
tuan iturrira? Gertaera arrigarri onen azalpen edo
zioa oraindik emateko gaude gizonok.

Voisin sendagilleak alegiñak egin zitun
Lourdes'ko gertaerak zorapen-igaliak besterik etzi-
rala adierazten. Onela zion, "Courrier médical" zer-
ritzaion aldizkarian, 1862'garrengo Garagarrillaren
27'an: "Le miracle de Lourdes est affirmé sur la
foi d'une enfant hallucinée qui est enfermée chez
les Ursulines de Nevers". Amaika ba-dira arrezkero
Voisin onen itzak baieztu eta egitzat artu dituzte-
nak; baiña ez da naikoa jakintsu-itzak izatea, bes-
terik gabe ontzat artzeko. Ikusi dezagun eztabaida
onen bukaera. Urte artako Uztaillean, "L'Univers"
izparringi bidez Artus'ek Voisin'i kopet eman zion.
Etzan naiko, Artus'ek zionez, Beiñarte giltzapean
burua galdu ta Ursulinen lekaimetxean arkitzen za-
la eta onelako beste esamesak zabaltzea; egiztatu
zitzala gauz oiek nai zuanean. Beiñarte'ren senda-
gille eta Nievre'ko sendagilleen buruzagi zan Robert
Saint-Cyr zeritzaion osagilleak, orduan, L'Oise'ko
sendagilleen buruzagi zan Damoisean'engana jo zuan
azal-gai oneri argi egin nairik. Robert Saint-Cyr'
ek zionez, Beiñarte bere gaixotegian gaixo-zai ze-
gon, izakeraz guztiz paketsu, gozo eta tolesgabe
zan, eta bere jokaera aintzakotzat artzekotaz, etzan
neskatx ura zoro ikusi bildur aundirik. Onetan,
Nevers'ko Mgr. Gourcade Gotzai Jaunak ere "L'Uni-
vers" aldizkari bidez eskutitz bat argitaratu nai
izan zun; Gotzai Jaunak zionez, etzegon ez Beiñarte
giltzapean, Karidadeko lekaimetxean baizik, eta ez
Ursulinetan, Voisin'i entzun genionez. Gotzai Jau-
nak, azkenik, Nevers'era deitzen zion, nai bazun,
bere begiz Beiñarte aztertu zezan.

Zer erantzun zun Voisin sendagilleak?
Ixillik utzitzea iruditu zitzaion joerarik egokiena.
Balencie sendagilleak, Beiñarte aztertu ondoren,
1878'n agertu zituanak ikusita ere, ez die Voisin'ek
bere esamesai uko egingo. Onela zion Balencie sen-
dagilleak: "Nous étions frappés, déconcertés en con-
sidérant non pas une de ses visions mais leur conti-
nuité. Ce qui nous rendait encore peu acceptable la
théorie de l'hallucination, c'était la variété et
tout ensemble l'unité des phénomènes dans les di-
verses apparitions. Nous ne comprenions pas pourquoi
le même sujet, dans le même lieu, dans les mêmes
circonstances, avait été deux fois impuissant à

voir ce qu'il avait vu tant de fois".

3) Beste gaitzen batzuk?

Beste gaitzen batzuk ote ditugu Massabielle gertaera auen iturburu? Goazen, ba, katalapsi, erotasun eta urdalen azterketara; azalburu onetako baldintz au ere baztertu dezagun.

a) Katalepsiari buruz

Lourdes'ko gertaerak lenengo izan zituzten etsaien artean, ba-ziran agerpenen oinarriztat katalepsi-gaitza artu izan nai zutenak; eta, egia esan, ez dakigu etsai izena baiño ez-jakin-izena egokiago ez ote letorkien. Etzekiten katalapsi-gaitza zer dan, edota bestela etzituzten Beiñarte'n izakera-jokaerak bear ainbat ezagutu. Dana dala-ta, ez jakiñik nabarmenenari erantsi dezaiozun oztopo ori.

Katalepsi-gaitz duanari odola nasi dabilkio bere zaiñetan, giarrak eten bearrean dituala. Krisis aldian soin-alderdi guztiak zail eta gogor egiten zaizkio; besteak ezartzen dion egoeran gorputz-illotz baten antzera zuzen eta gogor gelditzen da. Krisis ostean, berriz, neke eta biotz-taupada bereziak ditu, gertatu zaizkion gauzetaz zear azturik.

Beiñarte'ri etzaio orrelako ezer ageri. Arkaitz zuloan, bere buru ta naiaren jabe arkitzen da, bere itz eta egiteen jaun. An dabil belauniko batetik bestera agerpen tokian, beti ernai, buru-belarri, beti pizkor. Dozous irakasleak ere, sendagille zanez, ikustatu nai izan zuan Beiñarte agerpen aldian; beti bezelako arnasa ta biotz-taupadak arkitzen dizkio; agerpen ondorean lasai ta bare buru-soiña.

b) Zorotasun gaixoa

Ba-ziran ere gure Beiñarte uzkol-zorota-

sunak erasandako gaixotzat artu zutenak. Etzuten ez ondo ezagutu, ez ta aintzakotzat artu ere orduko danari garbi ageri zitzaizkien ainbat argibide.

1858'garrenean etzekin artean ez irakurtzen eta ez idazten. Oroimen lanean ere, etzan argiegi. Ala ere beti zentzudun azaltzen zan, ernai eta bere eskuko; eztabaida guztietan gertu zegon bear zan erantzuna iñori emateko; alotzak erasandako gaixo bat ezta iñoiz aintzakotzat artua izan, Beiñarte bere ingurukoak artu zuten bezela. Usmo zorrotzeko oarlari zan Dozous sendagilleak idatzia: "Bernardette était donnée d'une sage raison, d'une rare bonté et d'une intelligence ordinaire qui ne pouvait d'aucune façon la disposer à l'exagération d'idées et de pratiques religieux".

d) Urdalen edo isterismo

Beste batzuk azkenik adimen argia lausotu nairik urdalen edo isterikatzat artu zuten. Au izan zan Beiñarte ondo ikustatu orduko jakitunen e-pai-iritzia.

Urdalen edo isterismoa duanak iñoren aurrean arkitzen danean ezezik, bere baitan ari danean ere, bere biziko irrika bat nabarmentzen du: Dan baiño geiago izan, bizikideak baiño geiago bizi; antzerki bat baiño ez dugu aren bizia, bere egiazko bizikeraz aztua bizi baida. Orrela, gezurrezko, ezin besteko bizikera azaltzen alegiñtzen da. Guzi-entzat ikusgai eta ikusgarri izaten dan zaletasun ori ez da jakiñen gaiñean sortzen zaion gauza. Bes-teen gain azaltzeko dun zaletasun onek zeleta bizi batera eragiten dio; gaiñerakoan begiak beregan jartze ori iristeko besterik ez bada, gaixotasun eta neke latzak beren lepo artzeko ere bildurrik ez dute.

Beiñarte'ren inguruko gertaerei begiratzea besterik ez daukagu urdalen susmo gai au garbitzeko. Bi itz dira gure neskatxaren bizi guztia-
ren mami eta bere biziko azalpen: tolesgabetasuna eta egizaletasuna. Bai arkaitz kutunera bidean, bai agerpenen garai guztian, garbi eta erabat iraunkor ageri zan Beiñarte'n jokabide tolesgabea. Onela zion bei eta berriz gure neskatx gaixoak: "Utzi iezu-

te beren jardunean; nai dutena esan dezatela; e-tzaio ajolik..."

Eta egiteak esanak zijoazten bidetik di-joaz. Au ikusten dugu, ikastetxean, aundinairik txikiena ere baztertuta, nola ari zaion bere lanari: irakurtze ikastea dala edo idazle lanari ekin bear zaiola. Jolas garaian, berriz, besteak ainbat alai dugu; bere ezagunen batek ikustatu nai dula eta deitzen badiote, an dijoa Beiñarte apal eta lerdan, amaren esanen bat egitera balijoa bezelaxe.

Ori bera esan genezake gero lekaime zala Nevers'en egiñ zituan amabi urteetaz: ez da iñcoiz txalo zale izango; ixil-ixillik bizi naiko du; ez du begirume berezirik eskatuko. Goikoak etzeuden egon ere orretarakoxe. Beste edozein bezelaxe zan Beiñarte bere gain zituenen aurrean; eta nork daki bat edo beste baiño gutxiago ez ote zan izan. Bein bakarrik eman zioten baimena agerpenetzaz itz egin zezan; Lekaimetxera eldu eta urrengo egunean. Aundinai edo bere buruaren aurkezte nabarmenik agertu ote zun? Beiñarte mintza zale zan baiña jakinmiñago ziran lekaimeen bat baiño geiago baziran, noski, bere inguruan. Bein baiño geiagotan, diotenez, lagundu bear izan omen zion lekaime-buru egiten zuanak, Beiñarte'k bere itzalditxoa bukatuko bazun.

Gai au amaitu aurretik beste zerbait gogoratu bearrean aurkitzen gera. Ez da berez gizoneri dagokien jakintza Lourdes'ko agerpenetzaz azkenengo itza esan bear duana. Jainkoaren esku da Mas-sabielle'ko gertaeren goi-ezaugarria gure begien bistan jartzea. Arkaitz zuloko ur garbiak errieta-ko jendetzearen zauriak garbitzen dituzten antzera, Lourdes'ko alatz-mirariak zurituko dizkigute gure ezbai edo zalantz-izpiak. Ez da gure egitekoa gai onetzaz itz egitea, baiña etzaigu geiegizko etorri-ko egi au gogoratu izana.

**** *
**** *
**** *
**** *

Egiñen bidez ezagutu oi da egillea. Era berean, emaitzen bitartez ezagutzen dugu zugaitz mota. Onela, Lourdes'ko emaitz-alatzetatik ezagutu dezakegu ango gertaeren jatorri zerutikoa.

Beñarte'k zintzoki joakatu zun beti; Beñarte'k etzion ez bere buruari, ez bere ingurukoeri iruzur egin. Orrela eriotzeko orduan 1879'ko Epailaren 16'ko aguardi gogoangarri artan, Ama Birjin irudiari begira ziur eta zeatz esan zezaken: "Ikusi nun nik; bai, ikusi nun; zeinen ederra zan; a zer pozik berrikusiko datan".

III.- ELEIZAREN EPAI-IRITZIA

Lourdes'ko gertaera oek dira eta argigarbi agertu zaigu Eleiza-Amaren gai oetakiko zentzutasuna. Naiz ta lendabizi, bai Lourdes'ko apaiz nagusia ta bai Tarbes'ko Gotzai Jauna siñis-beldur izan, bereala asi ziran zalantz-bildur oieri toki ematen. Laurence Gotzaiakiko jokaerari dagokionez, 1858'garren Epaillean otoiketa eta buru-auste saminetan arkitzen dugu; bere bizkar baizan auzi-erabakitze lana, eta bestalde, Lourdes zala-ta, zerutik zetozen emaitz-graziak nabarmen asko agertzen ziran.

Eleiz Nagusien aldetik etzan izan larritasun aundirik. Itxaroteakin ez baizun ezer ere galtzen... 1858'ko Uztaillaren 28'arte etzan aurre-rapen aundirik egin. Egun osetan izendatzen zun Laurence Gotzai Jaunak batzorde saila, egia, zan bezela agertu zezaten: "dalako arkaitz zulo aretako agerpenen berri eman zezatela; eta agerpenak egizkoak baziran, beren zerutiko izakera baieztatu zezatela".

Eldu da Azillaren 17'garren eguna. Massabielle'n batzordeko bederatzi apaiz eta beste la-reunenbat lagunuen aurrez-aurre, galdezka bizian ari zaizkio Beñarte neskatxari. Iru bat ordulaurden egon bear izan zuan Beñarte gaixoak arkaitz eta apaiz aien galderapean. Neskatxaren begi-arpegietan beti bezelako begirune-lotsa ageri zan; Bere biotza beti bezin bare ikusi ziteken. Bakarrik edo lagun eta gurasc aurrean zegola zirudin; ain agertzen zan bere buru jabe.

Galdeketa auek 1860'ko Lotazillaren 7'na arte eten gabe jarraitu zuten; eta oraingoan Laurence Gotzai bera batzorde-buru zalarik. Etziran, ordea, onekin batzorde lanak amaitu... 1862'garren urte arte etzan argitaratu Laurence Gotzaiaren bidez Eleizak eman zun epai-iritzia. Egi billa geure al-

detiñ alegiñak egin izanagtik, Tarbes'ko Gotzaiaren epai-irritziak sinisle on adimenari geiago egingo diolakoan gaude.

1862'garren urteko Ilbeltzaren 18'an agerpen-idazti eder batean, zeru goitiko agerpenak ez dirala lenengo gizaldietako gauza bakarrik baieztu ondoren, mendez-mende iraun dutela Eleizaren aintza eta jarraibiderako agerpen oiek, dio Tarbes'ko Gotzai Jaunak. Eta gero Beiñarte'ren agerpenen berri ondo eman ondoren "14 urteko eta sendi beartsu bateko munduaren begietan txit besteen oinpeko zan neskaxa" Laurence Gotzai Jaunak batzorde eta jakintzak eman zituan oarrazpenak erabat dakarzki.

"Ziur nago, ari da Gotzai Jauna, agerpen oiek zerutiko eta jaungoikozkoak dirala. Nere sinismen argibide, batez ere Lourdes'ko gizon on arrazoi-en gainetik dauden gertaerak ikusi ostean, Beiñarte eta bere itz, egite eta izakerak dira. "Beiñarte'ren sinispide ori, beste gabe, gure sinismen eske badago ere?" geroztikako gertaera arrigarriak sinismen ori baieztara oraindik beartuago egiten gaitu".

Laurence Jaunak, berez indar berezirik ez dun uraren bidez egindako biotz-aldaketa arrigarriak azaltzen dizkigu. Sendatze oiek Goikoak badira, oien iturburuak ere zerutar izan bear. Eta onela jarraitzen du Gotzai Jaunak: "Jainkoagandik datorren gustia egi utsa bada, Beiñarte'k entzun zitun "Sortzez garbia Ni naiz" itz oiek, zeruko Ama dute egille. Biotzez esan dezakegu, ba, Jainkaren eskua azaltzen zaigula emen ezaugarri. Lourdes'ko erritarrak poztu zaiteste. Zeruko Ama agurgarriak zuen jarri nai izan ditu bere begi errükitsuak-eta. Auxe da Ama Birjiñaren naia: zuen erri erdian bere Sortze Garbiari eskeñitako Eleiz bat jascarazitzea, Eleiz orren bidez eskerrik uzarienak ixuri dezaizkizuen". Eta onen ondoren jakiñak arabakiak datozte: "Nous jugeons que l'Immaculée Marie, Mère de Dieu, a réellement apparu à Bernardette Soubirous, le 11 Février 1858, et jours suivant, au nombre de dix-huit fois, dans le grotte de Massabielle, près de la ville de Lourdes, que cette apparition révet tous les caractères de la vérité et que les fidèles sont fondés à la croire certaine".

IV.- LOURDES'KO BESTE SASI AGERPENAK

Egizko agerpenak aztertu ditugun ezker, egoki dagola derizkigu sasi-agerpenak ere gure begiek zorroztea.

Geiegizko agerpen-ugaltza 1858'ko Epailletik aurrerantzean, au da, 1859'ko Otsaill'arte, Lourdes eta Lourdes'ko inguruetan izan zana; eta ez ori bakarrik, urrutitxoago ere zabaldu ziran sasi-agerpen oiek; au da, Hautes Pyrénées erri-barrutitik kanpora, adibidez, Saint-Palais, Bas Pyrénées, Farges, Landes Pontet, Gironde'n eta abar.

Sulezetik ote zetozen erabat agerpen oiek? An ere, gerta oi dan bezela, danetakoak izango ziran. Batzuk, noski, beren barruko dei arrigarrien bati erantzuten zioten; beste askok, geienak agian, bere izakera illun, inozu, aundinai izate edo gezurrezkoa zuten agerpenen iturburu. Eta bat edo beste izango zan asmo biurriak eraginda zebillena. Ez jakin nundik noraino diran aztikeri agerpen oiek; ez baidakigu nun asten dan gizonen oargabeko azpikeria eta noraino dijoan giza-etsaiaren Lourdes'ko egia gezurtatzeko asmo maltzurra.

Jende gizagaixo onen berri ateratzean, ez genuke esan nai inoren aurrera Satan'en egiteak atera nai ditugula; geuzr-agerpenen ondoan egi-agerpenen argi izpiak irargitzea dugu elburutzat.

Neskatx batek, emakume antzeko zerbait ikusi uste izan zun; beste batek ere arri baten gainean zerbait ikusten zuala zion, au da, amar bat urteko umea. Eta irugarrenak, lau urte inguruko ume txiki bat. Irurak batera deadar egin zuten: "Ama Birjiña maitea, zeinen ederra zeran; a zer nolako ille polita duzun". Eta aitz-negar bat besarkatu zuten.

Neskame batek arkaitz zulo sakonean lur-rin antzeko zerbait ikusten du, baiña ez, dionez, giza itxurako ezer. Onela zion oraindik beste gazte batek, zugaitz batetik bestera ikusten zuala agerpena: "Ama Birjiña izango zan, noski, baiña nik ikusten nunak gizon arpegia agertzen zun; noiznai aldatzen zitzaion arpegia; aldiz-zldiz bizarra ere ba-zun".

Ikusten zituzten gauz oiek urduri ez baziran ere, ikusleen kemen eta ibillerak parregarri ziran, edo beintzat zerutik zetozen itxuta gabeak. Negar-zotiña eta beren soiñen astinketa noiznai. Gazte bat arkaitz zulora urbildu orduko izu-larri biurtzen zan, bere buru-biran itzulka egiñaz; zentzua etorri orduko, lur jota, goibel eta indar gabe alde egiten zun; egoera arretzaz zerbait galdezen bazitzaion, etzala bere naiaren jabe zion, eta an arkaitz zokotik zetorkion indar izkutuko batek egiñarazten zizkiola gauz aiek.

Ibai aldera amilka joan ziranak eta Gave'ra edo arkaitz goitik beren burua bota nai izan zutenak ere ba-ziran.

Igokunde egunean, Maiatzaren 13'an, bata besteak atzetik zoro-aizek betetako bi aurkeztu ziran arkaitz zuloan; bata, zearoz zuriz jantzia zegoen eta bere biziko kapel luze bat zeraman buruan; bereala zan deadarka gizadia zigortzera Jainko ta Ama Birjiña'k bialitako igarle zana esanaz. Besteak erramuzko burestun bat burestun bat zeraman; guztiai errosarioa esan zezatela aginduaz: "Jainkoak berak otoi egingo du"; eta baten batek, Jainkoak Ama Birjiñari errezatzea ezin ziteken gauza zala esan zionean, berrogei aldiz lur jo ta miun emateko agindu zion amorru biziz.

Amets-ikusketarik bolararik aundiena umeen artean izan zan. Ortz-karraska eta keiñu izugarria zan an ugari; etsaiaren mende zudela esan bear. Mutiko bat etorkizunaren berri eman naian ibilli zan. Beste bat, zurubi baten bera lau ankan jeixten zan, mailla bakoitzari muñ emanaz. Ba-ziran berak ain aundi ziran kurutzeak astinduaz arkaitz zulora joaten ziranak ere.

Egoki legoke orain sasi-agerpen oen ondoan Beiñarte'n egizko agerpenak gure begien aurrez aurre jartzea. Ainbeste sasi-ikusleren artean Beiñarte'n joera berezi ta arrigarria derizkigu. Eta bi eratako joera oieri Lourdes'en begira zeudenetik etzion iñork bere buruari iruzur egin. Bein baiño geiagotan uri-zaiak esku artu bear izan zuten gauzak bereh tokian jarrai zezaten. Oiek denak gora-bera, Beiñarte'k zekarren egiak gero ta izpi ageri ta argitsuagoak zitun, naiz ta bera ikastola lanetan izkutuan jardun. Orregatik, etzitzaien gaitz

izan Eleiz-Nagusiei egi-argi orren bidetik jo eta Beñarte'n "processus canonicus"ari bide emateà ark bakarrik baizekarkin Zeruko berri on pozgarria; eta berri zerutar orreri eskerrak, Massabielle'ko arkaitz zulo zoko ura ludi guziko erromesen gorku biurtuko da; an osatuko baizitun Zeruko Ama eta bere Semearen esku zabaltasunak soin ta gogo urratu-rik Lourdes'era elduko ziran ainbat eta ainbat...

V.- LOURDES'KO AGERPENAK SIÑISTERA BEARTUAK AL

GAUDE ?

Ezbai-zalantz auxe zuritu dezagun. Lourdes'ko agerpen auk gure kristau siñiskai antzo artzera beartuak al gaude? Eta gure bete bear onegandik saiestuko bagiña, siñausle izango ote ginake? Ez, ez dugu orrelakorik esan nai; ikasleekin amaituak izan ziran eleiz-iragarpenaren siñiskaiak, eta oiezaz gaiñera, siñausle errupean siñistu bearreko egirik ez dugu; Lourdes'ko agerpen egi auk, ordea, egi oien barrutitik atarira arkitzen dira.

B a-dakigu, noski, bere esku duela egi bat edo bestetzaz agindu uts-eziña ematea, egi orrek Elizak Kristo'ren eskutik jaso eta gorde ditun egi-saillarekin zer ikusirik badu. Baiña ez dugu oraindaiñokoan orrelako ageri uts-eziñik Lourdes'ko gertaeratzaz.

Ala ta guztiz ere, gai onetan erdi-bidetik joan bear dugula derizkigu, ez batera eta ez bestera saiestu gabe; ume-zinezkortasuna ez da, egiz, biderik onena, baiña siñis-gogortasuna, ori baiño okerrago dugu oraindik. Gizon erronka eta uste oien babesean antuste eta aundinaia gorde oi badira. Eleiz epai-tokiak zeinzen zuzen eta zorrotz jokutzen dun, gogora ekar dezatela onelako oiek. Eleiz epaille oiek, gizon uts diranez, zintzo jokutzen badute, Goteuna'ren laguntzaz argituak diranez, berriz, okerretik joateko arrisku gutxiago dute oraindik. Ori dala-ta, Eleiz epaileku ortatik datorzkigun agindu agiriak, bildur gabe onartu ditzagun.

Eleizak Lourdes'ko agerpenak oneste orrekin batera, agerpen oiek siñistu ditezabela adierazi nai digu; Eleizaren aburu au, bestalde, na-

barmen asko ageri zaigu 1877'ko Maiatzaren 12'an "Sacra Rituum Congregatio" tik zetozten itz oetan: "Agerpen auek etzitun Eleizak siñiskai bezela ez onartu, ez onetsi, eta ez gaitzetsi; ala ere, ain- beste lekukok eta agirik diotenez, gertaera oieri, ematen diogun giza-siñismena lege ta bidezkoa ar- kituko dugu".

Leon XIII'garrenak Lourdes'ko agerpenen alde eskubidetu zitun Meza eta Arrendi bereziak e- re, siñismen orren alde dira. Pio X'garrenak 1907' ko Azaroaren 13'an Eleiz guztira zabalduak izango dira Meza eta Arrendi oiek, Otsaillaren 11'an jai ori ospatzera guztiak beartuaz. Ez dakigu beste orrenbeste gersatu danik Eleizaren aakenengo zortzi mendeetan.

Burestun txit ederra eotu genezake Erro- mako Aita Santuak Lourdes'ko Ama Birjiñaren alde es- ku zabalki iritxi dituzten eskerrak gogoratuaz. Esker oien berri jakin nai dunak, oraindik orain Pio XII'garrenak 1957'ko Uztaillaren 2'an argitara- tu dun "Le pelerinage de Lourdes" izeneko Enziklika- -eskutzitza irakur dezala. An arkitu genezazke Leon XIII, Pio X, Benedikto XV, Pio XI eta Pio XII'gar- renen artzai abots atsedengarriak.

Eta, azkenik, gure lantxo au bukatzeko, ona emen len aitatutako Pio XII'garrenaren Enzikli- ka-eskutzitza orretan ageri dan siñiskunde garaitsu- enetako bat: "... du 11 Février au 16 Juillet 1858, il plaisait à la Bienheureuse Vierge Marie, par une faveur nouvelle, de se manifester sur la terre py- rénéenne à une enfant pieuse et pure, issuee d'une famille chrétienne, labirieuse dans sa pauvreté..."

L A N D O N D O, S. I.

ALKAR

IZKETA

YAKINLARIOK ARANTZAZUN

Igazko pagoak bezuan surten ere itsala, baña Ama Birjiñaren iturrira joan giñan; goiko eguzki ederrak eta iturriko ardo txuriak txit atsegiña egin ziguten atsalde artako billeratzea. Agorrraren 10'rsa, eguerdian bildu giñan biltzekoak. Anabost-edo be-giñan: bi apaiz gazte, bi apaiz gai, bi pasionista, laterandar bat, beneditar bat eta prantzizkotarrak gañerakoak. Pena aundia eman zigun geigo ez bildu izateak; alako elkartasun ederra izan-eta.

Batzu batzuk ez genduan elkar ezagutzen, baña be-realakorean adiskidetu giñan. Pagope billa joan, eta Gernikako arbolaren senide baten aspian gelditu. Esan ere egin zuan norbaitek-eta: "Gure izatean daukagula, gero, euskaldunok aritzaren miña."

Eta "belar goxo gañean eper-kabi iduri" elakarren inguruan exeriaz, iriki genduan biltzarra. Asi zan norbait izketan, eta esamiña txiki bat ehin bear genduala esan zigun. Yakin eta yakinlarion esamiña noski. Asi gaitezen igazko billeran artutako erabakietatik.

Agirian dago erabaki siek aldizkariaren idazkerari eman dioten batasuna. Bear bada orrexegatik izan ditu einbeste aldeko eta kontrako. Benaz, ezin diteke ukatu erabaki aien arbitrariotasuna. Artu zitezken beste batzuk, ori

bai; baña oiek ere lengoak bezin arbitrario zirakean. Biok berdin asmatuak izatekotan berriz, errezenak eta, gure us-
tez, probetxugarrienak artu genituan guk. Ala batzuen kon-
tra ta besteen alde argumentu apodiktikorik ba-daukala uste
du iñork? Beste geienak ez dute, ba, orrela uste. Begiratu,
bestela, gaur egungo euskal idazleei zernolako batasuna dau-
katen ortografian, eta gero billatu guztien gogoak asetzen
dituan bide bakarra. Eta bitartean zer? Egon, ez da? Ba,
egoten egonda nik ez dut iñun arbirik jaiotzen ikusi. Gai-
ñera, batenbatzuk uste izan dutenaren kontra, guk ez diogu
bidegabekeririk iñori egiten gure etzeko gauzetan bat etor-
ri nai izatearekin. Egin onoko au bestela; uste izan ez gen-
duala guk batere erabakirik artu. Bakoitzak zerizkion bezela
idatziko zukean orduan; eta oso pozik egongo gifañaken guztiok.
Eta zergatik? eta... eser egin izango etzalako!!! Bapo mo-
tilloki! Eta gure alaren neurrian anarki ori txikiagotzen
saimtu geralako kopeta zimurtuko digute, ba? Tira, tira!

Erabaki oiek ez dute ona besterik egin. Batasuna
eman diote errebistari. Batasuna, berriz, beti da indar; eta
iñoiz baiño geiago euskeraren gaurko egoeran. Jainkoari es-
kerrak ari dira zabaltzen arautxo oiek; asmo ona euki arren,
ordea, josten dira noizean bein utsegiteren batzuk Yakinla-
rion lumaetatik ere. Jakiña, zuzenda egiten ditu alakoetan
zuzendaritzak. Beti, ordea, kontu aundia euki bear du bakoit-
tzak arau oiek zintzo betetzen. Okerra bai zuzenduko da, bes-
tela, baiña okerraren zuzarrak ez dira sendatuko; eta bere-
alaxe sortuko dira berriz ere utsak.

Arau oiek alik eta geiena zabaltzea zan gure asmoa.
Eta bai ederki ulertu digutela Yakinlari batzuk. Billaxo^{ko}
Sakramentinoak ateratzen duten "Estudiante Sacramentino" al-
dizkerian agertu zan lantxo polita, arau oiek betetzera ikas-
tetxe artakoei otsegiñaz. Ba-dira beste ikastetxeetan ere
euskerazko lanak argitaratzen dituzten etxe-aldizkariak. Oiek
ere beste orrenbeste egingo balute, idazle-sail ederra izan-
go genduke euskal ortografiaren batasun-bidean. Onak ez du
esan nai euskera-kontutan legeak emateko eskubidea guregana-
tu dugunik. Gu ez gera iñor legerik emateko. Baña batasun
aundiagorik ez dagoan bitartean, alik eta geienak onela idaz-
tea on aundia dana, Aizkorri baiño aundiagoko egia da ori.

Pake pakean igaro zan oraiñartekoa. Baiña txir txir ederra sortu zuan urrengo zartagiratu zan gaiak. Asi zan norbait: ez noa iñoren kontra, guztiontako da jatorra baiñp jatorrago. Idazlanak egitekoan euki bear dugun saia-penaz ari izan nai nuke. Lanak eratzekoan ajola aundia jarri bear dugu, bai gaiaren adetik eta bai idazkeraren alde-tik. Ezin diteke edozer esan, eta nolana ere ezin diteke esan. Gaiari buruz, lenengo ta buruenik egia esan bear da beti. Gauza berririk esango ez bada ere, esaten dana egiaz-ko izan dedilla beiñepein. Begirune aundia euki bear zaio publikoari, eta ezin diteke onartu iñola ere zenbait idazle txoriburuek egiten dutena: egiak eta gezurrak nastu, eta gauza atsegiña izan ezkerro, bapo! Ori ez. Gauza jakingarri-ak idatzi bear dira; egiazkoak beti. Ez ibilli jakintzatan ipuiak nasten. Eta neurritik kanporako gauzak esaten ere.

Eta buruarekin bai bai egiñaz jaso genduan guzti-
ok oartxo ari. Guregatik esana izan ez bazan ere, oso bere
puntuuan etorria zala ikusi baigenduan. Ori giltzegi ta sa-
rrera bezela utzirik, Yakin`eko artikuloei ekin genien.
"Idazlan batzuk elkorregiak dira", zion batek, "gai atsegi-
ñagoak bear ditugu". Eta beste batek: "biurriegia da zenbait
lanan euskera". Urrangoak, berriz, "idazkera edo estilu a-
riñagoa bear lukete, eskolastika-usai geiegi daukate zenbait
lanek". Eta azkeneko batek iltze iltzean eman zuan galde o-
nekin: "baiña zer eta nolako aldizkaria nai dugu? Zein da
Yakin`en elburua?"

Jorratu ederra eman zioten oraingoan Yakin gaixo-
ari, eta benetako euskal zaletasunaz eman ere. Bildu ditza-
gun alik eta zintzoen izketaldi artan jaulkitakoak. Ez uste
izan, ordea, erabaki auek Jesus batean artu ziranik. Kia!
Amaikatxo ezetz eta baietz esanak ziran erabaki bat artu
surretik. Yakin`en jomugarekiko ori izan zan astinduena.

Batzuen ustez, irakurleati begiratu bear dio gei-
enbat Yakin`ek. Zenbait irakurlek, berriz, ez dute euskera
bear bezela ezagutzen. Ez daude gaiñera, jakintza-gaietan
iaiotuak. Eta askotan, naiago dituzte gauza atsegiñak, lan
ariñak eta adierrezak gai sakonak baiño.

Beste batzuen ustez, berriz, Yakin'ek ez luke bere goi-mailla ortatik jetxi bear. Yakin'en jomuga ez da irakurlearentzat izatea bakarrik; euskera jakintzarako bi-deak irikitzea ere Yakin'en asmo nagusienetan jarri bear da. Egia da, irakurleen bearra dauka euskerak, eta irakurleak ugaritzeko biderik egokiena gai ariñak idaztea da. Baiña ez da ori guztia. Euskera ez dago jakintza-gaiak erabiltzeko landua, eta tajutu egin bear du oratarako. Arazo au, berriz, Yakin'en muiñ-muiñekoa da. Ala jende xearentzat bakarrik nai dugu euskera? Jakintzan barrena sartu nai badugu, jakintza-lanen bearra dago naitaez; baita lan oiek elkor xamarrakizango badira ere, eta irakurle batzuen atsegiñetatik kanpora egonda ere. Egiteko aundia dute taju ontako lanak Yakin'en, eta ez dago ondo zokoratzea. Gaiñera, irakurleak ugaritzekotan bakarrik, or zegoan EGAN jator askoa; eta etzeukan zertan sorturik Yakin'ek. Gure aldizkari onek, ba, eskoladunentzako eta euskeraz trebatuentzako izan bear du, batez ere.

Agirian dago bi postura oien sorburua. Batak irakurleari begiratzen dio eta oiek ugaritu nai ditu. Bigarrenak, berriz, euskerari begiratzen dio, eta ori prestatu nai du, jakintzaren sailak ere euskeraren mende jar al izateko. Biok daukate egi puska bat, eta puska ederra euki ere. Bakarka artu ezkerro, ordea, bereala agertzen dira bakoitzaren oztopoak. Lenengoari jarraituz, jakintzan sartu gabe, beeko maillan bakarrik geldituko litzake euskera. Bigarrenarekin, ostera, eskutadatxo bat irakurle besterik ez lituke izango Yakin'ek. Bi joka bide oiekin konponketa bat egitea izango litzake ezertarakoena. Eta sail bakoitzaren arrazoi-aldea ikusirik, beste irugarren uste bat sortu zan.

Auen ustez, atal bat baiño geiago ditu Yakin'ek, eta ez alperrik eukitzeko. Atal guztiak ez dira mailla berdiñeko. Banaketa aundi bat egiñaz, bi sailletan erdibitu diteke aldizkaria: lenengoan, TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA, eta bestean, KULTURA-JAKINTZA-ANTZE eta ELKAR-IZKETA. Beste itzetan esanda, gai larriak eta gai ariñagoak. Bigarren sail ori batez ere irakurleari begira legoke. Ederki daude or berri jakingarriak, eztabaidak, bakoitzaren iritziak etab... Euskerari ere lagundu egin bear zaio, ordea, jakintza-sailletan barna, eta egoki askoa da ortarako TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA. Beti saiatu bear da gauzak jakingarri

egiten, eta geiago auetan; baiña naiz elkortxoak izan, badaute beren egitekoa euskera-kontutan jakintza-lan oiek. Bear bada, ez dute fruturik emango bertan bera; oien tankerako lanak egin nai ditzagunean, ordea, laguntza ederra egin dezaigukete. Gerorako, berriz, balio aundia izan oi dute, askotan, lan mamitsu elkor xamar oiek, beste arin atsegintzuek baiño.

Au ere bai gaiñera. Euskal luma gazteak zorrozteko ere bada Yakin, eta auxe bakarrik ere ez da gutxi aldizkari bati bizitza opa izateko. Idazleen artean, alabaiña, ez dira guztiak jaio gai ariñak idazteko. Gai sakonak naiago izaten ditu zenbaitek. Eta zer, bazterrean utziko al ditugu idazle oiek danok? Ez dauka euskerak idazle-gaiñezkarik ez, eta guztien laguntzaren bearrean dago biziko bada.

Ez uste izan, gero, gaiak sakonak dirala-ta interesgabeak izan bear dutenik berriorrez. Ezta iñola ere. Bada-ira amaikatxo txit jakingarri eta era berean sakon askoak ere. Oiek billatu bear dira batez ere. Lan sakonak, bai; baiña irakurtzeko gogoia ematen duten oietakoak.

Idazteko modura etorriaz, eskolastika-usai larregia izan omen dute oraiñarteko zenbait lanek. Eskolastika, berriz, zokorra baiño ere elkorragoa da irakurtzeko. Motelegia da. Eta gaurko idazlanek gai sakonak erabili arren, soiñeko biguiña bear dute, idazkera bizia eta atsegiña. Aldizkaria ez da esku-liburu batean bezela azalkizunak trinkotzeko. Banatu egin bear dira aldizkarian gauzak, xeetu, eio, irindu, karruskatu bearrikan gabe utzi. Ori, berriz, ez da egiten teknika-itx asko erabilliaz. Eta gutxiago euskeraz, oso nekeza baida gauza sakonak euskera errexean ematen; Ortarako ezi gabe dago oraindik-eta. Azalketa legorra baiño ensaio-tankera litzake egokiago.

Idazteko modua ere bai baiña, erabiltzen diran itzak dira, batez ere, euskera biurritua egiten dutenak. Jakintza-arazoa erabakiko bada, berriz, naitas itz berriak erabili bearra dago. Baiña kontuz. Berritasun gelegi erabiltzen badira, nazka eragiteko arriskua dago, eta orduan kale egingo litzake. Ori dala-ta, naiz euskerazko itzak euki (berri saleentzat ere bai au), euskerazko oiek zailtxo diranean, noizbeinka erderazkoak, edo gure artean ezagunago

diranak erabiltzea komeni da. Askotan, gaiñera, itz berriaren tokia poliki aukeratu ezkerro, texto-inguruak berak argitzen du, eta ematen ere bai batzutan itz berriaren esan naia. Bestetan oso egokia litzake itz ezezagunaren aldamean beste ezagunagoa jartzea. Erosoago biutuko litzake orrela itz berrien ikastea.

Eztabaida au izan zan, noski, billerako ezurrik gogorrena. Atsaldeko eseri aldia etzan izan naikoa erabaki batera etortzeko. Agitz arretua zegoan ura, etailuntzetik urrengo atsaldera bitarteko pakearen bearra izan genduan ura garbituko bazan. Eta bitarte ortan igaro genituanak?... Baiña gerotxoago esango dizkitzut oiek. Orain beste gauzato batzuk edestuko ditut. Estriña, eztabaida ori zertan gelditu zan.

Oniritzia izan zan irugarren ustea. Alegia, jomuga bikoa duala Yakin'ek. Jakintzarako bidean euskerari laguntzea; eta euskera atsegin baten bidez irakurleak ugartzea. Oratarako, irakurmiña sortzen duten gaiak aukeratu bear dira aurrena; bai gai ariñetan eta bai sakonetan. Urrengo, euskera bigunez eta bizitasunez eman bear dira gai oiek. Eskolastika-azalketa alde batera utzirik, ensaio-tan-kerak da gai sakonak atsegiñez erabiltzeko modurik egokiena.

Ederki dago erabakiak artzea, baiña asmoan gelditzen badira kearen edertasuna ta balioa daukate. Ona zer egin genduan guk. Bakoitzak nai dugun Yakin ori nolakoa litzaken ikusteko, Gabonetako zenbakia artu genduan muetratzat. Autatzen diran gaiak eta idazkera erabakien eredura izango dira. Gero ikusiko dugu zer nolakoa ateratzen dan, eta zer konpondu eta zer onartu bearrean gelditzen dan.

(OARTXO BAT Yakin'larion asmoak arretaz jarraitzen dituzutenontzat. Oso pozik jasoko genituzke guk beste edozein euskalzaleek gure aldizkari ontaz euki ditzaketen iritziak. Eta nola obeagotu ditoken esan edo idarokiko baligukete, pozik baiño pozikago eskertuko genieke. Esan, ba, bildurrikan gabe. Norberen izena emateaz lotsatu egiten bazerate, sasi izenez edo izenik gabe bidali; baiña bialdu beintzat, ezer esatekorik baduzute.)

Apika, gai jakingarriak aukeratzeko, zuzendaritzat

bildu ta etxeetara banatzea litzakela egokiena, idaroki zuan norbaitek. Onek ere ba-ditu, ordea, bere zailtasunak, eta etzan erabakirik artu. Prueba egingo dugu, eta gero ikusiko. Dana dala ederki legoke gai jakingarrien izenak bildu eta zuzendaritzara bialtzea. Emendik banatuko lirake gero beste etxeetara.

Kulturitzak biltzeaz ere esan zan zerbait. Aita Onaindiaren eskutitz bat bide zala onoko idea au jaulki zuan norbaitek. Liburuetatik kulturitzak pillatzea baiño ez al litzake obe teologi- edo filosofi-iztegi bat artu eta orko erdal-itzei euskerazkoak erantsitzea? Jardun egin genduan, baiña garbirik ezer atera, ez.

o o o o o

Urrengo goizean, bostetardietan, izadiaren loa goxoenean zegoala, eta poliki poliki inor esnatu ez dedin mendigoizaleek irrintzi egiten dutenean, Urbia'ra bidean abiatu giñan. Ermitatxean Meza entzun, eta Arkadia goxo artan igaro genduan bazkal ordua bitartean. Eta nor kon-tatu gosari txiki artan esandakoak. Gazteek bezela, bixi bixi, baiña kaixotarte ederrean burukatu genitun gure iritziak. Pozik jarrituko nituzke emen al banitza, baiña... ezin! Esan ez baiña bizi egin bear da ura, bizi. Gosari bitarteko piper-jardun ura, eta pago gazteen itzaletako abesti eder aiek! or' esan? Bizi, bizi, aiek!

Ez dizuet esan beste gauza bat. Ez dizuet esan oraindik kaixotartearen epeletan egin genduana. Zer egin genduan, ba? Asmoak trukatu, elkar berotu, eta adiskidetasun sendo bat lotu. Matasunaren, elkartasunaren bearra sentitzen dugu Euskalerriko elizgizonok. Ez esri-apaizen artean bakarrik; bi kleroetako apaizen artean, guztion artean. Gure eskuetan jarri digu Jainkoak Euskalerraren zozia; elburu bakarra dugu guztiona, eta problema gelegi somatzen ditugu indarrak bakarka alperrik galtzen edo, beintzat, ler-egiten ibiltzeko. "Elkartu" egin bear dugu, elkartu; guztion gogoetatik entzuten dan otsa da ori. Eta Yakin'ek ematen digu elkartasun ori sortzeko aukera eder-ra. Urtero biltzeko asmoa dugu guk; eta Yakin'en sortu

ditezken arazoak arrotzen ditugun bitartean abagune ederra daukagu elkartasun ori egiteko. Ez da prexio apaiz-elkartasunak eukitzeko kursillo-giroa ematea. Elkartu-nai ori sortzen duana ez dotriñaren falta, adiskidetasunaren eta lankideen urria baiño.

Eta guk adiskidetasun ori ikusi dugu gure artean, biar batean apostolutza lanetarako ainbeste balioko izan dakiguken apaiz-adiskidetasun ori. Ori dugu euskeraren alde lan egiteko biderik jatorrena ere. Amaika saio egin genduan gure arte bitartean asmo-trukatze ortan; eta beste urteetarako bildualdiei olako kutsua nola emango ere ibilli giñan. Erabateko erabakirik ez genduan artu, baiña bai azia erein. Asmatuko dugu datorren urteko billera nola antolatu.

Emen esandakoekin eta 10-11 aietan Arantzazu'bazterretan bisitakoekin atsegiñez gaiñezka utzi genduan billera aren epea; eta gaiñez egindako salda gozo ori, benetakoa apaiz-lagun eta euskalzale batzuk ba-ditugula ari zaigu gure barnean esaten.

Fernando Mendizabal, ofm.
Arantzazu'ko teologari.

"IBINAGABETIA" Jaunaren eskutitza.

YAKIN'eko estabaitak alako min-andi bat eman zidan. Ezin-armonizatuak ote dira gure arteko gora-bera ta liskar amaigabekoak? Noiz begiratu bear ote diogu euskal-idazle gustiok elkarri anaitasunez beterik? Elkarri arrika bizi bear ote dugu beti? GARAKOAK eta bestelakoak, ez ote dugu berdin xamar maitatzen gure euske a errukarri au? Zertako ibilli, beraz, elkar-zematzen espata-apentzaillea gora-goraka jasoaz? Iaso besterik expalitz... Baiña zauri odoltsuak ere irikitzen ditugu gure anai maite euskal-idazleen biotzetan, eta maiz, inoiz osatuko ez diran zauri sakonak. Geok gure burua ito-

tzen... Pekatu aundiagorik egin ote diteke euskera eta aberri maitearen aurka? Ez dut uste. Ala ere ez dut itxaropenik oraindik galdu bide zuzenera etorriko gerala noiz-pait, baiña ohe litzake len-bait-len, bestela agur gure urrezko amesa, Jaunak, begietako gandua kenduko al digu, Saul'i bezela, argi ikusi dezagun, elkarrekin leialki, eta adiskidetsuki iardutzeko. Ba-dugu bai euskal ezpata mun sartu, ta sakonki sartu ere, anai-arteon negargarriko ezpatadantza atergabekoan ibiltzeke...

"AITA ONAINDIAREN " eskutitza.

"... Gazteak zerate eta gazteak beti izan oi dira asmotsuak, eta bear...Ala ere, artutako bidez ongi zabilzate ta ekin orrela. Yakin aldizkari ederra da, nire ustez. Idaz lanak, atsegin izatekotan labur eta sakon bitez: ori jakitunentzat duzute, ta orrela egin dezakezute, irizle zorrotzen baldur gabe. Komeni litzake, guztion artean, teologi- ta filosofi-iztegitxo bat osatzea: orretarako, erderaz edo lateraz, izen-zerrenda aundi-aundi bat egin, izen oiek zerbait azaldurik, eta gure ORIXE maixuari bialtzea egoki litzazizuke. Gai oiek, batez ere, filosofi-gaiak, beste iñork baiña obeto ezagutzen gurean, eta apal-apal, eskale antzo, bereganazuzendu ezkeru, nire ustez, ark egingo luke, edo osatuko luke izen-zerrenda ori: Oso lanpetua dabil, baiña gai ori eder zaiona dan ezkeru, egin lukelakotan nago.

Ortarako, adibidez, aurtan lau baten artean leporatu egizute gai oietaz, bai teologi bai filosofi-gaietaz, izen-zerrenda albait osoena egitea. Eta datorren urtean, edo ariñago, amar bateren artean aztertu eta ikusi zerrenda ori, ta ortara aztertuta ikusi ondoren, ORIXE jaunari bialdu. Eta ark onetsitako itzak erabilli gero idaz-lan guztietan. Bestela naspilla aundia sortzen, bakoi-tzak bere bidetik jardun oi dulako. Orrela berriz batasuna lortuko gai garrantzitsu oietan.

Beste urteetan beste edozein gaietaz orobat egin dezakezute: naiz dala gizarte-auzi, naiz elerti, naiz eliz-

-legedi, naiz edozer..."

LIBURU BERRIAK

"GOAZEN LOURDES'a"

Lazkan'ko beneditar gazte batzuk eratutako liburuxka da. 87 orrialde ditu. Oso baliotsua da Lourdes ortara joan nai dutenentzako. Eskutik bezela eramaten gaitu. Aitzulora Andra Mari ikustera goazenean, orretzek kontatuko digu labur labur gertaera arrigarriaren mamia. Zeruko Amarekin itz egin nai dezagunerako ere ba-ditu otoitz ederrak; kantu politikak ere bai barnea girotzeko.

Andra Mari'ren ikustaldia eginda Sta. Bernardatxo'ren bizitoki eta oroigarriak, eta Lourdes'ek dauzkan beste gauza politikak ikusi nai baditugu ere, liburutzko orretzen orrialdetan arkituko dugu oiek ikusteko erarik erosoena. Bertso ederrak ere ba-ditu biotza gozatzeko. Euskera guri guria du gainera. Zer nai duzu ba geiago?!

Eskerrik asko beneditar gazte oiei, eta olako asko ekarri ditzatela.

P.M.

A R K I B I O E A

Itzaurrea. 3

TEOLOGI - FILOSOFI - SAILLA

Elizaren agerrera dotriña. - P. Mendizabal, ofm. . . 6

Bernadeta Saindua. - I. Etchehandy, O.S.B. 19

Mirari zearka Jainkoari begira. - Joxe-Austin, Pa-
siotarra 49

Adimenzaleen oztopoak mirariari buruz. - Damaso,
Pasiotarra 56

Lourdes'ko mirariak: Andre Mari bitarteko. - Ama-
deo, Pasiotarra. 62

Lourdes sinismena arkitzeko leku. - Arantze, Kar-
meldarra 67

Lourdes'ko agerpenen epai-iritzia. - Landondo, S.J. 77

ELKAR - IZKETA

YAKIN'lariek Arantzazu'n. - P. Mendizabal, ofm. . . 102

"IBINAGABEITIA" jaunaren eskutitza 109

"Aita Onaindiaren" eskutitza 110

